

LANDAJUELA, Anton



LANDAJUELA, ANTON

1.- Arratia deritxon aranean 1914gn urtean lotzaillaren 4an jayo nintzan.

Umaroan amaren ondoan, etxeko epeltasunaren gozoan, auzotegiko giroan, anditzean erriko eskola erdeldunera, erderarik tautik eznenkiala.

Iurre, jaioterri neurea alakoxea zan. Igurumen aretako erri eta biztanleak be, alakoxeak ziran; erderaren kutsurik bageko euskeldun utsak.


Ikas-orduetatik at, arranoak bazen aske gintzazan, eta geroagoko ume ta gaztek aiña ikasbearrik izaten ezgendularik, abailtu arte jostaturik etxerazten giñan, lerturik.

Umea beti ta toki guztietan ume; ikasteko gogo gitxi, eta seme-alabaren ikasketatzaz gurasoek be ardura andirik ez. Amabost urte bein bete ezker, seme-alaben eskola ta jakiteak baiño, gurago irabasten asi eiteazan.

Ni be, ba, amabost urteko adiñera iritxi nintzaneke, aitita-amama ta izeko-osabaren baserrian nengoken lugintza-lanai buru-belarri loturik. Erriko enparantza, eliz-iguruak, erreka-ertzak...danak aiztu nebazan.

Josta ta josta-lagunen artean aziarentzat gogor-latza zan kortatik ganbarara, solotik basora, bedarretan, atxur-lan eta beste zenbait lan goizetik gaua arte egunero esku tartean erabilli bearra.

Amazortziko nintzanean eta gizon-itxura jadetsi, alor, baso, bei, txarri, atxur et igitai egozan tokietan lagarik, etxera itzuli nintzan eguneroko alogera irabastera. Itzuli, asi, irabazi, jarrai, ekin... bizkar eta esku-besozko lana. Orreik lanok nire bizialdi-koak izan dira.



1979gn urtea da. Joan ziran egun, urte ta aldiak be, beroroitzen diardutanean.

Orduan, nire gaztaldian etzegon orain diran jolastokirik, atezbarruko dantza-aretorik, erriz-erri ibilli al izateko beribilik; ilargiaren gau-argian oyanera neskatiñaz joaterik, wiskirik, eskutik eskura dabilkigun labetik atarako diru ugaritzarik. Olakorik orduan etzan.

Norberaren errian, auzotegien bateko jaietan, edo urbil-urbilleko erritxuen bateraño joaten ba'giñan, jai jai egiteko naikorik zan.

Joan-etorria oiñezko zan, txistu tuntun-soñuan espartziñak altxitu eta illunabarreko "aimariak" jotetan ebaneke, neskatiñari etxera lagundu. Euri izanda-ta, edo zer edo zer aiztu egin jatalako ezin etorria izan dot esatea alperrik zan. Orduari utzegiterik etxegoan, iturriek agortzeko ba ziran be.

Gizona naiz-ta andreak jo, beti gizon edo gizontxo. Mutillak ez eban izaten illunagaz batean etxeratu bearrik.

Ogerleko bat, txin-txin zolidun ogerleko batekin erregekumek izaten gintzazan. Txistuaz dantzatzea duan zan, baiña bakadakin, auspo-soñu, akordeoi edo zana zalakoan ekin-aldi bakoitza amar zentimo, txakurrandi bat.

Beso bategaz garritik eta beste eskuagaz neskaren eskuari eldurik egiten ziran, dantzaketa lotu areik ziranaldi aretako abade ta gurasoentzat Pedro Botedro-ren su-ontzirako dei garratza. Modu artan askorik egin be, ez genduan egiten ez genkialako. Askatuan bai, askatuan mutillak giñan, beatzak urratu arte ekinik, zeru eta inpernuaren bildurrik bage.

Zidarrezko ogerleko barria be aitaturik, oar au emon: dantza, txikito batzuk arda, ogibitarteko bejan eta nai genduan beste jolastu..., ogerleko aren kondarrakaz etxeratzen gintzazan. Gaur egungo gaztientzako ogerleko arek eukan osasun ta indarra siñisgaitza; gogoratu bearra dogu, baita be, gizonaren eguneko aloger-dirua zala.

2.- Aldi artan ene jayoterri


Lau errota, eiera ezagutu nebazan; iru bola-toki, perratzalle bat, iru aroztegi, gizonetzko jostun bat eta burdin-arots bi; bost abade, lekaimiak eta eskola bi mutillentzat eta beste bi neskentzat. Santa Lutziko auzotegiak be bai eukan beste bat bertako ziran mutil eta neskentzat. Erriko eskola leporaño beterik, beti.



Lurra ta aren inguruak muskiltsu, bideak pista ta makarrez; ulea barriz etxean amak ebagia. Betik goraiño Gaztelugatxe-n aiña mailla burruan be izaten genduan. Garbitasuna gitxi ta argala.

Geroago baten eskola barria beko enparantza zarran egin eben, baiña obe iduritzen jat enparantza zarra soilik deitu, enparantza bat baiño besterik ezta iñoiz izan-da.

Irakasleak iru ziran. Nagusia ta gipukoar bat euskeldunak, irugarrena erdelduna.



Erderarik ezgenkielako, eta irakatziezo gurarik edo... erderaz egitera beartzen ginduezan. Euskerarik egiten bagendun zigorperatuak izaten giñan. Zigorra; etxera lagunak joan ondoren, idatzi ta idatzi eskolan, edo-ta bizi ziran etxepean, kortan.

Irakasleak; Don Marzelo, don Ignacio (biak giputzak) eta don Jose, au erdelduna. Eraztun madarikatua!

Ikasleak iru mailla ezbardinetan banandurik gengozan. Berengoeak 3, edikoeak lau edo bost (enaz ondo gogoratzen) eta gorengoeak 6pta. ordaintzen genduan.

Oraingo guraso ta ikasleentzat illean 6 pta. ordaintzea, uskeri gorria litzaikie, baiña aldiari dagokion neurriagaz neurtu ba-ginkez lengo ta oraingo auziak, 6 lauerleko areik aitaren egun bateko zortzi orduetako lanaldiaren ordainsaria zala esango leuskigu.

Len eta orain be, beraz, txakurrek ortozik eta ugelazoeak ortozik, alde guztietan.

Bideak.

Bilbo-tik Gasteiz-era ta Igorre-tik Dima-n gora Otxadio-rakoa. Santa Luzira-koa ta, Basauntz-era doozanak Gezala-tik nire ollasko aldiari egiñak dira, Garikoi-tik Igorre-bekoa zear Garbe-rako nagusia ta auzotegien batzuetarako medarragoak, oraintsuago-koak dira.

Iurrebaso, Basauntz, Santa Lutzi, San Kristobal eta ainbat lekutatik lurrak eta lanak emoniko zitua errira astoz jatsiten eben. Intxaurbizkar (San Kristobal-Santa Lutzi)ko astoak Basauntz-koak baiño andiagoak izaten ziran. Basauntz-koak gizonaren garrirañoko txikiak, ulez estalduak begiak.

Zazpi-zortziren bat taberna edo txiriboga, eta danetan aurkitu geinkean taloburdin, abarka, ikuzkai, txitxirio, urolo, igitai t-abar, danetik.

Lurraren emaitzatatik bizi ziranak larunbatero labekada ogia erretan eben. Asteroko ogia izaten zan, artozkoen bat be bai eta, sagarrik izaten zanean labeak artualeko sagar erre pilla mauka-mauka ogi-koskorraz jateko.

Garitik iru ogi mota egiten ekien gure amona areik; ogia, pamitxa ta tremasa. Egun berean jan ezean pamitxea gogortu ta gauzeztu egiten zan, baiña piti bat otzituten zanean gero, txit atsegiña ta gozo-gozoa izaten zan.

Tremasa barriz, urun eta birzaiezkoa izanik bigunean jan ezean latz eta jangaitz egiten jakun.

Dendako ogia, iturriko ura, eulorria.

Alor-lurrik ezeukientzat ogia Areatza-tik bialtzen euskuen. Zalgurdi bi goizero etorten ziran, eta geroago baten Bilbo-tik eta Durango-tik be, bai.

Kilo biko ogi andiak, bigunean mauka-mauka jateko aukerakoak. Dirua baiña urri, eta ogi gitxiagoz lapikokoa geiago janarazoteko edo ogi bi andi eta iñoiz iru be bai, sendirik geinak erosten ebezan.

Eta bi, ta iru erostea zergaitik izaten zan?. Legorra ta gogorra askoz bere gitxiago jaten genduelako, ume ta umekoskor giñanok. Gosez ezgintzazen azi, miskiriz ok-egin bez.

Eberdia, eta eberdiaz batean iturrietarako bideetan joaten gintzazan. Gorbeialdetik datorren ezkerraldekoek Agarrepera eta, Laurkin edo Leurkin gora eskuman bizi giñanok. Latsiturria be Angelatxunean ba-egoan, baiña ur zatarra, txarra zan.

Udaldian emoi urrikoak ziran, biak, eta belutia izateak ordu oso baten berari egokion txandaren zai egonbearrean izaten ziran.

Mutil-koskorrak iturrirantz aurrelari, etxerantzakoan nagi, ura epeldurik genkarren. Noizean bein belarrondoko ederrik be irabasten genduan.

Uretarako ontzia bustinlurrezkoa. Osorik musturra eukanak kirtenik ez, eta kirtendunak goiertzak akatzez. Osorik bat bera bez.

Ontzia izkutaturik txoriabien billa asten gintzazetan eta geu lako lukien batek ontzia beste lekuen baten gordetan euskunean, edo-ta gordetan geuntzaretan, larriak eta estukurak onduantxe izaten ziran. Alako egunetan bazkari bi: babalapikoa ta atzamarren txatxamurkadak.

Ardaurik etxeetan ezan edaten eta, jai egunetan be, neke andiz. Ura izaten zan, bada, aoan mamurtzen zanari bultz eta sakaegiten zintzurrean beera joatekoari egiten eutsana.

Eulia, eltxoa, ardia ta zorria udan ugaritzerik ugarrienak izaten ziran.



Euliek afalorduan eguna illundurik egoalako edo moteldu egiten ziran; eberdietan baiña bero kizkalak, trumoyak trumoi-euri zetorrenetan bizkortu, eztenzorrotu, millaketan askotuten ziran. Galdartean, morokillean, esnean, jaki eta edontzi danetan euli ta eltxo. Itorik ezegoana zirkinka igez egin gurarik, eta zirkinka ezegoana illotzik izaten ziran. Orridun eulorria abartxo bat izaten zan bazkal orduetan euliak izutu eta urrundu arazoteko. Ura eta eulorria, bata bizen bearrezkoa, bestea be

Azpil sakon andia iminten zan maiaren erdian, andik danak jaten egikean. Babalapikoa ustu, eulorria erabilia-ta, alan bere bi eziranean iru izaten ziran azpillean saldatik urten ezinean zirkinka. Maikide batek indabaz beteko zalia aora eroyanean, ezkerrekoa, eskubiko, aurreko, euli zendua azpilletik ateratzen eragion.

Euli-uxatzalle ona zanarren eulorria, txantxagorrik zomorrotan beste euli jango genduan, ziur askorik.

Kukusoak (Arratia-n ardiak) izurri naskagarria, odolniko izurria.

Mutikoen soñekoek lau ale; prakak, arkondara ta oiñetako biak. Pijama ta olako oe-jantzirik izenez bere ezgenduan ezaguten. Praka ta oiñetakoek oerakoan kentzen genduzen, atorratxo baiña, iñoiz bez. Igandetik igandera arkondara bera izaten genduan soñean loi zein garbi, osorik naiz tarra-tadatsu.

Amak oerakoan: Samako botoiak askatu.

Samako batoiz loturik lo-eginezkeroko gela bazterreko ardi, kukusoak ara etorzan, samara.

Ardia txikia ta pitia danaken ezten zorrotzekoa, eztenaren zuloa barriz egunetan be ezabatzen eztan kulatza. Zomorrotxo areik il eikeazan pozoirik, lupudun lobel eta ilgarrrik ezgenduan ezagutzen. Mutikoen okospe, idun eta samea belarri-etaraiño ardien eztenkadaz zuloturik izaten genduzan ardi madarikatu areik neguko otzez ilgo ziran arte.

Zorririk be izaten genduan, ardiak bazen ugari ez-baziran be. Orraztuten ginduezan bakoitzean beti izaten zan aletxoan bat orraziaren ortzetan.

3.- Mizkin eta mizkinkeriak

Ezgenduan ezagutu. Eskolatik etxerantzean ogizati andia bat jan eta kitu. Gose andia izatean barriz urdai-zerrendatxuen bat, sagarra....txokolate ta gozokirik iñoiz bez.

Ogi-zerrenda eskuan urtetan giñan, mauka-mauka janez jostatu, neke-neke eta illunabarraz etxeratu. A bai ba zan osasuna, jostatubearra, ezerenganako ardurarik eza, lokarririk gabeko zorun mamitsua.

Gizakiak biziera, ondo daroan neurri berean goibelago agertzen da. Jostalluak umeak, umetatik jori, eskuak bete gozoki. Aukeran dau dana, ok dagio inguru-minguruan ikusten dauan guztiak. Ugaritasun andiegia, ume ta mutikoentzan ondamendia.

Urtean bein edo birritan gure amak Durango-ra edo Bilbo-ra, eta Santiagito-ren malmabiskokokozko esku bete gozokiz itzultzen ziranean, zeruetako oziñetan gotzonak igerian bazen pozkor izaten giñan.

Umetxu barria uguztatzen ebenean be, aitabitxik arrapallo jaurtitzen ebazan gozobilpitietatik ale gitxi batzuk jasotzean; agure urtetzuen batek beko plazarik goikoraiño bialdu eta mandatuaren ordain-saritzat (5ctm.) txakurtxien bat emonten euskanean, pitean-mitean zeru andietan izaten gintzazan.



4.– Urtean birritan dirutsu

Erriko jai nagusi eta txarria ilten genduanean. Jaiak ziranean ba, izeko-osaba ta senditarteko besterik be bazkal-aparia egitera etorten ziran. Izeko batek txakurtxikia, besteak be alako bat, osabengandik bi-iru txakurrandi, egun danean izaten gintzazan, aberats andi.



Erreal bi eta aberatz? Bai orixe, aberatz be aberatz! 1979gn urtean bizi gara, eta oraingo ume ta ume eztiranentzat siñisgaitza.

Baiña goazen arin arian aurrera, geroago aitatu dotan arazo siñisgaitz egitera.

Txakurrandi batekin esku biak bete karamelo; iru txikigaz bonbil bat putzura (limonada), eta enparaau barkillotarako. Gaur egungo neska-mutilloek daben jostaillurik etzegoan, eta jostaillurik ezean ezerikiko bekaitzik ez irrikatasunik be ez.

Emen dogu ba, erreal biren etekiña. Erriko jai nagusia amaitu arte zorun bete-betea.

Bete ederreko bazkaritik izaten dogun asebeta zalakoa izaten dan jakin daigun, gose zorrotzaren ateka esagutu bear dogu, leengo. Oñazerik izan eztauanak, miñik ezari eskerrik ez. Egarrri gorria zer dan eztakienak, urari utikan. Oraingo umeak ba, neska-mutiko gazteak, jaioten diran une bereetik guztia oparotsu, usu, jori dabe. Goserik eztabe izan. Makina bat edaki bakan be, danen aukeran. Belarrian mandauliak ikutu dautsala?. Iradu larrian osagillearengana. Opilgozorik berezienak gosaltzeko. Lotarako, jolasketarako eta ikastolarako, iru mueta ezbardin soin-jantzi.

Ugaritasun geiegiak ok-egin arazoten dautsie-ta, bizi-poza txepeldu bere, bai. Goseak eta ezak bizkortu, zurtu, zalekoitu.

Ugaritza andian jaio ta aziak, urritasunik izan eztaualako, pitxirik pitxienari be, ederrespenik ez.

Larra gorrian bizi giñanontzat, ostera, dana zan ona, begibetegarri, gozo, txeragarri, eder, zoramen. Erreal bi eskuan genduazanean, eun gameluren jabea aiñako andi giñan.

Nire umearoko Igorre-n kaletar giroan bizi az ziran gitxi batzuek, baserriari lanaren lanaz ateraten eutsen etekinetatik besteak.

Alor-lur txikiak, eroso biziteko txikiegiak; eta lurretik jaso ezin ebena salokietatik etxeratzeko esne ta arrautza, ollaskoen batzuk eta oillo zarren bat saldu bear izaten eben.

Oiturazko abia lagarik olloen batek idartean, edo-ta etxondoko aterpean, edo inguru-minguroko sasia aukeratzen ebanean, toki barria arrautzagintzarako, goizeko lanetatik etxeokandrentzat beñen bat zera izatea zan: beraren ondo-ondoan artalea zabaldu eta, mokokatzen asten ziranean abi barria eukanari zapal buztanetik eldu, ezkerreko besapera jaso, eta eskubiko atz txikiaz tutua arakutu. Urrango goiz arte lurrean itxiten eban, utsik ba-egoan, eta beterik izatean, ostera, amama aren begi txikiak zelatarri, belarriak adi; olloaren kakarakadak, arrautz-saria eskatzen egiten dauzan karaka-makaren zai.



Jai egun andietan bazkari eta arian, esne gozotua ta ugoloa ontzi baten ta batera egozten ziran, mai-azkenik bere-bizikoana izaten-da. Bera barik ezin eitekean ontzia burutu; eta izena, barriz, (ugolozko zukua, esne gozotua nastatua) etxe danetan da beti-ta-beti "arroz con leche" izaten zan.

Izen arrotz ori leenengoz entzun nebanetik, aunitz urte andi, orain ezker, urrutian izango dira. Arrezkero be eztot entzun, ez berari legokion euskal-itz berezirik idazkietan aurkitu.

5.- Txarria

Ezan izaten neguan etxerik, txarria ilgo ezebanik. Berarentzakoa baserritarrak, berak azi ta gizendu. Solo-sail txikiak ebazanek, maistarrak bat, eta txikitxua loditzea naikorik izaten eben. Ugari artoa jasoten ebanek, ostera, bi be bai iñoiz. Bigarrena baiña saltzeko, eskuarterako dirua lortu ta gauza ta gai barrien batzuekaz etxeko ezak ornitzeko.

Azi ta loditzerik non da zerekin ezeukanak, loditurikoa erosten eban, da il. Baserritar, kaletar zein erdi kaletar, andiagoa edo txikiagoa etxe danetan ilten eben.

Odolostetarako porru-kipulak ilaurreko gauean txikitu eta xeatzen ziran. Kipula-xeatze-lanak artan ziarduenai negar eginerazoten eutsien.

Eta zer egiten eben malko ta begiretako miña uxatzeko, eta biaramonean izango eben odoloste-jaiari bizirik eutsiteko?. Bekokian, txapelpean kipularen azala erdi dindiliz sartu, eta dana kitutzen zan.

Kipulazalak gaitasunik ezeukan begiai negarra atertuarazoteko, siñismena ta fedea baiña alan ziralarik, gizonezkoak txapelpean da andrazkoak ulean orratzaz katiguturik egiten zan lana zan, esan daroadan negar-lana.

Ilik dagona bizira ekartea eziña jaku, bizia iltea, ostera, arazorik errezetarikoena. Edozeñek egin daikena.

Txarria ilteko, ba, artara, egokituak, ilten ekianak ibiltzen ziran aterik-ate eta goizean goiz, zorrotz andia ta kako andiagoa eskuan arturik ebezela.

Sukaldean goizean goiz urtean izaten dan surik gartsuena txipriztin-otsetan. Besoaurrekoak garbaldurik okondoraiño odola artu bear daun andrak. Paitar gozotik eta ogi bigunetik zurrut eta mauk dagie morroskoak...txarri gaixoa apaldu bage. Kortatxian gozez.

Eguna argiturik dago, ezta euririk. Aititeak, amak naiz edozein morroskok idea, galtsu edo beste errekiñen bat txarria erreko dan tokian gertatuko dau.

Kirrinka, kurrunka ta irrintzika txarria ilten ebenean, beti izaten zan mutil-koskorren bat atzealdean ilten egoanari buztanetik tiraka, etendura eginbaiñik.

Il, garretan erre, barrukiak atara ta eskegi. Amarretakoa gibelaz, odolosteak, buzkantzak eta estegu erako aparri oparoa gaez.

Este baltzak otzituten ziranean txikien zorame-na izaten zan. Izeko bateri oneik, bestearentzat orreik..., odolosteak etxerik etxe banandu eta, bi-iru erral zakeleratu. A zori ona izaten genduanal! Urtearen buruan bigarrenez bere aberatz.

6.- Mixinoyak

Urtero-urtero ta erri danetan mixiñoi-festa ospatzen zan. Iñor ez zan etxean gelditzen. Andrazko ta gizonezko, ezkonduak baltzez jantzirik etozan. Batzuek eperperañoeko burrustxoak ekarren, eta besteak ostera berrogei urte aintzina ezkontzerako egiñeko jake ta prakak, etxean eukezan soñekorik onenak, garbi ta txukunik, danak.

Ainbeste urte lenagotik egiñak izan ziran jake ta prakak areitako askorik labur, mirrizturik eta toki-en batzuk gorritzaturik eukiezan; baiña jantzirik onenak izaten ziran da, urtean bein edo bider eliz-jai andietan jantziten ziranak.

Korta, ganbara ta etxeinguruko lanak zolirik egiten ebezan. Arratsalde, irurak aldera, alde batera naiz besterantz begi ta ikusmena luzatu, bidetxior eta landak zearretan beera soñeko baltzez elizarako bideetan, FEDE siñismenez biotza betean.

Itzaldiak egitera geien baten bi, iñoiz iru be, bai. Bizargeak baiño bizardunak maizago. Buruñurdunak okotzetik zilborrerañoeko bizar andidunak izaten ziran.

Elizkizuna asieran abesti tamaltsu goibelgarriz agurtu ondoren, bizardun morroskoak zeruetako eztiatz gozaten eban ona zan dana, eta txarrera joten ebanean barriz, inpernuetako sakoneko su kiskalaz azur-muiñek dardaratzen euskuzan. Lenengoaren itz, atsotitz eta alegiak otzanak izaten ziran ezkerro, lokuluzka egiteko beren-begiak, batzuentzako.

Eta bigarrena, bigarrena zelakoa izaten ete-zan? Eperdian piper-miñaz, etorralla esan eikian, bigarrena. Eliz-barrena inpernua bera zan baiño bildurgarriagoa agertzen euskun. Gizon, ume, gaztedi; utzegite, oben eta orbanik zipriztineña, danentzako izaten eban illinti gorria, amaika margo bildugarrizko garraren irakiña: Pedro Botero-ren maskillo izugarria. Amabi ertzeko sarda erdoitua, sayetzalde batetik besterañoeko luzea. Obendunaren zintzurrean sorbatz zorrotzezko igitai eta, lepoan ozkadun ayotz kupidagea.



Elizako notintza andi arengandik goratz joian arnas-lurruna ipernutik etorren ke madarikatua zala siñistu arazoten euskun, bizardi sotil ederdun lekaide ark. Gurutz irudian besoak zabaldu, zerruruntz jaso, bularra ikubilaz jo eta beari oñakaz saka-egitean, elizaren ormatzar sendoak ia-ia arrakaldu egiten ziran.

Aste goibeltsu eta gerozko ainbat egunetan itzaiñiek be ezeben bear aiña indar ea ausarpenik izaten, idiai arrayoa! esateko bere. Aste otoiztsua, aitarentsua. Garbitokiko arimek, emengo senideen otoiz eta arrentzaen zai egozen, ziur asko, goruntz ibiliz zeruetako ateurraiño irixteko, aste txit egoki ortarako izanik.

Mixio-astean ba, biotzean kokaturik eta itsatsirik egozan oben areik arrakaldu eta lokatu egiten ziran. Arbien loraldia izaten zan eta urtean bein baiño aitortzen ez zana be, gazte ta morroskoa izan arren, onik eta apalik urreratzen zan, aitor-tokira.

Urtearen barruan bein edo batengo aitortzari, "aritoa, aritoa, entregetea" esaten geuntzan. Urteetik urterañoeko baiño labur eta motzagoa izatean barriz; "Artxoa", "Artxoa entregetea". Geien batean ARITODUN ziranak, andi ta adartsu ziralako edo, lekaideakaz bakeztuten ziran, erriko abadeaz lotsa izaten ziran da. Atso eta agurak arratsaldez aitortzen ziran, gaztedi biurria ta gizon elduagoak arratsbera berandutuan, eguna illuntzean.

Jaunartzea biaramon goizez, igandez. Elizkizuna amaiturik geroz paitar eta galletaz barausi eta, txoria bera baiño bere ariño biotzondoa bareturik, urte dana zearko oben-kezkak aitortokian ustuz izanaren goraiño poz-girozko betean.

7. ASTE GUREN:

Aste au txantxatan ta jolasketan ibiltokietan ez zan izaten. Eguenguren, Barikuguren eta berrogeikaro (garizuma) zearko igandetan benetasun bereziena nabaitzen zan, erritarren artean.

Deunaren irudiak lepoan arturik (ia gizonezko bat) bein beko enparantzara, eta beste bein lekaimen etxeraño eliz-ingurua deituriko ibillaldia egiten zan. Gurutz andi ta astuna iru morroskok ibiltzen eben.

Elizatik urrun, otziturik, txepeldurik gabiltz. Aldi aretan bai-egoan siñimen eta federik eta, dirua emoten eben irudi areik lepoko an erabilte arren.

Eguen Guren itzal andiko eguna, Bariku Guren goibela ta isiltsua.

Andrazkoek elizkizuna amaiturik, zoli-zolizorik etxerako bidean jartzen ziran, gizonezkoak bere, ugari. Etxera itzultzen ez ziranak tabernatan alkartzen ziran baiña, ardauz betekadarik egiteko ez. Kartajokoa oben astuna izaten zan, ez jakon iñori bururatzen kartetan jokatzerik. Solasean emoten ebezen elizatik gerozko orduak, illunaz batean danak etxera joateko.

LANDAJUELA, ANTON, II.

7.- AGATE DEUNA

«Zezellearen illean lauan, usua dogu munduan, Deun Agatena kantatuteko, bakoitzak bere moduan».

«Uzaba jauna damotzut pozez, atsegiñezko gau ona, zeure alabai jakin eragin, biar dala Agate Deuna».

Begipean dozuzan goiko bi bertsoz asten zan eskea, naiz-ta beste batzuek, beste era ta tajuz asten ba-eben be.

Bertzoko goralmen errukilariak, Agate Deunari zuzenduak, Andrazko ezkon-gairik izaten zan etxetan maitasunezko bertso kirikilariak, eta ilbarriackiko atzekabez ziranean "Aita Gure" bat edo bi.

Dirutan gitxi batzen zan, arrautz, lukainka ta beste txarriki ugari. Abestalde bakoitzak berarentzat izaten eban, batzen ebana, eta jaiia gerozko lenen edo bigarren igandez bate ederre-bazkaria, edo-ta aparia.

Agate Deunatzaz beste oitura bat be, emen: Urteazearko eberdietan joale, kanpai nagusiaz amabiak jo; larunbatetan da jaiaurreko egunetan al besteko dilin-dalandak; illeta eta sukanpak, arrikanpai, argikanpai, aimari-ezkilli jo eta, eliza garbitu. Meza ospetzean da bateoetan, abadeari lagundu, eta zeinbat eginkizunen arduradun sakristaua izaten zan.

Sakristauak be, ba, oiturazko eskubidea eban urtean zearko elizlanen ordain-sari, Agate Deunez, atez-ateko eskea egitea.

Eskeibiltean, berak, eskurik, ezaban artzen. Monagillogintzakoak, au da elizkizun andietan, illatetan da abar, laguntzalle izaten ziran mutiko koskorrak izaten ziran eskeaz arduraturik, eskean be egiten ebenak.

Mutiko eske-batzallek erriko alde batetik batzuk, besteak bestetik, goizerik asten ziran, eskean. Otzara andia eskuan ebela, bikoz ebiltzen.



Egunetan da illabeteetan sakristauaren etxean txarririk il ezarren, ezan gosearen bildurik izaten: arrautz eta txarriki; gari; indaba, intxaur... Lurreko ziturik ezeukanak diruz ordaintzen ekian sakrisau-atzazko oiturazko zorra.

Eskiljoteari buruz zerbait geiago

Ildakoa umetxoa izatean txan-txin zolidun ezki-lotsez adiarazoten jakon erriari. Umetxua aitatu daroat. Baiña egia esan dagidan: "Aingerua" izaten zan aur zenduatzaz erriaren aotik urtetan zan izena. Eriotz-ezkil zoliaren ota entzutean ba: "angeru-kanpaia da", "aingeruen bat" ilda esaten genduan.

Aingerua ezanarentzat, andiangoarentzat kanpai-ots astunagoak eta neketsuagoak izaten ziran, kanpai batek din errukitsua, besteak deun itzalla, din-daunezko kanpai-otsak. Andrazkoa edo gizonetzkoa zan jakin arazoteko, deunbada biz edo-ta iruz, amaitzen zan joaldia, Etxetik urte-tako orduan asten ziran, eta il-elizkizunak goizez izaten ziran. Orain beribillez egiten dana, orduan lepoz egiten zan.



Kanpajoterik andiena Agate Deunari eskeintzen yakona izaten zan. Illunabarreko orduetan, ordubete ta geiago be-bai batzuetan, kanpai danak batean txintxinlin-txantxanlan, daun da dan morroskoen beroz sakaturik ziarduen.

8.- ILLETA

Auzoko lau gizonek eroaten eben il zana elizaraño eta elizkizunaren geroz, illarrira.

Illeta-elizkizuna iru galga, iru mailla ezbardiñekoz izaten ziran; 3gn, 2gn eta leenengoa. Irugarren maillakoa, txiroena abade batek lagundurik izaten zan. Bigarrena bi-itu ebazan eta. Lenengoak etxaguntza zabaleko izatean erriko, au, errietakoek bere bai, deia izaten eben illetara etorri eitezan. Eta illaren urbil, Pater noster eta kitolis pekarariska, dominus nostrum, susun korda, pekara mundis eta abar, ez illak eta ez biziak tutik ulertzen ezeben milla erdel-itz birresaten erogioen etxaguntza lur emonkorren batekoa illa izaten zanean.

Elizarakoan ogidun otzaratxoa buruan jarririk, abadearentzat ogiaz, illaren aurretik, andrazkoa izaten zan.

Aintzin aldien baten, ezagutzen ez neban garaien batean eliz barruan, eta elizari loturik ziran aterpean illobiratzan ebezen illoztuek. Geroengo batean illerriek egin, illotzek eortzeko.

Elizetan baiña, aintzin zarreko oiturari jarraituz, sendi bakoitzak berari egokion arloa, sailtxoa eukan; eta senide edo etxekoen il jakena arlo aretan lurperaturik baegon lez jarraitzen eben igande ta jai etxekoen batek, belaunez belaun, Jaungoikoak daki, zenbait urtetan.

Esan daroadan illobia izeneko arloa oial zuriaz estaldu eta, oialaren ganean argizaiolak musturretik garra dagie. Udaldiko egun kizkaletan ainbeste argizai-garretan egotea, ezan izaten giro egokia. Argizaiol, kandela ta besterik be izaten zan izarar-txo zuri-zuriaren ganean: dirua, txintxin moteleko txanponak, bost eta amar zentimoko aleak.

Iru-lau, bost-sei, zazpi-zortzi diru ale jartzen ebezen zapi aren ganean illobiaren arduradunek eta, mezaratzen ziran bestien batzuk be emoten ebazan txanponen batzuek il zanaren alde abadeak otoiegin zagian.

Abade bat mezan egoan tartean, beste bat, bi naiz iru illobiaren ondora etozan isopo edo zipriztikai esku batean da bestean buruiña ekarrela; eta dirua emoten eutsoen eskura, zenbait zan zenbaturik buruiñan-eta, zenbait ale ainbat Aita gure otoitzen ebezen. Otoi edo Aita gure bakoitzeko isopoaregaz gurutz bat egiten eben, eta Aita gure bakoitza aida baten egin bere.



9.- UGUZTA, BATEOA

Ume barrien bat jaioten zanean, erri-ertz goreneko auzotegi naiz beste bazter bateko mutil-koskorrek jaiotzaren barri danok izaten genduan, jaioten zan lekuan jaioten zala, jaiotzaz baño bateoatzaz egunak eta orduak lenagotik arduratzen giñan.

Arratsalde izaten ziran, uguztatzeak, baiña eskola-orduetan ala eskola-orduetatik at? Neska-mutikoen buruaustea, egoneziña, kezka, urduri, a izaten zan.

Kristautzarako egitekoak amaitu ondoren elizatik urtetzen ziranerako, neska-mutiko-koskorak zai gengoan, aitabitxik arrapalan jaurtiko ebazan gozo zuri biribilen begira. Lenengo eskukada atzerantz, bigarrena aurrerantz, ala zein aldetarantz izango zan ezgenkiala, abarrik abar dabillen txepetxa baiño be, zurrago genbiltzazan.

Luzetuten eban ba besoa ta eskua, eta gu ollo gosetuak bagintzazan bat bestearen ganetik zeinek geiago eskuratu, ezti-zuloan erlea baño zoruntsuago. Ordu bateren buruan jai atsegiña izaten genduan.

10.– ELIZAKOAK

Gaixoen bat azkenatsetan zanean, esku batean ar-
gia ta bestean txiliñaz elizmutilla aurretik eta aren
atzetik abadea gure Jaunagaz gaixoaren etxera.

Txilintxuak txilin, txiklin tilín eta abadeak otoi,
odei baltzez Anboto baiño, goibelago ta beneago
joiazan biak atsanka egoanarengana. Eta txilin-otsa
entzutean andra naiz gizon, zar eta gazte danak
belaunbikotzen ziran egozan tokian egozala, eta
egiten ebana egiteari itxirik. A bai ba-zan Jaungoi-
koarekiko ondo ta lotsa eta ilzorian zanarenganako
kupira ta errukia.

11.– SAN JOAN-SUAK

«San Juan bagillean, denpora ederrean, sapoak eta
sugeak erre, artoak eta gariak gorde».

San Joan-eguna bai-etorrela somatzean, illabete
lenagotik asten giñan sasi, ota, abar igar eta sua
egiteko gai zan dana ta guztiak pilloak auzotegi-
etan egiten.

Zeñek geiago, zeñek sugarri meta andiago egin
emoten genduzan egunak eta egunak al genduan
lekuetatik al genduan sugarra egiteko ona zan guz-
tiak metagintzan.

Auztegiatiko zeingeiagokak, txapelketa bat iru-
dian, eta noiz edo bein besteen metak ikus-mikuz
ibiltan giñan zalatari gisa, Urbiritxagarrak ia beti ta
beti txapeldun, nagusituten ziran.

Norberena baiño andiagoa zala auzokoen batena
ikusirik, atxur, kodaña ta igitai zarrak eskuan artu-
rik barrien barri giñoiazan basondo ta baserrietako
erregai geiagoren billa.



Beste talde batekoen batzuek ekarriala baiño
geiagorik gertuta, ebagirik izten ebanean geroago
ekarri asmotan, alkarri ostu eta gero izaten ziran
izatekoak: alkarri arrika, lapur deika, belarrondo-
koak...., eta dana kitutzen zan.

12.– SAÑOIA

Eguna igesirik gauabarra etortean da, begiak alde
batera naiz besteruntz luzatu, su ibiltariak besterik
ezan ikusten, solomun da bazter danetan. Gari-las-
tozko eskutan izaten ziran, eta su-ta-gar erionean
«zuzia» eben izena.

Zuzia eskuan da, San “Joan Bagillean” abestuz, solo
ta baratzai inguruka mutil-koskorak ebiltzazan
gein batez, mutikorik ezegoanean baña, etxagun-
tzetako solo, landa ta alorrak be, ezagutzen eben
zuzien gar eta berorik. Seme gazterik ezba-egoan,
aita arduratzen zan, eta aita ezin ba-eban amatxo
zarra izaten zan zuzi eta eginkizunaren jabe. Eta
ke ta garrez zuzia eskuan, gora beraka besoa: “San
Joan bagillean...sapoak eta sugeak... artoak eta
gariak..., solo-ertzetan gora ta bera zolirik ibiltan
zan, mun batetik bestera, sarritan, igaro eziñik be
bai; ortzik ez-eta ogi-koskor gogorra aoan, iruntsi
gurarik eta mamurtu eziñik, San joan da zuzi ta
soñoarekiko fede ta siñismenez gañezka egiñik.

Soloz solo ebiltzazenak noiz etxeratuko ete-ziran
begira, urduriturik auzotegiko ume, zar, danak
Sanjoan-sua edo saño nagusia zai ta egarriz.

Noiz edo noiz biztuten eben ba, auzotegiko sutza-
rra eta andi ta indartsu zan artean “San Joan de
la Portaletaña”, edo zana zalako abestu; eta azken
sugarri-kondarrak ia errerik ziranean da sua in-

dargetu, txingartzaeren alde batetik
bestera poz-jauzika, ikoka, espartañak
eta betulez erre arte saltoka jostatzen
gintzazan.

Bigaramon goizean suaren auts, illinti
ta txingar ondakiñak ikusirik, auzotegi-
etako nezka-mutiko-koskor eta andia-
goak zirenak be, alkarturik asten ziran,
arrokeriz eta erronkatsu guzur esate ta
amaika auek lako: Gure garrak talletu-
rañoakoak. Gureak barriz, areitzaren go-
rengo orriak, be, kiskali. Gurean oster-
a, ordu t-erdigarrenean be, gar bizi-bizia.
Gurean ziran erretakoak erreta be, illin-
tiak gaur goizean be, su ta ketan.



Egunetako lan, izerdi, sasi-ostute e.a., ordu biren buruan suak jaten ebazan, ezabatuten euskuzan. Gure ondorengo balaunaldi barriek baiño zuruntsuago gintzazan, ziur askorik.

13.– AZOKA, ZEIA

Abelgorri eta txarri-azoka au larubatero ospatzen zan: Igorre-n, Areatza-n, Artea-n, Arantzazu-n. Larunbata batean tokin batean, urrengoa bestean, eta bost larunbateko illabeteetan Arantzatzu-n bi.

Baserritarren zaletasuna azokarako andia izanik, batzuek erdijai eta bestetzuek jai osoa egiten eben. Artarako etxeinguruko lanak zolirik egin lenengo, bizarra moztu, baba-lapikotik lurrezko azpil batean bazkaldu, amaikak aldera; oin-mantar zuriak, etxe-

an bei-narruz egiñekoz abarkaz jantzi, eta belaun gañerañoko burrus baltza be jantzirik, an joiazan zeia izaten zan errira ollar gaztea baiño txairoago, praka barriakaz mutikoa baiño pozago.

Bei, txarri, txalen bat salgai eukanak berak eroaten eban sal-tokira. Argi ta bedartza andidunak ostera bei zar argala, zuldarez beterik egoan basabei errape tximela, eperzorrotza, uletsua erosi gura; jan-betekadak emon, loditu, saldu...diru barria kaxan sartzeko.

Zeira azaltzen ziran abere danak salgai eziran izaten. Ipuzturri onaren jabe zana, arrozko samar joaten zan idi bikotea erakustera. Bigantxa eder eta esne-beien nagusiari be laket jakon, ukulluko aziendarik onenagaz feriaratzera. Eta gure aiton baserritarrek ezitan emoten ebezen azoka-orduak beiari begiraka, edo-ta zeinbat alditan eta ainbat lekutatik narrutik eldurik, errapean igurtziak egiñik, atzetik aurrera ta aurretik atzera arretatsu begiratu eta soegiten eutsaelarik.

14.– SALEROSKETA

Saltzalleak, aberearen jabeak goi-goian, jartzen eban salneurria, eroslearen eskeintza beetik asirik eta goruntz igoten eban neurrian, lenengo goiko neurria beera etorren maillaka maillaka; baiña eskaturiko ta agindutakoa alkarrengana urreratzen ziranarren, ezkontzak beti eziran izaten, bost-amar ogerlekoren arazo ebatzieziñagaiti. Bat ezin zirala





etorri ikusi eta entzunik, aldamenan izaten ziran lagunak tartekotuten ziran, eskua-artu, eta salerosketa burutzen bitarteko egiñez lagundu.

Bitarteko batek jaberri aulan: Jatsi jok bost ogerleko, bost ogerleko gaitik belea baltzago eztoz izango-ta.

Erosleari beste batek: Iru ogerlekoren goraberagaitik, gu ilda gero be zer eio izango juek errotak, bai, eta bei barik ez-adi etxeratu.

Irugarren eta laugarren bat be tartekotuten ziran, albokoaren begira ta egarriz.

“Albokea”, batzuetan, saltzen ebanak, bere bizkar arzen eban; bestetzueta eroslearen lepotik izaten zan.

Egungo gaztediak “albokea” egitea, ete-daki zer dan?

San Antonio-n beia zaindu egian, anaitasunik andienaz eta alkartasun txeratsuenan lurrezko ontzitxo bete ardau danen artean edatea izaten zan, “alboka egitea”. Albokarik ezegitean salerosketa koiperik eta gatzik bageko saldea lakoa izaten zan: ez goza, ez gazi, ez gaza.

Azoka-egunak larunbatak izaten zirala esanik dago.

Lau erritan ospatzen ziran, txandaka: aldiz Igoerre-n, aldiz Artea-n, aldiz Areatza-n eta bost larunbateko illabeteetan Arantzazu-n bi, bat besteen ondoren.

Baserritarren egun andia zendu zan, larunbata. Lurrik ezta lantzen. Gizonak besoz, atxur eta izerdiz gari-arto-lur bihurturiko baso ta oian andiak lerdoiz, otadi, elordi eta sasiz jantzi dira. Lur-arlo txikiak gorritzen dauz gizonak, eta gorritu eta landuten dauan salla tramakuluen laguntzaz. Lugiña, beraz, ezta ipuzturri bearrez, eta ipuzturrik bear ezean, buztargillerik be, ez.

Zail gertatzen jaku ikustea, solo ta alorretan, bei ta ipuzturri goizean goiz surtzilloetatik lurrunez kea ba-litzan.

15.- ERROTAK

Urkitzu-n Urbiritxaga-n, Santa Lutzi-n eta Olabari-n. Batzuek lurrera eroririk, besteen batzuek oraindiño sutik, ibilte nagizko arritzarrak ixil-ixilik, alerik ezean geldirik.

Non ete-dira astotxu xiki epoak, bolurako bidea buruz ikasiak?. Non doguz Areatza-tik eguneroko ogiaz etorten ziran zaldiak, bidertzeko zein etxetan gel eta itxaroten ekienak?

Solo-munetatik zear argizaiolak otzaratxoan, soñeko baltzez eta burua estalkiz, jai ta igandez meza nagusiratzen ziran etxeoandre zoli, euskeraren mintegi, abi bero, abe sendo, arroin gogor iraunpentsuak? Aida Gorri, apala geldi; aurt...gorago.., oo ots egiten eben aitita eta etxemutillak?.

Belaunaldi osoak eta euzko biziera berezia ezabatu ziran, beti-betirako, Aitor-en Euskal Erri zar ontatik. Laiariak, iracaketak, buztargille, gurdi-irrintzi, etxerik etxe ibiltzen ziran andra jostunak; eskale, esneketari, labesuak, burdinartzak, errietako enparatzetan izaten ziran dantzak, oitura berezizko ezkontzak; go-joateak ta eulorriak. Mariaren Alaben eta Luistarren Al-



karteak, kristau ikasbideari buruz urtean beingo azterketa eta txartela artzea, edo-ta ezartzea. Atez ate ebilzan arrain-saltzalle, «sardina fresko-freskua» esanez. Galiziar lapikobarrizalle ta aterkin ontzale eta afanlondoko agurtza-otoia. Gasteiz-era joan itzuliak oñez egiteak, etxondo-etako irapilloak; lorbideak iratareako ondo, baso tartetako bidetxiorretatik ujuju eta arrentzaz zantzo ta irrintzizko alaitasun loratsuan Urkiola´ra ostera egitealde eta a.a.

Igorrebaso, Basauntz-ako eta Santa Luzialdeko astoak.

Santa Luzitik erbarrenera jasten ziran astoak, bizkarrean ekarren esnea galgatzeko otzarak arriz beteturik, Igorrebasokoak baiño andiagoak ziran, askozaz bere.

Igorrebaso-koak astean bein erbarrenduten ziran, batez be errotara, garia ta arto-zorrek ekarrela. Txikiak izaten ziran, da negu ta uda beti ule andiz jantziak. Gizonaren garriz geroagokoak eziran izaten.

16.- JOSTAKETAK

Txirikil, kastor, gartza.

Lau-bost bat atzondo luzez, orkoroa lakoa lodiz eta musturrak bi zorrotzurik, txirikillea olakoa zan.

Berari egokion makillatxoa ukondo bat edo geitxogo luze, txirikilla baiño gizentxoagoa.

Makillaren musturragaz "O" andi bat egiten genduan lurrean, ertz barruan bat jartzen giñan. Esku

ezkerrean geunkan txirikilla eskuman geukan makillagaz jo eskuan geunkalarik, eta al baitik urrunen jaurtitzea izaten zan, joko-asiera.

Txirikilla joten ebana ez, beste jokolagunak aurrea betean eta edaturik izaten giñan txirikilla non jausiko zan begira; eta aizean etorrian lurra jo baiño len eskuz, edo-ta burruyto zein jakeaz altzo antzerako bat egiñik lurreratu baiño len atxilotu ezker, asiera egin ebanak galdu eta, txirikilladuna izaten zan, barrienbarri joko asiko ebana.

Iñork artu ez-eta, lurreratzen zan tokian lurreratzen zalarik, makilladuna ara joanik jotene eban mustur zorrotzean, jagi arazo, eta aidean egoanean barriro be jo-eta "O"ren erdiko kulatzatik urrutiratzen aleginduko zan. Lurrean iru biderrez jo ekian, aidean al eban oiñetan.

Jokoa paluz neurtzen genduan-eta, aulan izaten zan. Bosteun palutara izatean, txandaren nagusiak, txirikilla eroan eban toki aretatik "O"aren erdiko kulatzerañoko bidea, luzera begiz eta arretatsu neurtu ondoren 100, 150, 300... palu iñoian. Jokoa ziran lagunek ontzat artzen eben.

Alan izanik, ba, bera izaten zan txirikilla jo eta jaurtiko ebana. Palu-neurrian utsegiñarte, edo aldean joiala beste batek artu arte, jaurtiz urten zan barrutira beragain egotzirik "barru" egin eutzalako edo-ta beste utsen bategaitik txanda galdu arte ekingo eutsana 500... 200... 400..., onen beste "palutara" izaten zan, eta ebatzitako "paluak" jadetziten ebazan lenengoa, irabazlea.

Txirikilla-aldian etorten zanean, aizkoratxoa eskuan arturik berezi ta sasiarteak arretatsu arakatzen genduzan, txirikilla-paluen billaka. Onaren, politaren eta egokienaren billa emoten genduzan orduak. Eskolara bere, liburuak, idazkiak ba-liran eroaten genduzan, laguntartean erakutsi eta, esnebeiri baserritarrak errapera so-egiten dautsan lez begiratu, ondo bere ondo ikustatu. Ondoko lagunarena ohea edo politagoa izaten, aizkorea eskuan arturik barrien barriz beresira giñoiazan obeagoaren billa.

Txirikillaren izena eta jokatzea noraño edatua izan zan eztakian arren, lanen bat errez egitekoa izatean; «txirikillan egingo dogu, txirikillan etxe ori egin dabe, bidea, goldatu...». Neke barik



eta errez egiteko lanak diranean, beraz “txirikillarin” esaten dogu, “aisa egin”, giputzak esaten dute bezela.

17.– KASTORRAN JOKATZEA

Kastorrean jokatu, kastorrean egin, kastorra emen da, an eta arantzago, intxaurrekin jokatsen genduan jostaketa izaten zan.

KASTOR izena. Non da noiz sortua, eta euskalduna dan bere, jakin ezarren, noraño zabaldu eta edaturik egoan eztakitanarren, intxaur-garaia eltzen zanean asten genduan, intxaurrak ondu baño len, ezerik egozala.

Len da orain be, intxaurrak, oskol bi izaten dauz; mamiaren estalki gogorra eta, gogorraren ganean, biguna.

Ganerengoa arrakaldu eta zabaldu, iriki egiten da intxaurra ondutera, eltzera datoranean; onduan, bada, alea berez dator lurrera, garbi-garbirik.

Aleak bein osotzen ziranean, olloa zepelatzari begira legez izaten gintzazan, arriek eskuan eta gora begiraka, eratsileian.

Bein atara iristean, neketsua izaten zan arrakaldu zeitekeazan arte begiraka ta so itxaron bearra, eta egon ziran lez egoten zirala, arri-jaurtika erasten genduzan.

Intxaurrak kastorrerako garbiak izan bear-eta, lenengo eginbearra zera izaten zan; arri latzen kontra igurtziaren igurtziz ganerengo narrua jan eta, oskol gogorra garbirik agiri arte, igurtzikari ekin.

Azal ezeak atzamar eta eskuetan izten euskun zikin-margo garbigaitzak, azken-aleak arrakaldu eta lurrera jausi arteño irauten euskun. Loi kendugaitzaren izena, “orbana” zan.

Kastor-jokoa zer zantzaz. Iru marra lurrean da lenengo marran jokolari bakoitzak 2, 3, 5... intxar ipintzen ebazan. Bigarrena, erdikoa bat, alerik pitiena ta bere izena “KATXIN”.

Intxaurrak jarririk egozan leku artatik 4, 5, 7... urrats urrunetik jaurtiten genduan intxaurrik andiena, batek bestearen atzean txanda artuz.

Jaurti, jo eta katxinaren atzekalderaño bialtzen zan intxaurra irabazirik egoan. Eta nik, ik, ak, jaurtika ekiten geuntsan. Bein bat, bein bi, bein bat be ez,



irabazi edo galdu, lenengo lerroan egozanak katxina egoan marran PASA eginazo arte.

Garaipenik andiena katxinetik letorkigun. Txiki pitiena, katxinak atzean eukan marran atzekalderatu ezker, a egitea lortzen ebanarentzat izaten ziran, jokoan irauten eben ale ondarrak.

Eukazan danak galtzen ebazanari, joko mueta danetan-ki “puztu” egin joguk, “kipuztu” nabe, “kipuztu” gaitue iñotsegun, “kipuzturik” nago, “kipuzturik” itxi nozue esaten genduan.

Eta KIPUTZA aipatu dodalarik, kiputz itzarekiko azalpenen bat edo beste.

Jokaketetan ezezik, otzez kikildurik izatean be, koldar-aldietan bardin, samar-erruz oguztatzen genduan itza zan, Arratia-n beñikbein, KIPUTZA. Baita be, GIPUTZA.

Adibide lez ta adirazgarri, atzamarrarrak doguz lekuko. Otsak gogor ikututzen gaituenean, da atz-muturrak alkarrenganatu ezin, otzaren otzez “kipuzturik” dotaz eskuak “kipuzturik” nago, “kipuzturik” zagoze...eta zer edo zer egiterakoan koldartzen zan laguna be, KIPUTZA izaten zan.

Noizkoa ta nondik etorria dan, indarri eza ta biotzberatasunaren adierazpen dan KIPUTZ berba au, eztakit.

Giputz anaien belarrietan abegi onik izango leukeanik be, ezin esan neike; baña abegi on, zein aurrera gaizto, kopeta txordotu naiz betartea alaitu, berbatic ortzera aoskatzen dogun berba da, Arratian.

LANDAJUELA, Anton, III.



18.- GARTZA

Sail onetara dakardan josta-muetaren izena batzuetan Gartza, bestetzuetan Garza, be, ba-zan. Eta entzunik dot bein da biderrez bilbotarrai, beraiek, eurak be jokutzen ebela. Gurea bakarrik ez zan, beraz.

Arritxu zapal bat eta, arrasta edo posporo kutxatillen azal biak naikorik genduzan, gartzan egiteko.

Laukia lurrean marrastu, laukiaren erdian onen beste bana, azal bat bestearen ganean ipiñi, neurri artu batean marra egin eta andik arria jaurti laukira, kutxatitl-azalak ataratzera.

Arriaren joagaz zenbait atera lautitik, areik irabazi Jaurtitzen genduan arria gelditzen zan tokian gelditzen zala, berea jaurtin arte azken zanak ezin artu geinkean; eta jasoten bagenduan, gurutz bat eginberrra izaten genduan, egoan lekuan lukikeririk ez egiteko bigarrenezko jaurtitea, ba, arri zapala geldirik egoan leku bertatik egin bear zan da. Egin eta jarrai, bat bestearen atze, laukian zirenak amaiu arte.

Kutxatillen azalen izenak batarena TXOTA, bestearena SANTO bardiñak etzielako.

Gartza-garaian, olloa landan zomorro billa ibiltan dan lez ibiltan gintzazan gu be: arduratsurik, kutxa utsituen bat non aurkiturk.

Jokoarren bat, iñoiz, bi be bai, beti genduan praktako sakelean artarako gogorra be, beti gerturik edozelako ordu ta bazterretan jostatzeke.

TXOTA ta SANTO, SANTO ta TXOTA lapikozar eta txoletetan gerdetan genduazan, ganbarako tellape ta ormazulotan aldi barriaren begira.

Ainbeste arri-takada arturiko TXOTA-SANTORIK asko, asko bere asko, zapuzturik eta baltziturik izaten ziranaren, urre balitzan gordetan genduzan.

Esan daroadan lez, arri zapalak izaten ziran jaurti, jo, atera... gartza-jokorako; baiña arriaren ordezeko burdin egokirik eukanak, bakaldunkumea zaldiganean bezain andia eta zoruntsuagoa izaten zan. Alako burdiñaren begira gengozan beti, mokaua jaten diardun nagusiari bekaitzez adi izaten dan txakur gosetia lez.

19.- KINKIN

Orain arteko jokoak aiña sustraiturik ezegoanarren, ordu ederrik emoten genduan onetan be. Geroago besteak beste sustraiturik ezegoala diñot, eta ezaren zioa emen: Kinkin-lurra, joko-lur berenbegikoa izateko lur biguna izanbear, taketa sartuko ba-genduan. Elizpean, onen inguru-minguruan, feri-lekuan, plazan edo beko enparantzan, San Antonio'ren aterpean, ez genduan aukerako leku egokirik.

Lur-mamia bear zan, bustinkia ba-san obe; idor ba-zegoan uraz busti, urik ez bazan txixa, taketa ondo sartu al izateko.

Arra biko luzeak ziran taketak, mustur bat zorrotz burdin-taketen tajuzko izaten ziran.

Jokoa zertan zan: Taketa egotzi, al zanik sakonen sartu. Bigarren izaten zanak be, bardin; baiña bide batez tente egoana jo, etza arazi ta berea zutik jarri.

Zeinbat biderrez izaten ziran 3, 4, 5...taket, bat bestearen zayetsean, eta azken zanak berea jaurti eta bustiñean sarturik ipintean, lenengo zanak bereari eldu, atera eta tsas barrien-barri lengo tokira zutik egoazenen gañera, eta bidenabar bat edo besteri etzaun arazorik.

Lur egokia aukeratu; busti, jaurti, atera, jarrai eta ekin, a bere jostabidea zan; KINKIN.

20.- TRONPA

Emen aldamenean agiri dan irudia lakoa zan TRONPA izeneko jostagaillua.

Argitasunez esan ezin dotan zera da; salokietan salgai ipineten ebazenean izaten zan tronpa-denpora, edo tronpan ikusten ginduezanean salgai jartzen ebazan. Zan moduen zala, tronpa-denpora.

Tronpa zarra, joan zan urtekoa galdu barik eukerak izaten ziran lenengo asten ziranak, aldiari josteta barriztua, egun gitxi batzuen buruan, danak ez, baiña geientsuenak bai, tronparen egarriaz gintzazan.

Eskolatik berako bidean aurrez Ageda eta Josepa-ren ESTANKOA eritxon saletxea, etxe zarra, illuna, danateriko salgaiez betea; oñetako, taloburdin, argizai, jostorraz, lurrezko pipak; arkatx, idazkortz, ingurrazti, urolo, tillista, gozoki, kebedar abar eta abar eta milla abar....



Tallista zorroaren gañean katarra lotan, intzigarri zorroan, aletartean, katuemea kumeak azten, goiazpian salgaiak dindiliz erosleen burua joteraiño; erakusmaia, mostradora alde batetik bestera erosteko gaitasunik ez euken diruz, erdi-erditik untzez jositako diru "faltsos" beterik, alakoxea zan Ageda eta Josepa-ren estankoa.

Geu giñan baiña nagusiagoak bialdurik zeinbat biderrez izan ete giñan "propina ta pitantzaren" begira. Txakurtxiki bat izatean eta idazteko arkatza bear, bera baiño txikiagoa bialtzen eban estankora arkatza, "propina ta pitantzaren" billa. "Propinarik eta pitantzarik" ez euskun iñoiz emon, egonaldik egiñarazoteko luzeroan euki bai, eta iñoiz belarondokoen bat be bai.

TRONPA ta berari egokion lokarria kana bat kordel erosteko iru txiki, iru txakurtxiki naikorik genduzan. Gaur egun iru txiki uzkeri utsa, orduan baiño dirutsa andia. Zer egin geinkean? Al ebanak erosi, ezin eikeanak arrausi. Oraingoz baiña erosi ta arrausi itxi daiguzan beste baterako.

Aizkora txikia esku batean eta zur zati bat bestean, an izaten gintzazan mutil-koskorak, etxaurreko mokor tartean, edo kantoi gabeko leorpean geure tropagintzari loturik, etxegillea etxegintzan baño arretatsuago.

Zurari emendik txiki ta andik txaka, goitik atala kendu, begiraturik begiz neurtu..., kendu egiok emendik...burualdetik be bai piti bat eta zorrotzu egiok musturra.

- Mekatxis lamar! Ertzeko balio txikiegia dok-eta.
- Ea, beste egur zati bat. Zuok be, untze bat topeizue
- I, Patxi, zuen aitek etxekok formoirik?
- Bai, gure aitek bai, atzo be ibili yoan-da, kortatxia egiten.
- Ekarrrik, ba
- Bai, da gero, yakingo ba-llok yakin?
- Gero diñok! Tronpea egin yeiguan lenen bai, ta gero... otz eztana bero.

Zur-zati bat, beste bat, emendik kenduyak eta ortik ez.

Lengoa txikiegia egin dok-eta, oraingo au ia obeto egiten ba-yoguk. Egundo santa, tronpa bat ezkeinduan egin, dantzarako gai zanik.

Egin, ez; egin ezkenduan egin, baiña tronpa-egunean izaten genduari ordu eztitsurik.

Tronpa-kordela.- Txakurtxiki bat, goiti jota bi, naikorik izaten yakun kana bete lokarri erosteko. Baña nork izan bera? Nork artarako bear genduzan sosak? Zer egin geinkean?

Saku zarrak altzitu, atzartean biurtu-eta, lokarria egin.

Danok gintzazan kordelari, baña ondo egin, eresia izaten zan lakoa ondo ta txukun egiten ekienak gitxi batzuk baño ez ziran.

Iru muetakoak izaten zian tronpak; “boa”, “dardaxa” ta “erdikoa” (arranta).

Boadunak, norberagaz erabilteko andiegia ziralako edo, gitxi izaten ziran. Boa baña; boa izaten zan, tronpa erregea.

Dardaxa; Luzangatxoa, dantzari ibiltaria, artegea. Artegetasunetik eta dardar ibiltetik etorkorren DARDAXA.

Erdikoa dardaxa baño motelagoa, laburragoa, biribillagoa ta politagoa.

Boaren dantzaldia iraupen andikoa. Lo egitean eukite eban garrantzia, olari josirik ba-legoan; lo-urumatxua egitean genkian dantza egoala.

Tronpak, aria ta aritik egiten genduzan lokarriak, zaku zarrak, aizkora ta zurak, danak joan ziran nonbaitera.

Leen baño erri andiagoak ez diran errixketan ba-dago non jolasturik. Umeak baña, baña umeak non dira ba, ez da ikusten jostatzeke ume azkorik. Galtzapean ikasgaiak dabezela, goizetik gauara or dabilkiguz etxetik ikastolara ta ikastolatik etxera, udaldiko opor-egunak noiz etorriko diran begira, jolaskontuan ezer gitxi egiteko daukieta.

21.- IZERREAN

IZERKA ibiltean eukan izena IZER, jartze onek.

Izerka egin, edo-ta izerka ibilte onek amar lagun, zein ogei naiz ogetabost artzen ebazan. Batzuetan geiago, bestetuetan gitxiago, ez egoan zeinbat izan eteikeazan araurik.

Amar bat izaten gintzazanetan, iruen bat izaten gintzazan areitzondoa zaintzen, beste zazpirak igesian joaten ziran jagoleak amar, amabost, ogeien bat zenbatu arte.

Bein zenbatu ezker, ba-etozan tximistaren aizean arrapatzera, ibilte andiak egiñez arrapatzen eben bat eta, areaitzera eroan. Arrapalariak atzilotua jagon

bear, ikutu barik, eta atzilotuak esku bategaz areitzari ikutubearra izaten eban.

Eta an egoten zan areitzondoan beste loturiko bat ekarria arte, gero beste bat, eta beste bat, dana areitzondora ekarri arteño.

Lenengoa eskuaz areitzari ikuturik, bigarrena lenengoari eta irugarrena bigarrenari, eta olantxe danak batek besteari eskua emonik.

Areitzean loturik egozenai, azke zanak ezin egin eban “izerrik egin”, au zan eskuak ikuttu; baña batzuetan bi, iru ta geiago etorrik, eta jagoleari marro egiñik eskuan ikutu eta “izar” esatean, danak askatzen ziran eta bakoitzak alan igesi. Batenbat an geratzen zan txakurren aurrean basurda nekatua lez beste bat ekarriarte, eta beste aske zan batek “izar egingo eutsan arte.

Tronpa izaten zan, jostalluetan erosten genduana, beste jostallurik ezgenduan ezer izaten.

22.- FUBOLA

Egiten genduan fubolik be, pelota ederrik izan ezarren. Soñeko zarrez eta trupu zarrez biribiltzen genduan pelota antzerako zera, baloia.



Gaur aiña arau ezan izaten, ostikopelotan giñanentzak; alde bakoitzean 5, 10, 15 naiz 20 naikoa izaten giñan ostiko-jokoan ekiteko. Atezaña izaten zan zeregiñik egoikienduna, besteak pelotea

non, an ziran danak.

“Mano”, “penalti” eta alboertzetik eskuz ateratzea izaten ziran uts nagusiak. Beste guztia su ta garra zan ainbeste motikoren artean pelotarik be ikusten ez genduala. “Kanbio de campo” be ba-geunkan.

23.- PELOTA

Eskupelotarako toki egokirik ez genduan izaten. Elizpean egiten genduan ateak eukazan edergarriak joaz, azpeltu arte.

Amaren gona zarraren zatiz, artuledun kaltzerdi zarrez, beste gaien batez biribilduriko pelotak izaten ziran.

Pelotatzaz kondaira andirik ezin esan naike.

24.- TXORIAK

Udaberria, abiak, txoriak.

Txorrotxio dagi txoriak, zugadiak orri barriz jazen, bedar orlegiz landak, sasieta pilpil biguna, bizitza barriaren sorkundea. Txoriabiatara egiteko eraturten gintzazan bi, iru eta iñoiz lau be bai.

Iturrira joanez eberdietan bidean izaten ziran sasi zuloak arakatzen, mutillak giñan; ez txindorrek eta ez amilutxak ezeben zulo ezkaturik izan. Txoria non ebillan, nora joaten zan eta nondik etorren jakitea garrantzi andiko arazoa izaten zan; baña beste taldetxoa, alkarregaz batean ez giñan bizi izaten da, gu zaintzen orreik, ederto areik zaintzen gu, or izaten zan untzea.

Zalatariak be izaten genduzan. Onein eginbearra zera izan eikian abia non zan jakin, batez bere abi bitzuk eta irutzuk jakitean, ze egunetan ala goizez edo arratsalde artzeko asmoa eben jakin, ori zan ba, zalatarien eginbearra. Ordain-saria, txorikuma bat.

Bein batzutan, beste iñork jakin ezean, luma-luma egiñik ziranean jasoten genduzan, baña nork noiz artu izaten giñanetan.... zenbaitzuk lumarrotan bere.

Etxaurrean banaketa, eta txoriak etxera egunen bat -bat birako.

Artourunezko oreka ta esnezukua izaten ziran txorikumen janari zomorroz bizi zirentzat eta darentzat. Zozo ta birigarroentzat arrak eta marrazkilloak bere bai.

Txori txikiak goren baten jota bere, egun bat, edo -ta birako bizi eben. Zozo ta birigarreoena barriz lau-bost egunerañokoa, eta jaten ikasteraño bizi eukanaz askoen artean, gitxi batzuk besterik ez.

Etxeinguru-minguruko makatzan batean izaten ba-zan gardan-txori, beste txori txikien batzuk, abia kaiolaraturik eta zugatzetik aldatuz etxeko leioraño amek ekarten genduzan, eta aita-amakazi. Emen bere zori txarrekoak gintzazan. Jaten ondo ikasiz gero, perejilla emoten eutzalako amek, katuen batek erpea jartzen eutsalako, atea zabalik izteagaitik... Agur gure txorikumatoak!

25.- KARRAMATOA (GOITIBERA)

Zur utsez egiñekoa izaten zan karramatoa, goitibera. Txirinkatarako gai zan zuragaz iru txirinduna, jostallu berezia. Lepoan arturik leurkiburuko basora joaten giñan eta beraren ganean jesarririk aldapan beera jatsi. Gorantz izerditan, berantz aizetan, zeregiñik naikoa izaten gendan geure buruari naitasunak egitean.



26.- TRANBIA (TXIMISTBURDIA)

Zeanuri-tik Bilbo eta Durango-rako joan-etorrian ebillan burditzar andi-andia. Ganean, tellatuan bi buztanduna. Alde baterantz ibilterako buzten bat jasoten eutsion bide danean egozan tximistarietara, bestera egiterakoan barriz, eta jatsirik izaten zana arira goratu.

Gizaldia, aza ta porru, esneak, txarriak, txalak eta iñoiz-iñoiz, beian bat be bai, izaten zan guztientzat toki egokiena.

Beste gauzarik ezan izaten non ibilirik-eta, bertara, tximist-burdira joanbearra izaten genduan.

Igorrebaso-ko asto txikiak gabean azke izanik ea Gezala-ko soloetara jasten ziranak, ainbat izten ebazan lurrean zerraldo ilik.



Izaten ebazan erri baten eta bestean, bere orduak, iritxi baiña ariak jausten ziralako, bidetik urten da indarririk etorten ez jakolako, ez eban izaten ordu ziurrik nora edo ara eltzerako.

Tramakulu onen joan-etorri zaintzen ebenak Igorre-ra, Zeanuri-ra ta beste erri batzuetara deika, urrutizkiñez deika emoten eben eguna, urten ba-eban ala ez jakiten. Eta erri batetik urregorako birtartean galtzen zanean, zer? Eguna ba-zan baioazan, makurgunetan arkar ez joateko oarturik. Gaua izaten be, bai-oiazan, eta makurgune batera eldu baiño lentxoago gelditurik, diruaz ibiltzen zana, koadorea jatsi ta makurguna aren bestaldera joanik arrasta, posporoa biztu eta dei egiten eutson, dagiala aurrera, bidean trabarik ez eola-ta. Oarrez eta oar barik, izaten ebazan alkar joteak.

Buztanaren musturreko kirrinak aldatzean bera etorrela aritik urtetan, inpernua argitu eikean an izaten ziran su-tanta eta txatarrez. Ara jausten zanean barriz, txapelaz eldu eta baztartzan eben, su ta garretan, txipriztin da txatarretan.

Gizaldi onen lenen urteetan egin zan tximistburdiaren askundeia orain urte gitxi dirala bezterreraturik gorazar andi baten bidez. Eguneroko lana itxi eban Arratiburdia, urak eroan eban, jayak egiteko izan zan artatik.

Beste jolasketa bat.

Elizako. Jolasa baiño eliz-jaya geiago zan: Judas iltea.

Goizean mai andia elizpean iminten euskuen, eta egunak lenago asten gintzazan bakoitzak al ebana egiten; zurezko maillu txikiak, andiangoak, politak, ganorabakoak, eta karrakak.

Etortzen zan ordua eta danok gengoan gerturik. Judas ilteko. Malludunak maiari malluka su-ta-ke; karrakadunak esku batez bein, eta au nekatzen zanean besteagaz, karraka jotearen abarrotsaz ezer entzuten ez genduala. Txarto egiñaren zorrik artzen eban Judas gizaioak, oeratuko zan arte gau artan.

Judas bizi ete-da ba?. Oitura ori amaitu zan.

Amaika bagara orain bere, Judas direnak eta eztirenak ilten diardugunak.

Itxi daigun mundu barri obe bat alde batera, euren-
tzako egiten diarduen orreiri. Oraingoentzat, gero-
koentzat, gero bere geroengoentzat izango da-eta,
zer apurtu ta zer barririk egin.

27.- MARIA-ren ALABAK ETA LUISTARRAK.

Oitura andia izan zan, oitura garrantzitsua illean
bein domiña lepotik dindiliz jarririk, Jaunartzea.

Bai-gintzazan Luistarrak bere, mutikoak, illero Jau-
na-artzen genduanak. Maria-ren eta Luistarrek, da-
nok gintzazan illeroko oitura bete bear genduanak.

Lenago amaitzen zan Luistar izatea mutillentzat,
17, 18, urteko izatean gizontxo agertzen ziran-eta,
ortik letorkien Luistar izateri itxi eta gizonen al-
derdira, gizonen taldean sartzea.

28.- TXANTELA

Gizonen alderdiratzen ziranak azke egozan illero-
ko Jaunartzetik, loturik egozan baiña beste lokarri
batera: Txantel. Txartela artzera. Urtean bein bider
joaten ziran abadearengana, kristau-ikasbidearen
azterketa egitera.

Ikasia aztu bayakien, edo-ta geiago ikasi ba-eben
eliz barruan naiz elizpean umekeririk barik izaten
ziran, batek itaundu besteak erantzun; erantzun da
itaundu txantela eskuratzeko aiña itaun izaten zan.

Kristau andia, benetako kristaua izaten zan txartela
bereganatzen ebana. Eta lortzen ezebana, zer ete
-zan? Aldi artako abadeai, zerua ta inpernua bes-
terik ikusi ez nabaitzen ezebanai argibidea eskatu
bearko geuskio.

Len txartelaz eta orain txartelik barik, zeru-inper-
nuak lengo lekuetan ateak zabalik.

29.- UGER-EGITEA

Janbarritan urreratu zalako, eguzkitan geiegi ego-
teagaiti, berantzako ta beste naiekotxuen bat izan
ebalako, bai itxas-ondarretan ta bai erreka-ertzetan
illik eta itorik izaten da.

Gu, ba, orduko denporetan eguzkia pilpil izaten
zan egunetan goizetik gaberaño gengoan uretara
sarturik: bazkaldubari, bazkalaurrean naiz baz-
kalostean; sagarrak jan-da, utsik naiz beterik izan
sayetsarte, ugelaxoak ba-giñan lez, beti uretan
gintzazan. Gaixotu orraitio iñor bere ez. Izaten
genduzan berantzako ta kakapirriak, loratik arako



sagarrez etorrenak ziranak, baiña sasipean barrua ustu eta urrengo sagarrondoan barriro bete, olan emon genduan umaroa.

30.- AMAREN AZARIKERIA

Arenbeste uretan ibilteagaitik belarrondokorik arzen genduan, baiña irrintzi batzuek egiñez gero lagun bateaz alkartzean, dana egoan aitzurik.

Urtubi-ko oxinean goizez, Olabarri-ko presan arratsaldez, Olabarri-koa ezanean Manuel Torrekoaren oxinean, da Sigurdui-ko presapean, lau leku oneik izaten ziran erriburuko umeen igeri-tokiak.

Oraingo andrakoak mundurik erdia ikusirik eta beste erdia ikasirik daukielako, ama areiri adarra joteko, ikasiak eta ikusiak birritan geitu bearke.

Amaren malizia, azarikeria atorrea mutikoari zintzurrean jostea izaten zan. Atorrea soñean gorantz biribildurik, eta prakak eta espartañak erantsirik, uretan da uraren alboan izaten giñan.

Etxean izatean, da ibaietatik ur begiz ondo ikusteko eroan, samakoa ondo ba-egoan edo ez ba-egoan, ez euskun begiratzen.

Ai, baiña, etxeik urrunduten ba-gintzazan... gero etozan eguzkia ta euria; nork igarri euri ba-zan ala eguzkia izango zan?

Korapilloa azkatzen ikasi genduan amaren begiak beti zur eta ekin andian. Begiratzen euskuen da gero KORBATA geldi. Biar bere bardin, okotzpeko txilibixta lengo tokian.

Egun batean baiña begiraturik ondo, an ikusi eban amak, semetxo aingerukia, okozpean zer edo zer egiñik ebalatzen.

Jausi zan mutikoa astoaren gañetik, artu bear izan ebazan iñork artu ezin eikeazanak. Ikubilkada, ostikada, eta eskuaz emon ekiozan danak eta guztiak. Jostorratza ta aria andik aurrera ixilka norberagandurik-eta, ondo josten be, ikasi eginbear, batek bes-teari.

31.- NESKATIL UGERLARIAK

Neskatxirik be ba-egoan ugerzalerik, iñon ziran zulo ta abarpean ostentzen ziranak, mutilik izaten ezan uger-tokietara joaten ziranak.

Ganbara bazter txokoan baten amak itxiriko gona zarren batzukaz ornitzen ziran, alboetara so-egin

mutilik ba-egoan ikusteko-ta, uretara joaten ziran aratak ba-liran, uretan txipli-txapla egitera.

Andrazkoak burutik oñetara gona zarrez jantzirik, eta mutikoak, ostera, arkondaratxoa, prakak eta oñetakoak arri ganetan lagarik.

Eskenduan izaten ara ta orra begiratzetik. Geunkezanak kentzen genduzan da, esku biakaz ankar-tea ezer ez erakusteko gorderik, alan joaten gintzazan uretara.

32.- TXITXIBURRUNTZI, BASOKOIPETSU

Egun bateko jai, arratsaldez izaten zan jai au. Igande bat lenago, edo bi geroago, berrogeikaroz (garizuma) ebillan baso-koipetsu.

Egunak lenagotik asten giñan nora zergaz joan, zer egin da eguna, arratsaldea zelan emon.

Olabarri ta inguru urbillekoak Montxogan-en egon zan pago bakarrera giñoiazan. Arrautzak, urdai, lukainka ta txistor geugaz eroanik, bakoitzak al ebana.

Sua egin bear zan, su barik ezer ezin egikean, sua izaten zan gatza ta piperra jaiari emoten eutsana-ta.

Sua egiten genduan, ba, eta arrautzak suan gogortu, urdai ta txistorrak zotzean erre, ta arratsaldea geure bizkar izaten genduan orain dan fubolari, ostikoketarieiri begira ta so eta itxaroten egonbearrean.

Nagusiak be egiten eben jai au. Oneik mutil-koskorak baño urrunago batzuetan, urrago be bai bes-tetzuetan, taberna zuloen batean be bai, eta elizara egun artan iñor bez.

Oitura oni ondoen loturik Arantzazu izango da. Argiñao ganeko Adrian Deunaren basatxanoa izaten jake begiko.



LANDAJUELA, Anton, IV.



33.- TXIRRITXIRRIAK, KIRKILLAK

Txirritxirriak geure-geurek izaten ziran onein aldia etorten zanean. Agertzen ziranean, ba, Leurki-buruko basomoztura, landararik gabeko basora joaten gintzazan Olabbarri ta enparantza zarraren inguru-min-guruan bizi gintzanak, zomorro abeslarien billa; zirik berezienak eta ura Leurkin-go iturrian, eta atxurra etxean arturik joan be, egiten gintzazan.

Emea izaten zanean bertanbera izten genduan-eta, arra ba-zan txapelera, banaketa egitean ezpairik gabe beti-ta-beti.

Kirkil abestia entzuten ezan etxerik ezegoan, eta, eskolara betsopelpean eroaten genduzan non gorderik ezgendualako. Eskolara sartzean txapela erantsi bear genduan, txirritxirriak kolkoan zear zabaltzen genduazalarik. Alakoen batean gure maixua don Errafael-ek burura ekarten eban kirkillaren abestia non izaten zan, etorten zan araña eta, artu alekoak artzes orduan izaten ebazan zomorrondunak.

Aldi artan bai-egoan gizon bat, Bilbo-aldean gaxopeturik bere amagana etorria, Pedro abarketeruren etxetik eskola bitartean bizi zana, enparantza zarrean.

Gizon a, gaixo samarra izanik lanerako gai etzan-eta. Siarrustabeti-n eben baratzera joaten zan zer edo zer egiñik eguna emotera. Makiña bat kirkil eta txorikumak etxeko ate inguruak betarik eukazana. Bererengandik gauzarik asko ikasi genduan.

Kañabera arrakalduan sartzen ebezan kirkil abeslariak-eta; guk bere alaxe egiten genduan, egunetan bixi eiteazan uraza ta ardauz bustitako ogia emonik.

Gañeteik eta andi-andika esanik doguz. Igorre-ri buruzko gure orduko zerak, jostakisun eta bizitza. San Antonio-en aterpeak berba egin al ba-leu izango luke ainbat zer esanik. Burruka egitea eskolan ameztzen zan, San Antonio-n burutu.

34.- BOLA TA TXIRLO

Pedro Txato-ren etxean gaur egun jatokia dagon lekuan; Julitxu-nean bere bai, biak egozan enparantzan zarrean. Timoteo Atutxa eta Calistro-ren bitartean be ba-egoan, eta oneik galdurik gero, Txakolintegi-n laugarrena, besteak besteko bizi andirik izan ez baeban be.

Bolan inarduen danak eziran izaten besotsuak, baiña geienak bai, lanaren lanaz besoak kirioturik eukaizan-eta.

Diru-goserik ezan izaten, diru geiegirik ezan izaten-da. Ardoa, indarra eta lukikerien batzuk izaten ziran jokoaz ebatzi bear zirenak.

Kirtenetik eldurik, besoa betean jaurtizen zan bolea, eta eskubarru bere bai, txirlo txikia jotera.

Ai ene erri ezereztua! Igorrebaso-ko asto txikiak Santalutzi-ko andiak, errotak, kastorrerako in-txaurrak, gartzarao arrota-azalak, txirikillak, zidarezko ogerleko zuria, kinkin, txirritxirri, bolak eta abar. Auzo errietatik eta auzokoak ez tiranetatik biztale barrizko uriolea etorri dala dirudi. Batek bestea eztau ezagutzen. Etxe barriak pilloka egin dabez, errikoentzat baiño askoz bere geiago.

Ule-bizar-moztzallek iru ziran; Basilio, Kasinto, Landajo; geroago baten Elezkano. Iru txikiaz asi nintzan ulea moztuten, eta zazpi bat txakur-randiz espartañak erosi, txikitoa txakur txiki bat izanik.

Urtubi bekoan egoan labeak, Katalin, Mañesi, Juliana ta Pepa-ri amaika ogi eder erre eustien, larunbatatan, labaondotik igarotzen giñanean pamitxa zatiak guri emoteko.

Agur, agur dagitziet lau labesudun andratxoai, bertiraun guztirako, eta altsudun bakarrak bezai erruki ta bemaioe betiko zoriona.

Olantxe joan zan gure mutiko-gaztaroa, azeri txikikeriak alde batera itxirik.

Amabost-amasei urtetako nintzanean etorri jatan niri be, etxetik urtenbearra, Artea izanik nire erri barria. Iruen bat kmko. Bidea Igorre-tik Artea-ra, lenik bere ibilirik nengoan bide aretan.

Udako egun kizkalak izan ziran, goizean goizik jagiten gintzazan, esneak eratsi eta jatekoa be emon, eta lanerako norbera be ondo gertuten zanean, buztartu eta danok joaten gintzazan, soloetara. Beiakaz bat ebillanean, atxurraz bestea, eta irugarrenak be izango eban zeri eldu ta zeri ekin.

Erriko enparantzaren ondo-ondoan egoan gure baserria eta, enparantza aretatik igaroten nintzatzuenian, ez neban izaten an ebiltzazan mutiko koskortuekin, jolasteko gogo andirik.

Udako zereginik aukerakoan, emen batzuk; Idak ebagi, batu, burdia betetan lagundu, eta etxera etortea izaten ba-zan, zeri edo ari ekinbearrean izaten gintzazan, jateko ta lo egiteko gelditzen gintzazan-da.

Ida ebaketa-lanak Baltzola-n da Murga aldapa-tsuan genduzan. Eta euria zanean, barriz, zugatzperen batean erdi kikili gengoan lañoteak zer egingo eban jakin gurarik. Ez-genduan izaten ez eurirako ez eguzkirako, abarrez da idaz eginiko etxola txiroenik, etorrana etorten zalarik bizkarean artu bear genduan. Erroi ta belak eta igitaia ziran eguneroko lagunak.

Gabaren illuna etorranean basoan bertan, edo-ta bidean ogi-zatiaz sagar bat jaten genduan eta, Baltzolan bizi ziranai biramon arte agur egiñaz basoa beraka etxeratzen gintzazan.

Etxean be ez-genduan izaten jaia egiteko gogo ta aukera egokirik. Amamak ekarritako astokada andi bat, bi bai zarritan (artoa zan), buruak kendu, zuritu, babak alde batera ta lastoa bestera egiten genduan. Lan au ona etzanarren, zer izaten ete zan gurdia bete ida ustu et metagintza! Ogetaka burdi usten genduzan apaldu baño len, illa beteko kontua.

Uda aurreratuz izaten zan aldirik, ijito edo onein antz andino ziranak, erriz erri dindilindongo egitera etozanik: komediantek. Berandu apaltzen genuan-eta, areik ikustera joatea nai izaten genduanean, agurtza otoitu bear genduela-ta, makiña bat aitzakirik izaten eban gure amamak. Batzuetan, ba, joan, bestetzueta ez, alan joaten zan udea ta udagoiena.





Eta igande goizetan zer? Astoa neukan sasia lotorik, bera bete bedar ebagi eta etxeratzeko itxaroten eustala. Lana, lana ta lana, lana besterik etzegoan.

Esanik **bezela** dotan lez emon nebazan 19 urte arteko egunak. Emeretzi urteko nintzanean biurtu nintzan etxera, eguneroko alogera gaur drogeria, karlisten koartela izandakoan irabasten asi nintzan.

Emengo lana amaitu genduaneko, Bidebieta-n, Basauri-n eben lana nire bi nagusiak Jose Mari ta Jose Amorrortu-k, etxegintzan asteko. Ezdakit orain zenbak irabasten nebanik, baiña bazkaria ona ta ederra, mai-ganean erratellu andia indaba, urdai ta lukainkaz bete-betea; aren ondoren okela ta piper ugari arduaz lagundurik. Gozez il bainik izaten dan saiak okela barriaren ganean izaten dauan lakoxe orritza izaten genduan egunero, bosten bat errearen ordeko. Noraño joan geintikez, gaur egun, bost errealegaz, eguna lanean emon goseri bage, eta gabean etxer biurtzeko asmoz?

Idazki Deunak irakurtzean, aintzin batean izaten ziran alatz eta miraririk askogaz jabetzen gara, baiña beste bat emon geuk ikusia eta oraingo gizadi barri onek siñistu ezin dauana: bost errearen lapiko-babaz, lukainka ta urdaiz, ardau ta ogiz, okotzerano betetan gintzala.

Basauri-ko lana amaitu besterik ez, Zornotza-ra neukan deia, Forjas Baltzura joan naitean, da ara joan nintzan. Goizeko seiretatik eberdi osteko ordu biak arte, eta ordu bietatik gabeko amarrak arte izaten zan ango lana, aste batean goizez eta bestean arratsaldez.

Goizetan ba-egoan tximistgurdia Durango, Bilbo ta Arrati-ra joan-etorritz ibiltzen zana, eta ni bere, an joaten nintzan goizez nintzanean. Arratsaldez nintzanean, barriz, ez-neukan etxera non biurtzerik. Zer egin nagikean, alako ordu larrietan, amar km.tro-ko bidean etxera biurtzeko.

Arratsaldez nintzan astelen batez, 40 ogerleko kolkoan arturik joan nintzan lanera, eta izan genduan, langille nagusiari lagun egiztala esanik, txirringuts barri-barria eroatera joaterik. 42 ogerleko ordaindu-eta, eskuan ne-balarik, bereren ondoan lanera, barriz bere.

Amarrak, gaubeko amarrak urratuten egozan da, ni larriak jota. Etorri izan ziran amarrak, txirrina eskuan arturik 10 kilometroko bidean etxera nentorren, txipi-txapa.

Txirrindun adiskide bat ba-neban, ez-nintzan iñoiz arenaren ganean jezarri, eta ni gixajo andia, txirrina eskuan etxeratu nintzan.

Gaberdiko 12ak ezker apalduta nengoan eta, txirrinean ikastea amets. Ostiko-pelotarako zelaya egoan etxondoan-da, ara joatea erabagi neban, ortzi argitsuan lekuko izarrak izanik. Ibili ta ibila, jausi ta zutitu, izerdiz bustirik emon nebazan goizalerañoko orduak.

Ala bearrez ikasi neban txirringutsan ibiltea, egunetan eta egunetan ogei kilometrotan joan-etorriak eginik. Zornotza-ra eroan nindun nagusiak Igorre-n lantoki barria eginik, eta lan urritasun andia egon zalarik, Igorre-n asi nintzan lanean gudaritzara joan artean.

LANDAJUELA, Anton, IV.



35.- IRUÑA

Ogetabat urte, Arratia-tik at gitxi ibilia, gitxi ibilia ta ikusi be oso gitxi ikusia nintzan. Ala-ta bere jayoterrria, lagun adizkideak, etxera ta danak atzean itxirik españarren morroi doakabetsua izatera naroardie: Iruñara.

Eundak gudarigai bultziratu ginduezan Bilbon, Iruña-rakoak gitxi batzuk besterik ez, eta adisikide ta lagun zarrrik bat bera bez.

Aldean geunkazan soñekoak kendu arazo ta kakiz berjantzirik, batzuentzat andiegi ta bes-tetzuentzat txikiegiak izanik, eta mearregiak, irripar eraginkor gebiltzazan tximinoak bagintzazan Iruña-ko kaleetan zear.

Lenengo bost illabeteak etxeko biziera lakoak izan ezarren onez emon genduzan, zigorpera txirrist egin geinkean arri labanetatik urrundurik eta, araundian artoski genbiltzanzalako.

6gn illabetea, au zan garagarraren 17an Cuidadela eritxon tokian jagole ta zelatari gengozean, nengoan lekutik beragoan, Ciudadelako enparantza, gizontzar morroskoak mai baten inguruan, andrazkoen batzuk be, arteko ziralarik. Alako batean...España! entzun neban, abotsa nondik etorren ez-nenkiala.

Gaua illundirik egoan, eta morrosko ta andra areik tximista bazen askarrago aldendu ziran egozan leku aretatik. Militarrak ziran.


Ondoa ez-neukan lagunik eta, zer egin neikean alako estualdi baten? Fusilla zan neukan lagun bakarra, et balak txispa egiteko lekuan ipiñirik, zer gertatukoan geldirik nengoan.

Bai-etorran kabua ondoan gudari bat ebala eta, alkarrri geure agurra egiñez gero itaundu neuntsoen, zer jazo zan an beko landan.

Iñork ezer etzekian, eta gudari lagunakana jon nintzanean, an bere erantzun bardiña jaso neban ezer bere ezekiela.

Illabete berean, 18gn goizez guk ezer jakin ezarren, zer edo zer bai ekien koartelea, ordu bete lenago etorri jakunda, txanda barria.

An gengoan gudaletxean, soñekoak kendu barrik, eta laster baten ekarri ta emon euskuezan txokolate irudiko paketetxuak, gaxo zaurituak ara-orra erabilteko ogetxoan bere bai.



Danok gengozan urduri, eroapena galdurik, kez-kati, kezkatu ta artegetasun aretan gengozenla-rik, txuskero bigarren izena daroen kabo zarrak aoa zabaldu eban, eta geroago aitatu dautsuedan “txokolate paketeak”, zauriak osateko gaiak zi-rala esan euskun-eta, ondo zaindu genduzan.

Olantxe izan gintzazan goizeko orduak aurre-
ra egiten eben artean, ogibitarteko txiki mirriza
zutik jan-eta, buruz aurre, gerturik egozan ka-
mioi zarretara sarturik, algeduan eran Zarago-
zara-ñoko bidea egitera.

Ibiliz eta beti aurrera joanez Muskaria-raño,
Tudela-raño eldu gintzazan, Naparroa-ren ego-
musturra. Emengo bidertzean egoan ume ta
gizadiak guk genkian baiño geiago ekien-da,
arrera onez artu ginduezan. Eta bereala asi ziran
urlie erria “geurea da”, besteen bat be beingoan
“izago da” esaten, España-ren zalbatzalleak gin-
tzazala usterik. Areen ustea ta gurea ez etozan
bat, zer gertatzen zan guk ez genkian-da.

Geldialdi labur bat egiñez gero, barriro bere bi-
deari loturik aurrera goiazan, Zaldua-raño. Eldu
gintzazan noizbaten, koartel edo gudarietxe ba-
ten ateetara. Jatsi giñan da, barrura sartu, koar-
tel aren iguru-mariak ikustemiñez. Barruratu

eta enparantza txiki batean aurkitzeak, gelditu
egin nintzan.

Enparantza esanik dodan lez txikia izanik, alde
batean korta itxurazko zaldietzauntzat utsik,
baiña alako etxauntza txoko batean gudaria
egoan zaldi bi zaintzen eta, beste zeregin ba-
tzuek egiten. Enparantza-ren erdian maiari in-
gurua egiñik, lasai ezarririk, iru gizonetzko ego-
zan: Ogibidez izardun zan bat eta, beste biak
“baturroak”, kakizko soñeko barriz jantziak,
gudaketarako deiaren zai egozanak. Eta alan
gengozalarik beste ateen batetik kamioiak bete
euskuezan, ingurumari izan ziran kamioiak.

Goizez jan genduan ogibitatekoz gengozan, jo-
laserako baiño aoko ortzidiarentzat lana aurki-
tzea obe izanik, ez bat eta ez beste egin gabe,
barrien barriz berebilletara. Barriro gatoz len-
go, bidetik, Iruña-rako lorratzari jarraituz. Ezin
esan dautzuet zer ordu zanik eta, Iruña-ra eldu
gintzazanean gauerdi-goizalde izan zala, bai
ostera.

Asteko izateko zan zera, gizona gizona ilten
asirik egoan. Astirik eta tarraka-marraka urian
sartu gintzazaneko gizonak igezka ebiltzanak,
txispadunak atzetik eta txispa eginik amorruz





jarraitzen eutsalarik. Asiera besterik ezan izan. Gero etozan geroakoak.

Garagar illaren 17an, gauan, aditu gintzazan zer edo zer gertatzen zala, zer gertatzen zan ez genialarik gengoan orduetan bereta.

Ikusi ezarren guk, sua gero eta biziago eta urrago geunkan. Bost tiroaz joaten gintzazan len, espetxe eta beste lekuen batzuetara jagole egitera; orain azkeneko egunetan barriz, kartutxera izeneko orreik beterik darabilguz. Egn batez “reten” egiten gengoalarik, GENERALA be jo euskuen, gudarien, gertakera ikusi al izateko. Agintan euskuena ondo betetan genduan, zertarako izan zeitekean jakin gabe.

Gudaritzan 6 illebeta daroadaz, garagarren illean gengoan eta ondo nondik eta norako bidean etorren urdaritasunak egunetik egunera sustriak emoten egoan, artegatasuna be, alakoxea zan eta. Nagusiengandiko agindubearrak zorrotzagotzen joiazan, eta neurri berean gidariak, be, alaxe eginbearrean gintzazan, esaten euskuena zeatzago bete eikeguan.

Labea berotzen egoan suaren barririk ez-genkian ezertxorik be, garragar illaren 17 gau arte. Egunak geroago bere ez-genkian gauza andirik eta garbirik. Lapikoa baiña guk jakin ezarren borbor izango zan, egozten, ziur askorik.

Beste zerrenda batzuetan GENERALA aitatu dotana, oraingoz bi bider aditzera emotera nartortzue.

Egun bitan, bat bestearen atzean da otoz-otoan GENERALA deia izan izan genduan, “disziplinina” ta bilkura nola egiten genduan nagusiak ikusi al izateko.

Suak, ikusten eztogun suak labe berotua beroagotzen diardu.

Izkilluak, fusil izeneko izkilluak egun areik arte arazan izaten genduazan, azken batean baiña, guda-sua biztu baiña lentxoago, oe-buruan ipiñi arazoten ginduezan.

Eltzea, lapikoa borbortsuago egiten ari dala dirudi. Balak, guda-ornikai edo ziranak ziralakoak espetxe ta beste toki garrantzitsuen bat zaintzera joaten gintzazanean, lana amituz gero kendu egiten euskuezan.

Egun areitan baiña garriko zakelak biak beterik eta beti ta beti gurekin erabili bear genduzan, otoz-otoko bilkura deien bat eta, nonbaitera iraduz joanbearren bat izango ba genduan, al genduanik azkarren gertaturik izan geitean.

Guk gudari gixago besterik ezgiñanok, guda egiteko zirduen gertalanarekiko izpurrik ez zipitzik ezgenkian.

Zaldua-tik, Zaragoza-tik ekarri genduzan izkifllu ta soñekoak gugandik eroatera etorri ziran arte, alantxe gengoan, ezer jakin barik, itsu eta gor.

Etorten bai ziran gizonak, eta bakotxak artzen ebana arturik joaten ziran euraen lekuetara, karriak ta gogotsu.

Gudariak etxean, koartelean gengoan, egun batez baiña bazkaltzen gengoalarik kapitoiak itz: «Biar goizean goiz beste ibiltaldi bat egingo dogu Bidasoa-ko Bera-ra». Batzuek ixilik, besteen batek «ori dot eta». Meatz errietatik, Enkartaciones-etatik gu baiño beranduago etorriak eta urteen bi zarrago zanak eskua jasorik «biba ori ta olakoak» esatera ausartu zan. Abizena Lanbarri eban. Mutil ona zan, lagunartean beti giro onekoa eta politikatzaz ezaban iñoiz ezer esan. Besoa jasotze arek zerbait bai ekiala adierazo gura euskun.

Eguna etorri zanean kaleratu gintzazan, ez baiña ain goiz kapitoiak esan euskun lez. Arratsaldea zan eta, Iruña-ko zoko baten gengoan zer egin bear ete genduanaren zai. Gengoan leku aretan

bi emakume mutxurdi ebiltzazan atzera ta aurrrera, zerbait bai-zirala esan gurarik.

Berebillak bai etozan, ni eroango ninduna arrautz osokola lango txiki kazkarra. Amabosten batek igon gintzazan bere ganera, orduen beten geldirik egoteko. Eta ganean gengoanean, non ara etozan mutxurdi biak gurdi baten eroanala eskapularioz gudarien paparrean jartzea. Beste bat be, an ebillan, urbil egoan estankotik kebedarra arturik gudarien artean sakabanatzen. Garriarte zabala, tripotx andia, gogotsua eta abedea zan.

Non eta zelan eraturik ez genduan aurkitu, eta gengoan bezela urten gintzazan ezertoki barik, alkarri ta berebil txikiaren ertzai ondo loturik.

Ibili eta joan, joan da ibili, bideak beteko «caravana» egiten genduan nora eta zertara goazen ezgenkiala.

Eta zeintzuk bidetatik giñoiazan?. Iruña eta Nafarroa-ren barrik orain bere gitxi dakit, ordu artan askozaz be, gitxiago. Estakit zein bidetatik joan giñan, izarpean gaua igaroz goizean goiz barrero bere burdira; eta ezin dot gogoratu





Zubieta ala Goizueta izan zan, erriko lenengo etxeetan aurteginik, eguzkiaren lenen printzetan Bidasoa-ko Beran gozozan.

Bidasoaren errian, Bera-ko etxeak utsiturik egoazenen irudiko ziran, iñor ez paitzan agiri. Karabineru gitxi batzuk agiri ziran, guda turuta entzun barik edo, bakerik zerutarrenean.

Errian jatsi ta, oñez giñoiazan guda-tokira, Endarlaza-ko zubi-alderantz egoan basora. An zan suak eta garak inperua irudian. Santander-koa ta biok fusil ametralladorakin ardibide baten gengoan geure buruak zaindu ezinik. Teniente beratxoago egoan, eta gure izkillua ez entzutean berak, aulan iñoskun: «Ametralladora batan aquella casa». Eta guk, akella ta akulla non ziran begiratu barik, eta burua lurean sarturik, tarra-tatak ereñozoten geuntzan da, danak pozik egozan.

Olan emon genduan eguna, tiro-tiroka, bizitzari eutsi arazoten. Ilundu baño len barrero erriratu gintzazan, onez eta pakez.

Bera-ko errian ez jan da ez edan, gaba emon bearean gintzazan bakoitzak al eban eran, urrengo goiza etorriko zan arte: Santiago eguna.

Santiago eguna Bera-n emon eta, barrero bere lengora nator: norako bidan sartu gintzazan ez-takidala. Goizan goiz kamioietan, bideak zear oñez, basoetan gora ta mendietan beera arru andietatik aurrera etzaien lorratzen billa.

Santisteban-en bazkaldu genduan bein, nondik gentozan ezgenkiala. Beste bein ibiltekoak ibilirik Aya-ko arkaitzen ur samartik Oiartzun-go erriaren egal bateraño etorri gintzazan, gau igarotzera, Mola-ren gudariak.

Ia illundurik egoan, ondoko baso tunturrean gudari gorriak ikusten genduzan, da illundu zanean etxondoan UHPek entzun be bai.

Zer egin ginkean alako une bildurgarri aretan? Moltzo batz geurekautan urten, etxondoan arakatu; ukuluan, kortan aska aienuka egoan erreketete bizargea ikusi eta lo egiteko lekua aurkitu. Lagun bi beien askapean sartu gintzazan, ixilik eta muxilik.

Kabua, gure kabua goizalderuntz beren mutillen billa nabaitzen genduan da, bildurraren bildurrez lagun biok ixilik.

Aurkitu ginduezan. Ni jagi nintzan da, bestea bere bai. Etxean zan aterik bildurgarrientan jagole ipiñi ninduen, da bildurrez eta dardarka antxe egonbearrean nintzan, egunaren argia ikusi arte.

Amaitu zan gaua ta etorri zanean eguna, danok asi gintzazan aldapetan beerra, Oiartzun-era. Goiza zan, da goizegi zalako edo, andrazko bat ikusi genduan elizatk karrasika urtetan. Zoroa irudian.

Lezo-rako bidea erreketek aurrera jo eben, da nire laguna ta biok eliz-torrera bialdu ginduezan, andik, ezer ba-zan tirokatzeko.

Aurrera jo eta atzera egin, kamioi txiki bat ikusi genduan illez beterik Oiartzun-go illerrirako bidean.

Bein goian da beste bein bean, egun batzuk emon genduzan Oiartzun erri aretan.

Antxe, Oiartzun-en itxartu nintzan zer egiten giñarduan. Eliz-torrean gengozanean batzokia aurkitu eben da, barrura sarturik eizan arasa txiki, ingi ta ingurrazti, ikurriña ta enparauak enparantzan erre ebezen. Erre be danakaz bat eginik.

Orduantxe itxartu nintzan, onduantxe begiak zabaldu, orduantxe neure Erri onen aurka nenbillala azur-muñetan nabaitu. Gudatik iges egiteko beste batzuek be baizirala oartu.

Oiartzun-go egunak ba-kez emon genduazanean, Pikoketa-rako bidean jarri gintzazan, erreketek ta gudariet batean. Erreketeak aurretik eta gudariet arein orpoan basoan sakabanaturik.

Ibilian gorantz egiñez tiro gitxi batzuek entzun genduzan, dalako baten ondoan neunkan asturias gudaria, lurrera jausi zan, aienaka. Eper-mazallan jo eben.





Zaurituari laguntzen gengozanean, kapitaia be gurekin, erreketek aurrera Pikoketa-ko etxeraño. Besteak be aguro eldu giñan.

Pikoketa-ra iritxi gintzazanean 13-15 gizon lurrean egozan etzunik; batzuek oraindik arnasaz, besteak arnasaz barik. Arnasadun da arnasa bakoak azken-azkeneko epaiaren begira. Pistolarik ezeukan erreketek, eukanari eskaturik, tiroka inarduan illik eta ez ilgo bai ilgo egon ziran danai. Tiro de gracias jotea izan zan.

Bai egoan Pikoketa-ko etxe zar aretan, ateurrean erailik izan ziranak baiño, Irun (Urantzu) ra igesian alde egin ebenak.

Erreketek arein atzetik jarraiki, eta gu guda-riok, arrek-andi etorri leitekezan barrien zai izan gintzazan, izentatu euskuezan lokietan zur.

Errekatxo txikia etorren Pikoketa-tik urbil sasi-rik-sasi eta, bidetxiorra be uraren ondoan. «Zagoz emen» esanik, aurreruntz egin eben.

Kabuak esan da nik egin, bakarrik nintzan izkillua lepoan arturik amabost-ogei urratzen barruan, zenbait arazo aztertzeke aukerarik egokienean. Eta aukera egokienean nintzalarik, ogetabien bat urtetako neskatillak, burua agertu sasi-urartetik. Ezkutatuak bi izan ziran. Biga-

rrena be, lenengoak egin ebana egin eban. Burua argitaratu, nik ikusi eta, arei k berezkutatu, une laburrean izan zan.

Begizko keñu idurikoa egin neutsien. Zer egin neikean besterik, uretan blai bustirik eta neure alderdikoak zirala jakinik geroz! Ezertxorik esan gaberik, pititxo bat berago jatsi nintzan, ez ikusia eginbearrez.

Eta alan nengoalarik, erreketek bi etozan “gorrien” atzean jarraika joan ziran areitakoak, arratsaldeon esan ondoen neska biak ikusi ebazan.

Gora! garrantz esanik, neska biak jagi ziran, okotxeraño uretan da biek bardin jantzirik. Erreketek biak aurretik eta neskatillak orpoan eroezela alde egitean, ezpanen barruan neukena esatera ausartu nintzan, erdi ixilik bazan be, Gaxuak, gazuak. Ea bata, nire itzak entzutean, eskuan eukan puñuelo gorri bustia, atzeko aldetik, lurrera jaurti eban. Bilbo-ra etorrita geroagotan be, neugaz neukana. Pikoketa-ko etxondoara ez nintzan geiagotan urreratu. Inguru-minguru nenbillan.

Eta lagunuen esanetatik dakit, ildakoen ondoan izan zirala, esaten eutsazien agokadarik garra-tzenak entzun da entzun azken ordu goibelarrate. Egun berean erail ebezan.

LANDAJUELA, Anton, V.



Dagonillaren 13gn eguna zala uste dot, Pikoketa-ko eguna.

Pikoketa-tik Erlaiz-erako bidetan joan gintzaza gosez da egarriz. Bideak eta bideetan joan da joan eginik, aitz-mustur baten ganean zelatari lau lagunek gaba emon genduan, otzearen otzez aika ta oika; kapote zarrekin babestokia eginik eta erdi ortoz, al genduan eran.

Egunak bero-beroak, otz-beroan aitzakirik bageak izan ziranarren, gaba otza izan zan. Gabaz gengoan aitz-musturraren oinlekua otaz da sasiz josia izanik, oñetakoak be kendubrarrez izan gintzazan, gabeko iñontzetik legortuko ba-ziran.

Eguna agertu zanean, gu be beragaz batean gertakizunetan, aintzin eguneko jaki-kondarrez esteontziari bete antzeko bat egiten. Izenik eztakidan mendi aretatik, Erlaiz-ko guda zelaira abiatu gintzazan.

Begoña-ko Amaren egun andia zan, eguberdi aurrean tiroka gintzazan. Etxe bakar bat egoan, eta aren ondotik berun zaparrada izugarria etorkun, gudari ta erreketeri.

Gorriak larririk izango ziran da gu bere estu, baiña ekiteari ekiñik, atzen batean garaitu genduzan.

Batenbateri eskerrak zor neuntzazan, gure alfereza zulotu ebanari; zauriturik egoan tokitik babeslekura atzeratu, eta ura eskatuten eban azkero, basoan beera egoan zuloraño joan giñan bi lagun astitsu, eta biurtu giñaneko sua amaiturik egoan, berunen zaparada ikaragarria.

Izan genduan illik eta zauriturik gure aldetik; Meabe-rriko Lanbarri koartelean besoa jaso ebana be, Erlaiz-en il zan; bai-ta be Santurtzi-ko Kabie-

zes-ko zan Lanzagorta. Biak jausi ziran betirako, alkarren ondoan.

Erreketete ziranakaz batera samar ibiliarren erreketek izaten ziran beti-ta-beti aurrelari, eta il ziranak eta zaurituak nortzuk ziran ikusi ta gero, Erlai-ko etxeingurura igon gintzazan, an zer egoan ikustera. Karabinero bi izan ziran lurrean zerraldo zerurantz begira, arnasa barik eta odolez blai-blai. Illik egon ziran gizon bi areik izan ete ziran ba, gure alderdikoai ainbeste il eutsozoenak? Bi baiño geiagorik izango ziran, baiña guk besterik ezgenduan ikusi.

Gudaketarren aurrea Erlaiz-en gelditu zan-eta, bertan egon zan etxean egin genduan etzauntza. Militarren artean izaten dan nai-ta-naiezko eginbearra, disziplina ori, ezan gogorregia, eta guardia egitetik aske gintzazan batean galiziarra ta biok, arratsalde batez mendirik-mendi eta tontoretik-tontor erreketek egozan lekuetatik zear ibili gintzazan. Ondo eta abegi onez artzen ginduezan izan gintzazan etxola ta txaparpeteetan. Eguna argirik egoan, da, otu jakun urrin baten egoan etzauntzaraño, joatea. Joan gintzazan, ba-ta, ardauaz ondo artu ginduezan, an bere. Eta an, bee batean, ibaia zan agiri, eta zein ibai zan guk itauntzean, Bidasoa zala, erantzun euskuen.

Illunabarra baño lentxoago biurtu gintzazan geurtzat geunkan etzauntzara-eta, larriturik egozan lagunak alde egitera joan ete giñan edo. Nondik eta noraño joan giñan esan geuntzanean, iges naia be agertu, eta Bidasoa be non zan azaldu...tximis-tea baño biziagotu gintzazan amar igeslariok.

Apalordu zan, azpillak eskuan arturik, eta bein apaldu beratxo egoan urjaiotzara azpillak garbitzera joanik sasi tartean ezkutatu.

Jan genduan, alkartu eta erabagiak eginik geunkazen lez anka egiteko garaia zan. Bi geiago bear genduzan-da, zelatari egon zanareraño, joan nintzakion dei egitera. Au alde eginik egoan, be bat beargenduan-da, Andres Lagatxa-rengana jo neban. Erlaiz-go etxean ari zan erdi nagusi bategaz urrengo egunerako jakiak gertatzen-da, nik aulanean berari: ator Andres, kortako bedar legortuan jaukat abia lo-egiteko. Eta nagusiari Andres-ek irugarrenez iñotzan: Ezer besterik? Eta barriro be, nagusiak; Bai, kutxatxo oneik eroa ara-eta, andagozanak ona ekarri.

Ezin neikean asti geiagorik galdu-eta, Andres bertanbera lagarik eta txispea lepoan, anka egiteko gogoz betean aldendu nintzakion itxaroten egon ziranen lagunakana.


Zenbat orduko bide izan ete genduan?. Egunez, bideziorretati eta pekaturik gabe, ordu bateko bidea, ortxe-ortxe. Illundurik bidean jarri gintzazan, sasia, ota, ta txarrea oñakaz zapalduz goizeko argiabarra baño lentxoago gengozan Bidesoa-ren ertzean.

Ezgenduan biderik ikusi, upea baño illunago, eta kanpotetatik, atxiloturik ibili giñan ez galtzeko, goian egozan erreketean bildurrez. Izerdi bitsetan gendozan-da, txaratartean ezkutatu gintzazan illaneko orduak eta etorriko ziran egunaren orduak sasipean igaroteko ustez.

Bederatzi itzunik lurraren ganean lo-izkia egiten, amargarrena itxarrik eta zur gu zaintzen. Taxugabeko itzunean epe labatean emon genduazanean, batzuek itxarrik eta besteak be lotan e barrien barri lengo ekiñari lotu giñikozan eta aurre jo. Ibili eta ekin, ekin da ibili, zugardia egoan zelairaiño eldurik, berebiliren argi bakarra ikusteko zoria izan genduan. Bitxabala, be, ezegoan urrin.

Goazen aurrera, izkilluak bete genduzan, zer izango zan bere. Eta zelatarien batek alto! esaten badausku? Egunaz batean gure nagusiek aurreruntz joteko asmoa dabe-ta, emendik zer gertatzen dan jakitera bialdu gaitue, ori izan zan asmau genduan erantzuna.





Bitxabalaren ertzean karabinroen txabola-eta, aren ondoan zugatz izan zana, igerturik eta abar barik, taketa balitzan irmo eta tinko.

Or dogu zalatuko gaituna. Izkilluai beso ta esku biakaz eldurik aurrera jo gendan zer gertuko ete jakun izuturik.

Bidean gengoan da, bidean gora joanik zaldia urten zan bidera zugatzartetik. Erreketeen bat ete zan, dardar gengoan.

An ezan erreketarik ez deabrurik, eta bidean gora ibillia barrero bere atzeruntz eginik, eta ibaiara jatsilekua aurtitu gurarik, uraren zurrusta entzun genduanean, emen dok lekurik egokiena esan da, atak ba-giñan lez bidetik, sasitik, urartera brinko egin genduan. Mendien gibelean oraindiño ez-zan ikusten goizaldeko argiaren izpirik, illuna zan dana eta errekea be ezezaguna. Garrirañoko ura, izkilluen tutuaz bidean lagundurik eta oinpeak aregaz arakaturik igaro genduan gezurrezko muga mada-rikatua.

Prantzia-n gengoan, basoan gora giñoazan lañopean erreketek begipetik galdu arte. Areiz-tian ezaririk arnasa baketzeko eta urrin batera so egitean, erreketen kabiak ikusten genduzan suaren ketan da, beste batzuek bizitzaren lorra-zik barik. An ziran baiña danak, aurregunean ondo ta begirapenez artu ginduezan napartar erreketek yaioak.

Bidean aurkituriko zugatzartean ezkutaturik txis-pa ta guda enparauk, eta, euki genduan ogi pitia janez gero, basoan gora giñoiazan.

Iñor ez-ezan agiri, ez karabinerorik ez artzaiñik eta, ez baserririk ez genduan somatzen da, basoan beera goiazen. Tontorretik beratxoago eta basoa-ren goian baserri bat aurkitu genduan, bertako senar-emazte gazte ta, Bera'ko mutil-koskorra bat etxean eukelarik. Iruña-ko Goñi gure lagunak erderaz itzegin eutsoen zer edo zer ulertu arasoteko, baña andra-gizon arein erantzuna, alkarrri begi-raturik irriparrea izan zan, ezeben ezer ulertu-ta. Euskaldunak ziran, da Bera-ko mutillari deiturik, eta onek nigaz euskeraz eginik, poliki ulertu genduan izan genduan autumutua, gaur dakidan baño eskera gitxiago jakinarren.

Erriuaren izena Urruña izan zan, da baserri aretan jaso genduan nora bideari jarraituz, eta erriburuan sartu gaberik, arratsaldez goizetik Endaia-n giñan.

Soloetako munetatik, bide ta baserrien tartetatik oñez goazan estu eta larritasun andirik barik, ta etxe andi bakar batetik igarotzean etekoandrak deitu ginduzen jatera gora igoteko, besteen batzuk be antxe, etxe artan bazkaldu ebela-ta. Izan ebezanak emon euskuzan. Andrazko egin ebanaz arrorik eta gu pozez gintzazan.

Gurpide batetik aurrera giñoiazanean atso-agura zarrak eta andrazkoa bide bazterrean aurkiturik, nongoak gintzan galdetu euskuen. Euskeldunak

ziran, da nik esan Bidasoa-ren bestekalde gintzazela, illa bete onetan gudaketan diardogula ta, iges egiteko ordua iritxi zaigula.

Alaba edo dana zalako andrazkoa etxera igonik gazta, ardo ta ogiz berretoririk, ama zarrak iñozkun; «Bai, gura be, Berdun-en il eukuen semea».

Bidezabalera urten giñan da emen, berebil gaixotuen baten billa berebil txiki bategaz etorren gizonak aurkitu ginduzan-da, berari itxaroteko, Endaia-ra lagunduko gaituala-ta.

Txoferrari, eroatzalleari itxaroten gengozanean, senar-emazte prantesak etozan egurastera, eta oneik be, gure soñeko zikinak ikustean, erdi gazte-leraz eta erdi prantzesez zerbait esan euskuen; guk bere adiarazo geuntzan zer edo zer, diru batzuk emon euskuezan da, agur t-erdi gaur arte.

Atzean beste bat loturik ekarrilarik, biurtu zan berebilduna, beragaz batean egin genduan Endaia-ra sarrera. Eta Endaia-n gengozanean surpean bizer andidun txinelak arpegi txordoz gure bidelaguna artu eben. Bultzigeltokira Endaia-n, gaua ta biaramon egunaren zati on bat eginik, Baiona-raño eroan ginduezan.

Ainbat eta ainbat gizionezk etorkusan Endaia-n, Espaiña-n zer gertatzen zan jakin gura andiz; eta etorran bakoitxak ogibitarteko, txokolate ta kebelar emonaz milla galdera egiten ekian oiz.

España-ko Gobernuaren ordezkaria ta zenbait gizionezko etorkuzan, Endaia-n gintzazanean, da ordezkariak iñozkun, millak gizon ba-zirala izkillu barik eta ezgiñala mendira joango. Irun-darrek ostera nondikoak gintzazan, batetik bestera non igarero eta gure gudastresnen barria eskatzen euskuen. Esan geuntzen, ba-eta, bereala aurkitu, Prantzia-ko areistian, Bisasoa igarorik laster batean.

Bultzaturik gagoz, Baiona-ra garoardiez. Etxe andia da gure egonleku, prantzitan gudari gitxi batzuek be bertan, etxea zaintzen. Inguru aretan bizi izan zan asturiastarrak emoniko kaleko soñezkoz jantzi gintzazan. Etxetik at, kaleratzeko be eskubidedun giñan.

Iru bat egun Baiona-n emoten genduazanean, andra andi ta ederra urreratu jakun, Espaiña-n zer jazoten zanarentzat itaunak egitera, batez bere Iruña'ko Goñi-ri. Iruña ondo ezagutzen eban andra arek, Goñi-ren sendikoen batzek be, bai, eta beraren etxera joan gintzazan nai eban, emen zer edo zer argituko zan arte. Iruñarrak bayeta, besteak ezetz.





Iruñar Goñi eta galiziarra, ule-bizar-moztularia au, an Prantzian zer izango zan arte, bizitzea erabagi eben. Bateren da bestearen barririk, arrezkero, eztakit.

Etxe andi artan Baiona-n gengozeanean, gudari euskeldun bi etxe aren zain izan ziran, areitako bat baserriko semea, ta bere etxera joateko esan eustan, etxeko lanak nork eginik ez-eukala-ta. Ez baiezkorik eta, ez ezetzkorik ez neuntzan azaldu.

Eta alan gintzazanean, Irun-dik gizon bi Errepublikaren alderdira ea etorri gura bagendun. Esan da egin. Gauren beranduko orduetan bultziratu gintzazan, asturiastarren alabak mosu andi erder bana emonik. Aitaren da amaren aurrean a egiteak suturik, izuturik itxi ginduzan.

Agur Baiona, agur Endaia ta Bidasoa-ren goi-aldeko Euzkadi maite, etorriko diran 42 urtetan etzaitut geiagotan ikasiko.

Iritzi gintzazan Irun-era lekaidetxe andi bateraño, lurra betean dagoz gudariak etzunik. Ezegoan oeik ez antzekorik be, lo non egitekorik eta, onuntz etorri gintzazan zazpirok alkarren ondoan etzun gintzazan.

Biramon eguna urian emon-eta, gauean, ango mendien baten gudarien eza egoalarik, bateri ta besteari deika asi ziran, eta aulan erantzuten eben, gudari gaixo areik: «Joan diran gau bitan lorik egin barik nago». Bateri ta besteari deitzuen etorri zan nagusia igesian etorri gintzazan zazpirok gengozean lekuraiño. Eta gu, ez nagi, jaso ta mendirako bidean jarri gintzazan, artarako gerturik egozean batzuekin batean.

Gengozean etxe aretan, areto andi ederra su-izkillu, geienak ganera andirik bakoakaz, Erdi orniduta. Fusilen batzuk be bai-egozean-da, alako bat eskuratu neban, Bidasoa igarorik basoan ezkutatu neban berbera; zaugarri bezela, ugelean eukan tiroa eta zenbakia izan zituan ezaugarrienak. Gaua ta eguna basoan emonik barriro erriratu gintzazan, baña mendian izan gintzazanean, eta gure aurrean eta beratxoago illik egoan Guardia de Asalto bat lurrez erdi estaldurik, aren zangoari tirota ekin geuntzen.

Urantzu-n gengozean, iñoz ez lako bakean bizi gintzazan. Eta angengozeanean, Donostia-ko egunkarian gure barri ta albisteak etorzan, nirearekiko piti bat nasturik. Nire etxeokak eta lagunak batzuk bidean jarri ziran, ni billatu eta aurkitzeko. Eguna Donostia-n emon eben erdi zoraturik arat eta onat, gora ta bera, esker eta eskumara itaunka ta galdezka. Azken batean Urantzu-raño etorri ziran-da, Urantzu-n aurkitu ninduen.

Gauerdia joanik egoan. Koartel egiten eban etxea aurkitu, eta ango nagusi euskeldunari nitzaz galde egitean, beingo baten aurkitu ninduen.

Lotan gengozean, eta alako batean, ganean neukan berogarria kendu eustan-da, onan iñoztan nagusiak: «Mutil, jagi adi, ire billa etorri diran lagunak dozak emen-da. Nik, ezetz, berak baietz, jagi arazo nindun, sakaldera eroan begiak garbitzeko-ta, artan ari nintzanean, Biktortiano Egileor lenengo, bigarren F. Eguileor eta aita irugarren zetorkidazan. Gauerdi ingurua izan zan, lurrean etzun gintzazan-da, txutxu-mutxu eta txitxi-mitxi emon genduzen eguna zabaltzeraño orduak.

Egunabarraz batean batzuek itxarrik, bestetzuek lotan, gu be jagi gintzazan, gosaria artu ta asi ziran etxeko eta lagunak etxera biderako agiriak antolatzan. Egitekoak ziranak eginik, astelen gau illunduan berretxaratu nintzan, sei illabete andi, etxetik at eginik.

Orduan izan ziran izparringien bidez, gizon ospetsua egin ninduen. Bilbo-tik batek, Santurtzi-tik besteak, an gudaketan itxi nebazan mutillen barri jakiteagaiti, egunero nebazan urrutizkiñez deiak guraso, anai-arreba, edo -ta andragein batek biotz urratuzko deiak. Bat il zala, bestea bizi zala, an eragoiola ta abar, orreik ziran nigandiko erantzunak.

Millaka txera ta ongi-etorriren artean, i lakorik etxagok besterik, zenbat biderrez entzun neban, Jainkoak bakarrik daki. Dagonil eta irailleko egun batzuek neure errian igaro nebazan, Igorrigoi-koa etxean, koarteltzat aukeratua izan zand-a, erria zaintzen.

Gudarigai batzuek bai ebiltzazan. Artea-ko abadegaien etxean gudaroko gertakisunak egintenda, ni bere arako nintzan.

Bat, bi, iru, lau, eskuma, esker, tinko t-abar ibiliz gero, Bilbo-ko Basurto-ko gudaletxera giñoiazan izkillu barri-barrien billa.

Izkilluek lepoan geunkazan-arren, izan genduan ikasibearrekorik. Gudaritzan iñoiz izangabea bazan bat, bestea ostera aspaldiz ezer ikus gabea, gadaketan egiteko ametsik burura iñoiz ekarri ezebana. Illa bete bat lenago izkilluaz ibilia neu nintzan.

Txispaz eta bear genduzanakaz orniturik, eta Euzko Gudariak abesturik, lenengo ager-aldia Artea-tik Igorre-raño egin genduan. Begiratzallen begirik asko ezoturik, irri saminkorra, atsekabetsun.

Urrilla-ren laugaren goizez Eibar-en gora giñoiazan, Elgeta-raño. Emen, berebilletatik jatsirik, larrri eta esturik izan genduan, gure burua Partaitxi-n edo inguru aretan tinkotu genduan arteño. Sua, beruna, artega, urduria ta egonziña zan, dana.



Azentzio aldea tirokatzen genduan, an egozenak, gu, eta alako batean, eskumaldetik gora ta gorago Intxorta-ra etorren etsaia, aurrez eta atzez, gu zuzitu naiaz.

Illunduko zan arteko, okada bizian egozan gure izkilu barri areik, jaurti ta jaurti. Arratiar eta Intxorta-egian izan ziranakaz, etsaia atzeratu eben. Txapelgorriak izan ziran. Gure bizkarraraño etorri-egian ezin dagi-kienaz, illak eta atzikatuan izan ziran.

Partaitxi-rako bidean eta egun berean il euskuen Artea-ko Azpitxueta-ko Pernando. Eta arerik gabeko orma-zulotik tiroka nebillanean sudurrean zauritu ninduen, ni bere. Beste zauriturik ba izan, zauritu andikoak izan ezarren. Egun a, urriaren laugarrena, Garaitza-eguna bezela geuretu genduan.

Loguraz eta lorik eginbarik, bustirik eta legorrik, gosez eta beterik, igaroten genduan areitako goiz lanbrotsuan Pernando Eguileor-en, tenientearen deia izan genduen Pedro Ipiña-k eta biok: Agirre Lendakariaren inguru-minguruak zaintzen joango zan, Pedro; ni, barriz, guda-sail barri batera. Baie-tza biok andik izan eben, baiña ebatziten gengozanean, lurrez beterik egozan sorroak berun batek zearkaturik, gar-azurrean, kokotean jo nindun. Ezan izan arazo andirik.

Bai-ebiltzazan gudariak arratikide gudariak mustur batean da bestean joten, an artu ta emon emoten, kokoteko miñlez nintzanean.

Agur negion, agur Arratia-ko Eunkiari, Rebelión de la Sal-ea sartu nintzan baiño len.

Oraingo Guda-Saillaren etzauntza Lersundi-ko ikastoletan dogu, eta egun aratarte ezagutzen ez totazan zenbait nagusi, ainbat txiki, eun errietako gudarigai barriak ezagutzen nago.

Ermua eta Eibar-go inguruetan, lañoz estaldu-rik zan basoan luebakieta giñoizan batean, gure zurtasuna baiño andiagoa izan zan txapelgo-riena. Oneik eskuratu eben utsik eta iñorga-



berik izan zan leubakia ta baso-bizkarra. Gorantz egin genduan baiño askarrago gentozan beruntz, lañoz lagundurik eta, arerio arengadik igesian.

Ermua-tik igarorik iguruan egoan pagadian estzan gintzazan arnasaz barritzeko, baña egazkinek baten da birritan erailketak eta zuritu-pilla egin euskuen, norako ta zertarako itxi ginduezan ezgenkiaririk. Antxe ondatu gintzazan.

Gernika urratu eta erre, zeatu ta ezereztu eben eguna zan-da, nondik nora genbiltzazen askorik jakin barik, Gernikara jo genduan.

Iru lagun gintzazan aurreguneko janari otzez, bideak betean ibil ta ibil genbiltzazenak. Beste enparauak andik, gu emendik, bakoitza al eben bibeetatik.

Gernika illunik egoan, ikusten zan nagusitasuna suaren lorratzak ziran. Etxeak lurrera etozan suaren eragiñez, kale-bazterretan soloan zaputzak erretan ba-egoz bezelatzu eunda oial surtan txir-txir, tximist-argirik iñon be, ez. Gernikaren azken-egun arek, lurrikara irudian.

Esturik eta unduriturik gengzan Gernika-ko gau-rik baltzenezan, lurraren erraiek irauntsiko eta gaituen bildur-ikaraz.

Lekaidetxe, ikastetxe, edo eliza antzerakoan gaua igarorik, goizeak goizik Bilbo-n nengoan, barriro bere. Bi-iru egunean alkartu gintzazan, barriro bere, mendirako.

Etxano-ko basoetan (emen zauritu ninduen, besoan), Ubide-atik aurreago eskumatara diran Okela-a eta Artxanda. Laugarrenez, Artxanda-n zauritu induen, ta arreskerotik ez neban tirorik eta bonbarik jaurti.

Artxanda-ratzen ziran egazkiñez, 3, 6, 12, ez-ziran loarazolariak. Geienetan iruen bat etozen lenengo, gero sei eta bederatzi be bai, dana zan zuloa, dana lurra, aizean dabillen orbela ba-litz, dana izaten zan egoneziña.

Bilbo-n batera ta bestera gau luzea, gau luzegia emonik, ez-zan izaten so-egiten maitagarria, Zabalbide-n bera etozan berebillak illez beterik, odolatan ikustea.

Illuntzean eguna, Begoña ingurumarian bizi izan ziran asko, al ebena lepoan arturik, Santander-erako bidean oiazan, etxeak bertanbera itxirik, noiz itzuliko ziranik jakin barik. Agur egin barik aldedubear arek, zenbak eta zenbat begitara negarra ekarren.

Argirik iñon ez, goiak goibel, bea larri eta noizik bein "5gn kolunakoen" tiroen batzuk entzuten genduzan. Zauritu eta gaisoak urrengo egunaren goizez, Santander-erako bidean jarri gintzazan. Agur dagiot Bilbo-ri, agur dagiot Bizkaia-ri eta agur dagiot nire jayoterriari.

Santander-go Laredo-n gengoan goiz baten, txapelgorriak, alemanak, fazistak garaitu ebela Bilbao entzun neban. Atsekaberik andianatariko zan egun aretarte.

LANDAJUELA, Anton, VI.



Erri batetik bestera ibiltzen diardogu, eta non gelditu eztagikularik, Zizero deritxon errixaka kazkarrean egoan Elizan artu genduan egonlekua. Jatekorik gitxi, edateko egarriarik ez eta dirua ugari geukan. Emon genduzan egunetan, bertako egin gintzazan da, dirua ugari izanik, ondoko errian egiten zan abelgorri azokara joan, txala erosi, ekarri eta il, eta ok egiñarte bete gintzazan.

Arratsalde batean, berandu bazkalduz gero, Bilbo-tik Santander-erako bidean jatsi gintzazan zer edo zer ikusi gurarik eta bide batean etozan gudariak non ikusi genduzan. Santoñarako bidean. Bartzuek negarrez, alairik iñor ez, izkiluak asko sasira jaurtirik, arrian jota apurturik. Etsindurik eta gogo txarrez danak etoña.

Santoñaratu gintzazan baiño lentxoago, loturik egozan preso fazistek askatuak izan ziran, Padurako gudariak alantxe gura ta. Euskal ikurriñak nainon agiri ziran. Gizon morrosko ederrak amorrizko negarretan, iñork, ez gizonezko itzik, dana zan gorrotoa.

Motorrezko, igiridunezko italiarra sartu zan lenngo, Santoñara, txapela, besoen goiak eta eskumuturrak izarrez dizdiz egiten eutzela. Agur egizkuen danori, eta beragaz batean atzean etozan italiarrak txera azaltzen euskuen, geugaz geukazan pistolak diruz, edo ta jakiz erosi naiaz.

Italiarrak aratu ziran baiño lenago, gengoan erdiak eta zazpi, erdi zoraturik genbiltzazan arrai ontzien beteaz jabetu gurak eraginik, artu, jabetu, bururatu, egin barriro lurrera. Italiarrak etorriz gero, ontzi andi batean sartu gintzazan, baiña geiegi gintzazelarik edo, ez ginduzan itxi joaten.

Zer egin geikean areik izan ziran ordu larrietan? Gudaria baño besterik ezanak, ez eukan aldendu bearrik, eta etxera joatean ez eukan Francoren alde ez aurka, txispea barriz artzerik, bizia ta lana zor jakozan da. Olako itz zoriontsuz bustiten ginduez, egunean egunero. Gero ikusi ber zan, ateosteko makilla.

Gudari izan gintzazanok eta geure gurariz, Francoren aldetik Errepublikara iges egin genduanok, edo ta beste zerbait izan ziranentzat, ebatziak ziran ondo ta gizonki artu bear ginduzenak, eta artzeko toki bereziagorik, Dueso-ko espetxe lakoa, non?

Seven Sea Esprey zan niretzazko ontzia, eta beste batzuen Bobie. Barruraturik gengoan, lurreratu, italiarrak zaindurik danok eroan ginduezan, Dueso-ra.

Dueso-n, gelarik gelara nor zer nai eban jakiten ibilli ziranak, atzilotuak, geure lagunak ziran; bartzuek eurentzat dana amaiturik egoa ta, etxerako gerturik; beste asko ostera, igeserako irakitzen.

Itaunetan eta itxaroten, itxaroten eta itaunetan bosten bat egun igaro genduzan, italiarren eskupean. Italiarrak oso begiko izan jakuzan. Goiz bategaz baño, an non ikusi genduzan españar jagolek, eskuan abar bategaz, mundu onetako aunditasuna



eskuan ebalarik. Kopet txordoak ziran, begitartea illun, an gengozanai belarrondoko euliak kentzeko gertu. Oneik ikustean, eta italiarrak ez, larri ta erdirik izan gintzazan, gutzaz zer izango eta zan. Egun garratzak, egun gorriak, egun latzak itxaroten genduzan. Jagolekaz batera samar teniente antzerako batzuk be be, etorri jakuzen, geunkazen onak eta txarrak, autortu arazotera. Bakoitxa bere gelan ezarririk, eta aldian bateri barrura deiturik..., a zan larrialdia, a bai ba zala, estukurea!

Barruan autortzari eragionean, ateen aurrean genbiltzan atzera-aurrera egurasten da, Sarasola, nire guda salleko nagusiak itun egiztan, zer esateko asmoa neban galdetuz. Eta berari: Lenengo ta beñen, Mola-ren artaldetik Errepublikaren alderdiera iges egiña nintzala.

Burutik galdurik nengoan, goitik bera zoraturik, Sarasola izan zan burupideta kendu eustana.

Barrurako deian, asuria banitz barrenaratu nintzan. Autorrentzulea ta autorlaria, aurrean Kristo ta Ama Birginik barik gagoz. Ni pekatari eta Jesuskristo gure Jaunik otoitu eztodanarren, ez-nau gogorkeriz artu.

Berak: Zeure gogoz ala indarrez ibili izan zara?

Nik: Neure gogoz.

Berak: Eta, non ibili izan zara?

Nik: Gipuzkoan da Bizkai-n

Berak: Zer izan zintzan

Nik: Lenengotan gudariutsa, teniente azken batean.

Berak: Zergaitik teniente egin zinduezan?





Nik: Ogibidez ortarako inoz ez egon da, bat edo batek izanbear ebalako.

Berak: Zeinbat irabasten zenduan?

Nik: Onenbesteko bat, (au idazten diardutanean eztaikit eta.)

Berak: Erre al zendun elizarik, lekaide-lekaimetxerik ondatu aske zana giltzaperatu, eta inor bortxatru?

Nik: Ez Jauna.

Berak itaunduai nik erantzunaz bete ebanean orria, eskuratu eustan da, nik irakurri, ondo egoala ezan, izenpetukitu.

Neu lez, eta ni beste lez, eundak eta eundak izan gintzazan autorketa egin genduanak; Lekaide ta abade, osagille, asmatza eta besolangille, jakintsu ta jakige, danok gintzazan edea batzuekaz lotuak, akuluz zulatuak.

Egun tartako izanik, taldeka ogei, ogetamar deitu ginduzan, auzipera, ziranak eta ez ziranak entzun eta entzun egitera.

Orain zalatari zana, gero, urrengo taldean, aldezko izaten zan, eta aldezko zana, salatari, salatari egiten zan. Ipuin potagarik, non ikusi ta entzun! Maiko izan ziranak, zur eta arretaturik batzutan, lo bere, neke andirik barik.

Zeri edo ari, ekin da ekin egiñik, zer ezatekorik dogu itaundu ginduzanean, Azkue jaunak jakin nai

ebena zera ze, ituna italiarrakaz egiñik geunkalarik, italiar barik epaitza zergatik eta zertarako zan.

Maiko nausiak, orduan: Emen eztago italiarririk, danok gara NAZIONALAK. Bide ori ba dozu, gaiki zatorkidaz. Olaxe amaitu zan, gure buruzaintza, beste inoren txitik gabe.

Talde bakoitxetik bost, zazpi, amar...bere aldiko katepera, eta enparauak, eriotzara "Kruzadoi" izan ziran da, kruzados izateari eskerrak, izan ezpaziran, ipernura giñoazen bizi-bizirik.

Epaiketa amaiturik, izan genduan baratzer, lagunartera bialdu ginduezan eta gu irripartsu, epaiaren barriak jakinarazoten, lagunai. Eundak eta eundak gintzazen zigor arekin lepoa makurtu euskuenak.

Goizetan abea jaso, arratsbean beratu, españar ikurriña izaten zan lenengo lana ta eginbearra, espetxeko nagusiekaz batean; an joiazan lotuak ere, ikurriñari "otoi-egitera". Lotuen artean bat egoan zauritua, usteltan, arrak jaten ebana. Gudari gaxo-gaxoak, ikurriña jasotzean, "biba la Republika eta gora Euskadi askatuta" inoazan, zaurietatik bein betirako askatzeko, afrunturik naikoa eta geiegi nabaitzen eben da. Biramón goizean zulatu eben laguneren artan, ikurriñaren azpian, goraka ta bibaka Errepublikari ta Euzkadiri. Atzilotuak izan gintzazenetik lenengo eriotza eta, galiziarra zala uste dot.

Epaituak izatean, zazpi sartu ginduezan gein ba-koitzean geure-geureak ziran zeregiñak egiteko ezer ezegoan lekuetan.

Piti batean irikiten euskuen atea zergiñak egiguzan. Bizarrrik ibilli bear genduan, zorri andi-andiek be, orduantxe kentzen genduzan da.

Gosaltzeko ontza bat txokolate, eta txokolaterik ez egoanean akeitaren margozko burduntzali bete salda. Eberdietan, barriz, piper-txolet bete indaba zuri, eta indabarik ez egoanean, txitxirio gitxi batzuk, salda gitxirenartean. Emoten euskuena, ta ogia, bazkaltzeko ta apaltzeko izaten ziran.

Amorrotu arazoten ginduzan goseak, gelakide bateri asmoa bururatu jakon, gosea auldu genkian zerbait egin bear zala.

Gure aurretik, fazista presoak bertanbera itxiko txixontzia geunkan, eta giltzadunak, au bere atxilotua, ekarten euskuzan zotzak eta abarrez, sua-egini egosten genduan goizeko txokolatea eta, baba zuriak, ur salda andien tartean.

Kazkarreko batzuk ba eukazan pixontziak, eta ondo garbitzeko gatxa ta zaila ezanagaiti, ez genduan inork sudurrik latzitu, ez albora begiratu naskaturik.

Gelan da espetxean gosea izan zan, nagusi, gosea zan jaun bakarra eta gosek il bear genduan, alak egin genduzan gose ilten, iru illabeteko gose mardarikatua soñetik kentzen, Bilbo-ra ekarriak izan gintzazan arte.

Ogi koskorra. Mutilla ezeze, mutil da erdi be, bazana: Erramon Galartza, bilbotarra, "Diario de un Condenado"ren egillea.

Emoten euskuen ogi-koskorra eskutik aora eroten gendun da, ziolo jan, txitxirioen begira egon gaberik, ogetalau urrengoetan emongo euskun ogi txatal arte. Erramonek, ez, Erramon onek iru zati egiñik, iru jatorduetan izaten eban, ogia. Bere lagun gintzazanok, "nobilis bobilis" ezan eta, urrengo egunerarte ogiaren zain itxarobearran gintzazan.

Orman katurik, orman egoan arazan da nire aurrean izten ogia, biramon goizean gosaltzeko.

Turuta jo egizkunean lotarako, gau aretan bakesu izango gintzazala usterik, batzuk lentxoago bestetzuk geroago, loak artzen ginduzan, lo zurrak. Zenbat begirakada, zenbat so egite, zenbat jagiko ba nintzan ezpa nintzan, zenbat zirikaldi ogi ari buruz izan nebazanak, Jaungoikoak baka-





rrik daki. Baña, tira, lagunaren ogia zala ta, oben bideak betetu barik emoteak, eskerrik beroenak damotzadaz berrogetak urte geroago, Jaun Altsuari.

Beste bein baten P. Egilor etorrela apaltzea emotera ta, gelako atea zabal irigik izan genduzan lez, aparia sakabanatzen egoan alderdi aretara niñoian ontzia arturik, tilliztak izan ziran, kuin-kuin bete eustan txoleta eta, lagunakana biurtu nintzan. Zazpi gosedun lagunok jatea egokiena izango zan, alan uste nik beintzat, ez neban baña indarririk, eta duintasunik besteai emoteko. Areik niri begira eta, ni burua jaso barik, ez nintzan gelditu eskuan neunkan txoletakoa amaitu arte. Lorik ederrena gau aretan egin neban.

Gosea nola egun batera il, ametzetan ametz eginik gure ondoko lagunak egunetan izan ziran. Gela aretako gosetiek zer egin ebanaren zera emen: Zazpiren ogia bateri emon, biar besteari, etzi urrengoari eta, olaxe danai. Ogia jaten eban ondo izaten zan, besteak ostera garrian prakak euki eziñik eta txandaren zai. Ogiar barau egitea, ezin eben burutu.

Berantzakoa naiz edozelako miñen bat gauean nabaitu, ez zan aterik irigitzen. Olako une larrietarako, eta txixerako, baba zuridun txolet utsak geunkazan. Eta betetuten genduzanean...zer egin? Azpillek, saldea artzeko geunkazen azpilletara ustu bear barruan euki genduna, leiotik jaurti eta, biramon goizean inarraz da urez eriotzaren astunik gabeak garbitzen eben.

Tellatu-txapelpeko oñezkoen bideak garbitzen iñarduenean ontzi zikiñegaz barruan gengoan atea noiz irigiko adi. Irigiten euskunean, ariñeketan joan bear izaten genduan iroletara pixa ta kaka egitera, arpegia busti, ontziak garbitu, gelaratu eta ontzi txarri areitan akeita antzeko artzera. Zer janik izan ezarren, osasun bai genduan.

Eriotzara jausigaik beeko geletan gengoan, bat edo beste utsik, egunez espetxe barruan lanean ebiltzazen presoan lo tokitzat aukeratuak.

Danentat joten eben lo turuta, eta esibarrutian batera ta bestera ibiltzazenak be, geletara etorbearean ziran. Adi-adi izaten gintzazan ormatik ormatarako daunbadatxoak entzun al izateko.

Onein oñak gureak baño askeago izanik, ez genkian gai askoaz jabetzen ziran da, lotara egorten zirenanak, lenengo eginkusuna emen; Ormea jo ikubillagaz eriotzarik gau aretan izango zan, edo etzan, adirazoteko, batzuetan negar egitekoa, bestetzuatan nasaitxoago egotera, lo baketsu egitekorik iñoiz albiste onik. Dana ta guztia zan egoneziña.

Italiarrak joanik españarrak jabetu jakuzanean, baratzera atera ginduezan, goitik beraño arakatu, geunkana kendu eta, barriro bere barrura.

Diruz, ordulariz, atzaparretako eraztunez, idazkorts e.a. otzara andiak bete ebezen. Ain gintzazan askorik epe andia be izan eben alako araketaldirako, eta atzean begira izan ziranak naikoa eben zeregiñik atzaparren baratzeko lurra arrapatzen, eukazen gauzarik garrantzikoak lurpean estaltzen. Estaldu bai, aurkitu ez, emen bere erroiek irabazi.

Beste bein oñetako ederdun gudaria jo eben begiz, geroago baten, eskuz. Begiz jo ta eskuz kendu, eukazan oñetako enordez espartañez janzi eben gixago andia.

Gogoan izatekoa au bere. Lotan gengoanean oraindiño epaitu gaberik, alako zaindari bat gela batera sartu zan, lota egoanaren soñekoak arturik “amalau” baño arroago aldendu zan.

Atziloturik izan zan gixagoa zoraturik ebillan batera jo eta besteari itaundu, zer egin eta eban, kaltzonzillo utsik itxi eben da. Nagusien bateganaño iritxi izan zana ba dakit, zertan amaitu zanik eztakidarenren.

Dueso-n barruratu ginduezan egunetara biurturik, kanariako gudariak izan genduzan esiaren inguru-ninguru nagusi.

Zalatarien alderuntz begiratzen eben leiotan, ziurtasun andirik etzegoan. Keriza, gizonirudien bat ikusten ebaneko, arein amorru zitalaren pozoi zitala berunez etorkigun geia barruraño. Nengoan gelara, berun-koskor bi sartu ebezen iñor zauritu barik.




Kotxor Larrinagan loturik egon da, Santander-go lurretara atxilotuta eroan eben. J. Mari nire erriki-deak, ezizen bi eukazan: Kotxor eta Txutxurrio.

Bideari emonik, astiro baño ezbazan be, Ama aberirik urrineratzen giñoiazanean, Villa Verde de Trucios, ala Truzio izan zan eztakit, nire bigarren lengusu Antonio Olasari presoak zaintzen izan zalarik, Kotxor be an egoala onek esan eustan.

Askerik eta gazteturik elizan da inguruetan ebiltzazan Bilbora etorriko ziranerako gertakisunetan da, ikustera joan nintzakion. Milla txeraz da laztanez artu nindun, nire etxe koentzat ezer gura ba neban galdetu, burua zaintzeko ta ondo izateko ta ondo izateko aolkuak emon. Kotxor txoria baño bizkorrago ebillan ganeko egunen batean Bilbo alderuntz etorriko zanaren ametzez, ni burua makurturik Santander-ko bideetan non geldituko nintzan ez-nenkiala, beti ta beti aurrera.

Barrero bere Santoña-ra noakizue, Santoña-n Dueso-ra ango barriak azaltzera.

Gaua ilundurik lurrean lo-iskia egiteko etzunik gengoanean, zanko otsak ateaurrean. Estutu eta larritu gintzazan zer etorkunaren begira ta, alako batean





espetxe zainaren abotsak giltzadun lotuari, aulan: amargarren ate ori iriki egidak. Eta eskuan ingurria ta besapean be zer edo zer ekarren idizildunak gau on esan bagerik, orrian idatzirik ekarrena irakutzen asi zan: Jose M^a Idur. Iruan...za,...ga?

-Ez, jauna; Jose Maria-rik eztozu, emen ez beintzat.

Eta orriari atzeldera begiraturik: Antonio Landajuela

-Sanjuelarik ez, baña Landajuela bai, Landajuela emen dozu esateaz

batean, zuritzen asi nintzan azken-ordua etorri jatelakoa.

Besapean eukana jaurti eustan da, barriz bere orriari begiratu barria eginik, Jose Maria Iruarri-zaga zan orriaren alde batean etorrena, eta bestean nirea; Antonio Landajuela.

Andaluziarra zan da, zertxo bait edariz ornitua, ezin eban itzik ebagi. Santoña-n Kotxorrek emon eutsan kebelarra

Zer errerik ez genduan da, kirrix-karraxka bi ateari emonik aldendu zanerako, erre-gogoa ta errebearra aspalditik geure-geureak ziran da, txondorrek aiña ke edatzen genduan gela txiki piti aretan. Gaueko ordu illundutan gengozanarren, egun barriaren argitzea izan genduan.

Larrinagan egoan Kotxorek, berau zaintzen izan ziran espetxe zaindariakaz artu-emon andiak eukezan, da beste bein baten be, nagusi samarra zanak deitu nindun, Txutxurrio-ren izenean. Nire barri zarrrik onek ba ekian, Molaren alderdikoa-kaz ibillirik Agirreren aldera iges egiña nintzala ta besterik. Ondo artu nindun, berarenganako susmo txarrik ez izateko esan eustan.

Zer izan zan jazo zana? Eztakit. Idizila, egurra ma-killak gora ta bera, ezkerrera ta eskumara, txistuak eta oyuaq danak batean ziran.



LANDAJUELA, Anton, VII.



Mezak, jaupak.

Katoliku aundien errian igande ta jaietan jaupak utsik barik. Eta mezaratu ezker, illik ziran gudarien aldez otoi egitea galerazorik, gogorrez artu eban, jaupa entzuten egoan nagusietariko batek, otoian izan zan apa katigua. Ordu areiktako gauzak olantxe izan ziran. Jaupara, jaupa entzutera naitaez eroaten ginduezan, da norberaren lagun urrekoen alde otoi egiten ez itxi. Ia lau illabete andi luzeetan olantxe izan gintzazan.

Egunak ondoegi eztakidazanarren, onan zirala uste dot. Dagonillaren 28(?), italiarrak Santoña-Dueso-ratu ziran Irailaren 7an aldendu ziran.

Amalau suizkillistu ebezan Urrillaren amabostez.

Urrillaren 15-ean il ebezanak baiño aurrerago, galiziarra il eben españar ikurrinpean, eta gero batean Egidazu, Meabe goi salteko nagusia.

Bigarren onen eriotzak artegatu ginduzen, onen eskuak batuz odolez orbanduak zirala usterik, eta gureak garbirik, beingo baten baretu gintzazan geienok.

Urriaren 14gn gauaz 14-k izan eben deia, 15gn goizean ilteko Erramon Azkue-k, Euskal Gudarosteko buru nagusiak, Ibarbia, Zabala, Markaida, Otamendi....Onein eriotzak azurmuntetan be, miñik andiena egin euskun. Nork uste alako bat? Arrezkero egunak arrankura andikoak genduzan.

Eriotzarako epaitua izan zanaren anai batek, berak ezkeindu eban bere burua anaia il ezegian, ezkondua ta umeen aita zalakotz edo. Jazo zanaren barririk estakit.

Egun birik bateko arratsaldez, ordu beteko astinaldia lurrai emoteko edo, baratzera ataretzen

ginduezan. Ordu osoa ilketari ekin, edo ta ez ekin, urrengo egunean len lez, bardin-bardin gengoan.

Barrurantz egiten gengozanean, bear eban lez ezebala egin eta narrua illundu arteko idizilkadak irabazi ebazan galiziar batek Bilbo-ra ekarriz gero Derion il ebenak.

Gaur egungo askorentzat umekeriak, aurkerak, iñosentekeriak tutuluskeriak daitekez. Dakitan obeto idazten ba nenki, izango neuka gatz eta piperrik gozoto dagidan, eta jakin ezak dakidana azaltzera beartzen nau.

Dueso-tik urrun eztiran tokien batzuetan lagun pillak itxirik, nonbaiterako bidean jarri ginduezan. Arrots-errian bein betirako eriotzara jausirik Azkue, Markiegi, Ibarbia, Zabala, Markaida, Otamendi ta besterik be. Amalau ildakoak emen:

EAJ alderdiko	2
EAJ Gudarosteko	2
ELA-ko	2
Errepublikano	2
Sozialista	2
Kumunista	2
CNT-ko	2



Eizta ona bai zan, erailketa ohea zan. Danak egozan ixilik, azkeneko orduetan ben ta gizonki. Agur biozkorrez gero arte.

Aitaturik dodazan il ziranen ondoan beste berrogetak arnas eta odol barik itxirik, non da noiz eta nolan amaituko genduan nekebidea ezgenkialarik, Santoñako itsasertzean gagoz, urrilla edo, azilla da. Esiturik gaukiez, arrañen jaki izango ote gara?

Agindu barrien zai alan gengoza, begiak beteko negarretan ama euskaldun bi urreratu jakuzan, norako bidea artzera goiazan jakin guraz. Gure erantzuna jasoteko astirik eztabe izan, arrapalo tajuzko begirakada ta, surpeko bizar zitaldun txankerreak axatu ebazan da, auek lako itz zatarrez:

“Aldendu zaiteze ama ezkongaien alabok, okotzpeko bularrok lurraraño jatsirik ikustea nai ez paduzue”.

Lau begiak lau iturri ebenik aldendu ziran, zotinka, burua eskuartean arturik.

Ordua etorririk, uraren azalean kulunka baketsuan diñardun Serna itxasontzira garoadiez 500dik gora gudai eriotzaren ezaugarririk garratzena aurpegian daroagunok. Ontziaren sakon-sakonean aurkitzen gara, nolan edo alan bakoitza beren eran.

Itxasoa bare-bare dago, geldirik goiazan ala ibilian gabiltzan, ezin igarri dogu, goiko olan tartean aizea sartu eitean zuloa iriki euskun artean, Deusto-ko zubi-besoa ongi etorria egiten agertu zan arte.

Bilbo-n gengoza inon ez toki onik ilteko, baiña obe da norberaren lurrean bi aldiz il, arrotzerrian baten baño.

Eguzkia, eguneroko ekiñari ekiñik, eta indarra galduarik, beraren amagana lo-egitera joanik dago, indar barriz ornitzera. Ortzietako argiaren dizdirarik ezta inon agiri.

Udaletxeko erreka ertzean ezegoan adiskide geieirik. Zabalbideko aldapan gora bai oster, etozan senar, senargai, neba ta anaiai, ixileko ongi etorria egitera, gosez begiak sakondurik eta zorrien aginkadak eta eztenkadak josirik etozenai.

Larrinaga-n gagoz, illunabarra etorrian diardu, bi-zi-leku barri onen orma barruarrea illuna ta zikiña, gure poza, barriz, andi-andia da.





Geiagotan bein bere alkar ez-genduala ikusiko uste genduan lagun zar eta adiskide kutunak, uste-gabean besarkatzeko zori a izan dogu, zori baiko-rra biotzez basarkatzerakoa.

Illundu lako dago gauaren baltza, azken atsetan diardu egunaren argiak.

Txarritokia lako lekuan alkarren ganean lo, edo gaua emoteko berrogetalau lagun gintzazan, eta bart gaueko apari ziztriña egin genduan ezker, nire ortzak eta agiñak zeri edo ari ekin guraz ziralarik, ai nire poza! saguek aoan erabilitako ogi-koskorak aurkitu nebazan, baraua austeko koxkor egokiak.

Lenengo gaua igazirik joan zan egun barriari lekua eginik, eta emen egozan errikide danak besarkatzeko astirik ezean, Gondra ta G. Zuazo-rentzat, E. Ibarondo ta Tomas Gorostiaga-rentzat ziran.

Iru-lau illabeteko bizar baltz kirrua neukan, Urkiola-ko Andoni deuna bizerraz ikertu gaberik ez kentzeko asmoz, baiña bizar eta ule aguro zuritu ninduen.

Ogi-gosez eta barri-egarriz etorri ba nintzan, barriz eta albiste txarrez eta gaiztoz ondo ornidu ninduen: Timoteo Atutxa, seme-alaba gazteen aita, biotz-lupudun erritarrak gaitik il ebela.

Areatza-ko Meltxor Larrinoa eta Dima-ko Atutxa-k ordainbide bardiña izan eben. Artea-ko Pedro Abaskal-entzat bere, eriotza, emen gengoza-nean izan zan, onena. Zeru goitan izan bitez.

Giltzape ontako askatasuna, Dueso-koa baiño nasaigo zan. Gauetako orduetan geure tokia geunkan, egunezkoetan, oster, alkarregaz emoten genduazan ara eta ona eta, batetik bestera, amai-ka txutxu-mutxu garratzez urrun eta gaitz ikusten genduanaren askatasunaren begira, Derio-ko illerria begi ta beti gogoan gendularik. Geure buruari geu gintzazan lor txarra emoten geuntzanak, eguneroko lorraren gazi mingotza. Eta gauean bakoi-tza txokoratzean eta agur egitean, gaurko ikusirik dogu, biariko Jaunak esango. Azkenez ete gagoz alkarregaz? Lo-koloskara giñoiazan.

Gelan lagun doguzan Primitibo Solaguren eta Juan Ormaetxe, Sukarrieta-n eta Ibaizabal-en guda sailletan buru izandako bide deia izan eben. Gaua zan, eta ordu artako deia zertzaz izan leiten zuzpertz eziñik doakiguz eta datorkiguz bat besteren atzetik orduak, izerdi larriak argi egiten euskula bekoki ta lokietan belaunak dardar doguz, arnas artzeko indarrik eztozu, norako bidea eroen jakin-miñez.

Emen azaltzen dotan au gabonillaren amargarren gauaz gertatzen da, eta egunak aintzin zurrumurrua zan, gudari gorriak eta eperdi baltzen artean trukea izango zala. Zerbait amets ez ziran sortuko gure bu-ruetan! Unerik laburrean egin genduan ametssezko ibillaldi au; espetxe laga, Derioko illerria betirako atzea emonik bertanbera itxi eta Francotarren ar- tetik urrundurik nonbaiten bizi. Sudur eta belarri zuloetan arrak egingo ete jakuzan bere, nabaitzen genduan. Eta ametskez gengozean, emen non datorkuzan Durangoar biak arpegian poz-ikurri da eskuan bata besteari igurtzika. Españarren eskueta- tik Españan leporatu eutsien eriotz-epaia arindurik datoz. Askatuak izan dira eriotzaren lokarrietatik, biziko diran aldirako kateen menpeko ta doakebeak egin dabez da. Gure zenbait amets oraindik ez ziran loratu, biotz nasaigarria izanik bere, Durangoar bien arnas arte barria.

Illabete ontako 12gn usai txarreko aizeak puz da- gizka, kirioak artega doguz, egunaren argia illik dago.

13gn illuntze baltzean, azilla ziur askorik, aize ne- gargarrizkoa bere bideetan dabilkigu, lendik medar doguzan indarrak kili-kolotu naiaz.

14gn gauaren illuna oso baltza gertatzen jaku, erio- tzea gosez dabilkigu ta. Atzapar luzeak eta atzazkal makurrak aterik ate diardue gizon biziaren aragia- ren billa, jaki gozoaren lorratzetatik jarraituz. Koi- perik bageko ateen morrolluek atzerakada dagie burdin otsez, eta barrenean diranak belarriak adi jarri- rik, norentzat izango ete dan deia, dardar da- gie. Batzuek an, da bestetzuek emen aurkitu dabez bear izan dabezanak, eta ao-lazkerizko berba ga- rrantz eta bultzaka azken gauari agur egitera da- roez.

Kristo gurutzatuaren aurrean, osasunik onenean, eriotzaren besarkadaren azi diranak 7 dira, urka- mendirako. Derioko illerrian aurkitu dabez en- parauak zubia, bizi ontatik betikotasunera joango diran bidea Barrondo tar Imanol bigarren taldean izan da.

15gn eguneko argi-izpi goiztarrak, oraindik lo-ka- bietan gengozean, eriotzagaz borrokarik gogo- rrenean egoan gizon doakabearen ai! garratza ze- torkigun entzumenera. Barru-barrutik zetorkion ai! mingotzak, ezeukan bigarren airik. Bakarra zan eta, zer gertatu ete zan ba? Ezer ezta- kigu, geroak esango dausku, eta ona emen geroak diñozkuna.



Urkamendian izan zana-ri sama-azurra estuten izan dautsan urkagallua apurtu zan, eta erdi-illik egoan gaxoa kendu eben toki artatik, aldamenen zan osagilleak indarrez barriztaten eta ornitzen ari da, arnasaren jabe dan errukagarria, tramakulu ikaragarria tajututen daben artean. Tramakulu barriztatua barrien barriz lengo lekuan jarri ondoren, ara daroiaie, len menperatu bageko gizasemea, eldu dautso barrirorik, estutu samaazurra eta, gorpukondar biurtu. Emen amaitu ziran lur onetako gizasemearen lanak. Ezta asetu urkamendia, egarritz da, odola nai dau.

42 eriotzeratuen artean zan baita be, Dueson gelakide neban galdakar Ormaetxea-tar Ander. Etzan elizkoia, kristau otza zan. Eriotza aurrez aurre ikustean baiña, eriotza besterik ez gogoan. Jaungoiko zale ta biozdun il zan, beragaz zirenak indarrez barrizten eta pozaz ornitzen. Gabonillaren 14tik 15erako gauean izan zan. Ume txiki biren aita eta emazte gaztearen senarra zan gure Ander, Goian Bego.

Arteko izan zan Larrañaga, eibartarra au, eta beragaz joan ziranak baño zori obeko, ala txarrago (?) izan zan gaitz jat asmatzen Larrañaga au, ba, ilteko deiaren begira gaua igarorik, goizean barriz gelaratu jakun itxura larrian, gau luzearen bigaramon goizean. Gizon biotz oneko, biotzbera zan gizonen bat ba zala bere biziaz arduratzen zala ta, larritasuna ta poza, biak ebilkiozan dantza nastuan. Berak uste eban laguntzarik ezeukan, eta bere lengusua zan Sarasketaren ondotoxoa eguna igarotzean, eta gaua etorri zanean, borreroen deiak jo eban belarrian. Oraingo ontan betirako joan zan, egunezko orduetan milla ezbear eta estualdi adierazorik.



Zelako adorez joaten ziran

Sinistu eziña ba da de, egia gordin eta biribilla, onan zan: Ba ziran banaka batzuk umeari, emazteari, amai diadarka ta deika, betik gorañoko dardar-ikaraz eta negarrez izaten ziranak. Geienek batzuek, ostera, bekokia goituz, begirtarteargi, ezpanetan irri-ar, bizarra mozturik eta soñekorik onena jantzirik ezteguen batera joyazala esan eikean, Euskadiri Gora ta Gora.

17gn gauaraño eldu gara, Egunezko jostaketak, alkarri adar joteak, eta itxaropen gaito ta onak, gauaren etorrerak zapuztu dauskuz.

Bakoitza beraren tokietara baturik gagoz. Txutxumutxuak eta keñuak nabaitzen doguz zori txarraren usainaz nasturik.

Betik gorako luzea ta andia Jose Elorriaga, gure nagusien geletatik etorrída eta, eta...eta.... albiste txarrak diranean bein bere utsik egiten eztauana dogu. Datorren bakoitzean beraren begietara begirazten jartzen gara, danok. Geienok somatzen dogu, izan daikegun zori txarrena. Matazaria askatuz doakio, amuak ba daki nor izango dauan gau arteko arraiña.

Egunak eta egunak lenagotik erabagi genduan, ilteko zana baraurik, jakin arazo barik ez eukiteko deia izango eban ordu arte. Zelan baña, non eta nork alkartu indarrik naiko, lagunari esateko aiña: «adiskide, eriotza deika dok, ago gerturik, emen izango dozak eta, saierreak ito eske».

Errioxarra ta koronela zan Azkarate, berarentzat janeziñak ziran tilliztaz gosea baretuten eustana Dueso-n, eta beingo batean bere billa etorriko zirala esan eustana, Santos Andini Elozegi.

Azkarate au etzan zarra, irurogeinbat urtetakoa edo izango zan, baiña soin nekatua irudian.

Lotarako kabitxoa egiteari emonik egoan, da noizean bein aulan iñoan: «Zer izan leitekean ezta- kit, baiña, susmo txarrak dotaz gau ontan». Eta Andinik lepoan jorik dirautsan. «Adiskide maite. Etzaitu odolak saltzen, ondo dabilkizu. Gau ontako aukeratua izan zara eta gerturik egon zaite billa datozkisunerako».

Gizon errukarriak begiak al ebazan beste zabal- durik, barri gaizto ta txarra omen eutsanari begi- ratzen eutsan arnasa zurrutada saka lez iruntsirik, giozontasunaren sentzuna galdu barik. Soñekoak kendu bagerik etzun zan azkanengoz gerturiko abi gogorraren ganera.

Bere gelakideak, danok etzan gintzazan, da, atearen morrolluaren kirrizkadaren begira gengoalari- k, betirako joango zana bira izan zan, gure goibelta- suna ikustean indarrez bete ta sendotzen alegindu zana, bere burua baiño makurtuagoak zirudielako gureak.



Eskerrak anitz aldiz emon euskuzan euskaldun da Euskalerrari ain gizonki ta aintzakotzat artu genduelako lenen egunetik azken ordu-rarte. Euzkadi oni buruz, samin bat eroan eban beragaz; lenagotik eta sakonago, Euskalerrri au ezagutu eza zan.

Ordulariaren besoak gau-erdiko amabietan dagoz. Ixiltasunaren ixil-unea oin-otsez urratu da.

Izkillotuko daben gizonaren billa datozen saierreen izkia ezta motela, jan-edana ondo egiñak dirudie. Gure ateaurrean gelditu dira.

Giltza zuloan sarturik eta bira bi atzerantz emonik, iriki eta dei dagie Azkarate-ri, gertu daitela esanez, joan bear ebala ta. Bi ordu lenagotik gerturik egoan Azkarate. Jagi zan, gelakide danentzat besarkada maitekor eta gartsuena Andini-ri emonik, txairo eta biotzdun doakigu otsoen erdian.

Egun batzuetan bakea dogu, baiña bakearen izpirik iñork irakatsi eztauskulako edo, praka es-tutan gabiltz, lo nasai egiten eztogula.

Begi bat Derio-rantz, besteak Prantzia-rantz, alderdi biok ikusten doguz, 800 baiño geiago gara epairik estunenarenpekoak.

Bi alderdietan agintari, gorri ta zuriak, ezker eta eskumakoak gudari atzipetuen arteko trukea egiteko, ortan diardue, eta bitartean trukatzea etorriko dan arte, edo ta etorriko eztan arte, gure larri-estuak azkenik ez. Ez tximeldu ez igartu eztira egiten-da.

Gorrien menpean diranentatik, gorrien oinpean baliran lez guzur-muzurrez ito gura gaitue, an ba, gosea ta egarria, gaixoa ta ezinbizia oi dira nagusi jaunak.

Baiña nik neurekautan, eta egitan, au diñot: leza-zulorik sakon da baltzenean, arripean bizi gurago dot, suge, kunkun eta sierpetartean, lurgartzak be arteko izanik, Jaungoikoaren orde-zko dirala diñoskuenakaz baiño.



LANDAJUELA, Anton, VII.

Gabon

Urtearen egunik etxekoiena, osasunez eldu gara biziari eusteko zoria izan dogunok.

Bizkarrean dogun zama, erdiarindu dogu, etxeari, senide, gau ontan oiturazko izaten dan orio-aza, ilinti bizi ta beste milla gauzai buruan leku berezi bat emonaz. Kristau andia-goeziñak dogu jaun, jabe, nagusi; Kristo-k irakatsitako maitasun eta lagun urkoarenganako begiramenik emen ezta agiri. Poza ta garrantzizko pozgiroa aurkitu daikegunak, geu gara. Alkar maitatuz eta alkarri lagunduz, itxaropena kolkoratu daikegunak geu gara, besterik iñor ez. Onantxe, ba, garratza ta gozoa nasturik jan da edanez, eta ixil-mixilka. Aberri ta Belen-go Aurtxoari abestuz emonez gauaren aintzin orduak, loaren eta ametsen besoetan etzun gintzazan.

Gauaren lekua egun barriak beretzako egin dau, Kristautentzat egun alaya. Gaur egun eta emen be, egunaren giroa Jauna artuz pozturik. Bitarteka iru eskutitz egin dodaz, eta irurak izilbideetatik marroka, kanporako bidean jarri. Gudaritza Zaragoza-n (Zaldua-n) egiten dagon Bingen Urkixo-renzat bat izan zan.

30rez izpar pozgarriak kanpotik barruruntz, bidea dagi, eta diñoskue, Karmelo-tik 25 errikide etxerako bidean urten zirala.

Illabetean 31gna, Illaren azken eguna

Arratsaldez, urteari bukaera ona emoteko, autortza izan dogu askatasun piti bat geiago dogu, olan damoskue ta, eta edanontzirik ezean azpillak alkarri joarazoz eta klin egiñik, maite danen onerako ta



geure osasunarako zurrut egiñaz, ortz et agin-lanean asi gara: dantza, abesti ta bertsoz gaua emonez.

1938gn urtea

Ama ta amari laguntzera zetorkidanakaz ikustal-ditxo motz-laburra izan dot. Antonio Sautua adiskide miña, gudari atxilotuekaz España-ko lurrak zear egola bultzian, ezbearrez il zala. Zoritxarra.

Illak 5 atear gogorki loturik doguz, aintzin egunetan lez. Jagolek, alde batetik eta bestetik, izkilluak bizkarrean dindiliz, entzumen zorrotz eta begi luzeegaz zainzen gaituez, ez baiña zulo ta makurkeri guztiak. Mari Urkixo-ren eskutitza zulorik zulo eta aterik ate datorkik, bere ta errikoen barria emonaz nireak eskatzera. Beste espetxe batean izan ziran.

7gn eguna. Putz dagi aize gaiztoak, ortzian odei-tontorrek agiri dira, arpegiak mazkal doguz, begiak lurrera adi. Zerbait danok dakigu, iñork bere ez, arazo garbirik.

Igitaia etxe inguruan dabilkigu, lepoa nori moztu aukeratzen. Ibilian dabil odol epelaren egarriz, bereak eta bost egin barik, ezta aldenduko.

Oraingo ontan zenbat eta nortzuk izango garan eztakigu. Ni bere, bai? kozka ta untzea or doguz.

Gauaren illun motela gizontzen doa eta, motelagoak dirudie gelako argiak. Itxuratu ta tajutu dira izan doguzan zurrumuruak, eta biurtuko eztirarenen ogetakarentzat zabal iriki dira atea.

Auzoko ateetan doguz otsoak, txokor sendoak kentan daukez, txapelgorriak agiri dira, nortzuek eta zenbat diran, osteraz ez. Atearen irrikietatik begira datzat, eta biotzaren taupadak bularra astintzen dauste, belaun-buruetan indarra galtzera doakit eta, geiago ezin iraurik, etzun bearrean naz.

Goiz artako turutak jagi-jagi dirauskue, gaua egunaren argi motelak jan dau, artega eta armindurik doguz geure buruak, nor izan dan jakin-miñaz.

Eztarri legortuak salda antzerako baltzez busti eta betiko lekuetara goaz zein ikusiko, eta nor ez ikusteko. Egun onak eta agur gartsuak alkarri agertuz gero, anei aldiz egiten doguzan itaunak doguz jardunari asiera emoteko: Nortzuk izan ete dozak? Gitxi ala asko? Zuen gelakorik iñor?

Adiskide maiterik eneban galdu, urtarill ontan 31 lagun eguntxintan begiak betirako itxirik, lur gorraren ganera, eta betiraun guztirako, blantz! eginekoak izan ziran.

18. Guda-ilketari igesian, Ingalaterra-n izan diran iru anai-arreba txikien ikustaldia izan dot. Itxasoa arantz onantz zedarritu dabe, guda-aginkaden min da oñaze gitxi dakie. Pozez kuin-kuindu naz. Nire poza baiño, osoa ezta, atzerritarren buztarri lotuak eta eziak izango dira-ta.

19. Egunaren goiza, argiz dizdiratsuago dator, soiñak josteatzea nai dau, eta ibillera bera bere txairoagoa dogu.

Gertatzen dana, zer da, ba?

Makiña bat ametsen iturburua, bor-bor ura emoten asi da, trukeraro eguna dirudi. 37 giltzapekoentzat jaiotza barria. Onen poz zoroa nork neurtu!

Artea-ko Maximo Espinosa (Errero) arteko da. Prantzira joian.

Askatasun eguzkiaren ñir-ñirrak, eriotza itsuturik, goizetik gaua ta gabetik goizera, aize askatasuna lagun izan dabe. Ondo izan bitez!!!

Ilbeltza (Otsailla)

Illa onen lenengo egunetan amaren, izekoen, Maria Zuazo, Martzelina ta Gergori, maitearen iker-taldia izan dot. J. Maria Iruarizaga-k, Kotxor-ek,





nire osaba Elias, Zubiko Tomas eta Torre-ko Jose Mari-ri, iñon dan astiñaldirik emon dautsiela ta, indarrak non gorde eztakialarik ei dabil.

Agate Deuna

Bakoitza bere lekuetara batu aurretik, adizkideak doguzan ateetan ixil-ixilka Agate goraltzen dogu.

6gn eguna. Barruan bazkaldu dogu, barruan jarrazen dogu, eta aizea artzeko deiaren zai gengozialarik, “Agur Jaunak”, abestu dogu.

Onetan gengozialarik, otsoa lako gizontzar bat datorkigu zezenaren putzez anditurik, zeintzuk abeslari izan diran jakin miñez. Eta erantzunik jaso ezean, gelako buru dan Anton Zarrabeitia-ri eskua esarririk, nora edo nora daroa ostikoz eta ikubilka, belarriak eratsi baiñik.

Gero batean Anton ba datorkigu bizkarra baltz eta matrallak gorriturik, irri-parra galdu barik. Egun

artatik geroz, ixil-egonbearrez gintzazan.

Illak 15 Patxi Sautua-ren ikertaldia dot. Fazisten menpe dago ta, basoetan da mendietan diardu gudaritza egiten.

-Kaixo, Patxi; Barri onik, edo ta txarririk, zer dogu?

-Ez larritu, adiskide, garaille jagiko gara ta.

Berba alai ta pozgarriak belarrientzat, geienak izaten ziran biotzean izaten genduan astuntasuna arintzeko.

Jagole barriak etorri jakuz. Orain arte izan doguzanak gogorak eta ankerrak izan ba dira, oraingoek gogoragoak eta ankerragoak dirudie. Gaitzizenez “Mitxelin” ezagutzen asiak gara, ziur askorik gaitzoena. Soiña soñekoa estaldu dau, eta soiñen doaren barririk eztakigu, aurpegia baiña zornez ondaturik, gizonaren itxura galdurik, lizunkeraren ezaugarria dauka, usteldua dirudi.

LANDAJUELA, Anton, VIII.

Epaila

Epaila onen irugarrenean, ilteko zoritxarrak ikuturik lagun barriak dakarskuez.

7gn ikoka, goragoraka, pozez gara. Fazisten guda-ontzia Balears, urperatua ian oi da ta.

8gn. Ikustera etorri yatan emakuaren orritxu bat jaso dot otzaratxu bat beretzako egin dagiogan esaten. Gauza politik asko egiten dogu, estutasun da larriak aitzurik gagozanetan, baña zerbait egiten asten garanean, ezer egiten eztauskue izten, ondoegi bizi garala uste dabe-ta. Emakume aregaz zorretan naz.


9gna. Arat-onat eriotza makurra biraka ibilian, gero ta geiago estuten dauskue ustaya. Bein bere utsik izaten eztauan ipar baltzena gainberan datorkigu. Urrengo izango dan il ekitaldirako, 25 izango oi dira.

10. Atzoko albiste gaizto-txarra, ia egia bihurturik, zelako larritasun andiaren semeak garan, eztat esanbearrik. Dana dago eginik.

Gaueko amarrak dirala ordulariak dirausku. Une larritsu ontan, eztenaren ekiña nabaitzen dogu bu-larrartean: geldirik egon eziña. Aldameneko atee-tan kirrizk-karrazkak entzuten doguz, eta gu, noiz etorriko ete diran gure ateetara, mozollak lez gagoz atera begira.

Gure taldean gau ontan otsorik ezta sartu, baña ondokoenetan zer edo zer izan danaren barri ondo dakigu.

Eta biaramon goizean atea iriki ondoren, askarrik jo genduan lagunek lagunekana, auzokeon bat gixi-ago dogun jakin gosez. Moro ederra eratsi eben lurrera Derio-n, 11gn goizean. Ezagunik ezgendum izan.



11gn egunean goizetik gauera, agirian dabilkigu igitayaren mustur zorrotza. Bein zorrotz, ete beste bien luze ta goseti, beti ta beti dizdiz. Eta orduak aurrera dagienean gure indarrak lurreraño doakiguz, iñoizkorik makalen.

Berrogetak gelakiden artean surru-murrua dabil txutxu-mutxu, beste batzuenen artean gureen dakoen bat be, izango ete da. Bederatziak inguru dira, ondolik kentzeko dauskuen lagun maitea nor dan ba-dakigu; lendik artu genduan erabakia bete bearean lenengo, azken gaua izango ebalan esan yakon.

Andini aurreratu zan ilgai arengana, azkeneko gaua izanik, gerturik egoteko esatera.

Berba baltz eta astunago eziñai, garrantzi geiegirik ezeutsan emon gizon gaixuak, eta aurpegi errukitsurik erakutsi bez. Lurrean eban lo abiaren ganean eratsu yesarri zan, nasai ta baketsu; emazte, seme-alaba txiki-txikiak ta lagunak batzuei idazten. Esku tarteko lana amaituz geroz, ipuiñak esaten emon ebazan ordu larriak, deiaren begira. Pozez egoala esan eikean, ludi au itxirik, aurrerago joan ziran lagunakaz alkartzeko.

Gaueko amaiketako dangada otsagaz batean giltzak sartu ziran beren zulo estuan, da bira bigaz

atzeratu orman izan dan burdin musturra. Bein betirako galduko dogun adiskidearen izena uguzi dabe, arro ta errukirik bage, gertu daitela esanez.

Lagun errukarriak eztau gertubearrik, gerturik dago -ta gelditzen garanoi bere arimarentzat otoyak eskaturik, agur dagizkio benetako epai-egun andirarte.

Leturia-tar Joseba dogu gizon au. Lekeitio-ko batzokiko lendakaria, emaztea ta umeak izten dauz. Leturia-gaz batean 27 geiago be, badarordiez, eta andrazko batek 40 eguneko umetxoa lur onetan izten dau, amaren bularreko esnea gozotzen asten yakunerako.

Kristo-ren ezaugarria paparrean, Kristo-ren izena ezpanetan Kristo-ren izenaz toki ta leku guztietan dabilzatenak egiten dauskuezan trizkantzakaz oarturik, Jaungoiko arenganako sinismena galdu baiñik doguzanak be, ba doguz. Il naiz, edo ta bizi, bardin dautsoe beste batzuei, zenbait ariñago il, ainbat bat obe litzakioela diñoenak be, gitxi eztira.

Orozko-ko semea, irurogeitik gorako urtetan, Lekanda dau abizena. Diru apurren bat aurkitu eutsiela etxean da guri lagun egitera ekarren, 6 urterako epaya lepoan arturik. Egunero alkar ikusten genduan-da, egunero gure egoeratzazko izkeltaldiak be izaten genduan. Eta bein, Jaungoikorik

ezeagoala asi zan esaten arimari egokiozan ipuñak emen amaitzen zirala, eta zorri gosetien janari 6 urtetan izan baño len, gurago ebala iltea be. Bere burua il eban.

Igandez jaso zan bere burua iltea. Bearturik gengoan sinestedun da sinisgabeak meza entzutera. Eta Lekanda meza entzutera gorengo tokira igon zan, eta meza amaitu besterik ez, bere burua egotzi eban bean eukan lur gogorrera, alantxe beterik barruan erabilen ametsa. Zatitua izan zan, inguru-minguruko orma odolez gorritu ta orbanduz. Illaren 13garrena zan.

15gn goizez urkatuak 4 izan ziran. Nortzuk eta nongortarrak izan ziranik ezin neban jakin.

Arratsalde zirkamendirako aukeratuak 6 izan ziran, baño, zergaitik eztakigu, ezebezan il.

16an eriotzatik urrindu diranak, eta bizialdiko ka-tepeturik izango diranak 68raño dira. Onein artean zan Areatza-ko Patxi Ugarte, nire adiskide miña: Txoko.

Txoko onek bere, bereak eta bost ikusirik zegoan. Bein, gau batez, aldamen batean da bestan etzunik erreskadan izan ebazan lagunek kendu eutsoezan. Zelako tau-padak izango ete ziran, Txoko-ren biotzean.





19. San Jose.

Lekanda-ren eriotzari ondo eretzirik edo..., zorrien abi ta janari izan zan andaluzitarrak be, bere burua goitik bera jaurtitea erabagi, eta egin bere bai. Jaurti eban bada, eta damutu izanik edo, eskegirik gelditu zan. Egin dauana zigortzeko, eskua ezarri eutsoen, bai ta ondo zigortu be, azur uts eukazan saietsondoak odoletan arte.

Egun ontako gauaren lenen orduetan txoko ta zulo danak arakatu dauzkuez, eta ajedreza kendu dauskue. Beste arratsalde batez bere, araketaldi bardin samarra gelatan izan ezgiñanean, oraingo onetan poliki arraztu dauzkuez dindilizka izan doguzan soñekoak, eta bateri, España barria egiteko zakelean eukazan dirukondarrak kendu ta eroan.

25. iñoz loretuko eztan pozaren jabeak dirudigu. Itxaropen obearen jabe ezin gara izan. Gorrien alderdian diran giltzaperatuak onuntz ekarririk, gu bere Prantzira bialduko gaituela, aotik aora dabilkigu parra-parra. Lenago bere au lako arremanak izan ziran da, doguzan gauzarik bearrezkoenak birribildu ta toleztuten gabiltzaz, pozaren pozez goragoraka.

Jorrailla

Betirako joanak asko izan dira, geiago gara oraindiño praka estuetan bizi garanak, biotzearen taupadak baretu ezin doguzanak. Ordu ezta-baidatzuak, gau luze azkenik gabeak, egun urduriak doguz.

Sabela gozez dogu, askatasunaren egarriz gogoia, betiko ormatzarrak ikusten begiak asperturik, idizillaren keriza orpoetan jarraika dabilkigu, orkoroko atzazkalak bigundurik zorriak ilten doguz eta, zelai gogorrean lo giñaz jorraillaren laugarren eguneraño iritxi gara.

Gau onetan, gure bizi-toki dan etxe onen lau alderdietatik turut-otsak datorkiguz, zein baño zein indartzuago-ta, trizkantzaren bat egiteko deia izango zalakotan, geu bere gerturik gengoan, ateetara etorkunari ortzak erakutziz alkar ilten as-teko. Franco-tarrak Lerida menperatu eben ezaugarriak ziran da, ezerezean amaitu zan, dana.

9an ezkontza bat izan genduan ta, espetxeratuena izan zan.

Eguneroko orri ta oarrak galdurik dotaz eta, Larrinaga-ko egiñak, ez egiñak, amaiturik bageko ikaral-diak, gau luze baltzak emen amaiturik (bukaturik),



Burgos-erako bideari ta, Burgos-eko bizitzari loturik emon dagidazan orain albisteak, barriro bere azken aldian Larrinaga-ri ekiteko asmoz.

1938gn urtea

Urte ontako Jagoba daunaren goizean izen-zerrenda luze-luzeak irakurri dauzkuez. Izentaturiko danak bildu, bestengandik berezitu ta, illazki, lastakinezko lo-kabiak, estalki berogarri, jan-ontzi ta abar artzeko bere agindu dauzkuez eta gerturik gagoz, zertarako ta norako izango ete garan jakin miñez.

Lokarriak eskuetan dabez, eta biñaka bat besteari aguro lotu gaitue. Al genduan eran bakoitzak bere gauzak bizkarreraturik, Zabalbide-ko aldapan beera garoardiez, Norte izeneko bultzin-geltokira, txapelokerrez esiturik.

Abelgorri, zaldi ta txarriak ba giñan lez sartzen gaitue bultzpudietan, eskuan loturik doguz eta lorrasuge bi doguz ate bakoitzean. Buru dan goardiazibillak aurreruntz, indar dagizku barrurantz. Fut-fut, fut-fut asi zan trena, atzean loturik ekarzan bultzpurdiak be, leunki jarraitzen eutselarik.

Zein bide artu dogu, nora garoardiez, noiz arte ta zertarako?

Nekezko fut-futean Orduña-ko aldatz gogorra garaitu dogu, eta indar barriz orniturik, aurreruntz dagio bere bideari.

Agur, Bilbo, agur, Bizkaia, agur, Euskalerrri! Bigarren aldiz garoardiez Gaztela-ko lur latzetara,

amorde biotz bageko onen doakabe ta otsein izango gara, aunitz urtetan.

Gaztela-ko galondo-lur billoztuak zearkatuz, Burgos urian artu dogu bidaldia.

Lurreratu gaitue. Onarte biñaka loturik, emen seinaka lotu gaitue. Aurretik atzeraño, esku-muturraren bitartetik beste lokarri ipiñi daukue, eta onan be, iges geinkelaren bildurraz eraginik edo, beste lokarri bat jarri daukue ertzekoai, besondotik besondora. Aida! entzun baizen, bizkorrik goaz, aurrera, oñakaz astintzen dogun auts gorria aoaz iruntsiten dogularik eguzki-galdan.

Ibiliz garoadiez bidean, besondoak urraturik, eta alako batean, orma uts dan etxe andi bat, gure bizi-lekua izango dana dogu, begien aurrean.

Irekirik dagoz, alderik alde atreak, barruratu gaitue -ta izan leiteken arrera eztsua damoskue.

Ardoaren ardaoz ustel itxurazko arpegi eukan bateg lokarriak askatzean, Arrasate-ko Bidabu-ri iñotzan:

Zer dakazue?

-Soñekoak, ontzi t-abar, Bilbo-n izan doguzanak.

-Zelako epai mueta, zigorra dakarzuen jakin gura dot.

-Ba, gu, aspaldidanik ilteko geukiez, eriotzarako gara.

-Poztuten naz. Or nonbaiten zulo sakonak doguz, gizon-aragirik aspaldi ontan jan bagerik, orain ez-

kero gosez izango dira, betekada ederrik izango dabe zeuon okelaz. Ongi etorriak izan zaitez!

Eskubitor eta besondotik loturik nengoan da, minberaturik neunkan besondoa ainbat ariñen askatze piti bai zabaldu neban, eta berak, askatzalleak berba oneik eukazan aoan dindiliz: Arpegia eratsiko dautsaut satika zirkinik egiten ba daustazu.

Barruan gintzazan arren, oraindik barruragoko toki bateraño sartu arazo ginduezan, eta txoko batean ikusten doguz moltzoturik Dueso-tik Bilboara, eta Bilbo-tik onaño ekarri doguzan illazki, otz berogarri t-abar, gure ondasunak.

Illazkien batzuen barruetan bizerra moztzeko labanak eta tresna debekatuen batzuk dagoz. Ezin gara areikana urreratu, esturik eta larririk dira jabeak, agertzen ba dira agertu, zer izango dan ez-takielarik.

Belandia gasteiztarra zan, eta guda-sua biztu zan ezkeru emen, Burgos-en eukan etzauntza. Nagusi-ordezkarietzaz eginik eukan ezaupide andia.

Bilbo-tik Burgos-era joan giñanon artean be, ba ziran Gasteiz eta arabarrak, eta Belandia-rengana jo eben larritasun artatik urten al egien.

Illazki ta loturak arakatzeko ordua etorri zan. Eginkizun au betetako jabeari dei egiten utsien, eta jabearen aurrean, min da errukirik bage, zabal irikitzen ebezan zabaltzeko ziran guztiak.

Belandia zeregindunaren ondotik ez-zan kentzen, bai ta txutxu-mutxuka esan be bai, arakatzeari bellarria, ondoegi begiratu bear ezirak zeintzuk ziran.

Belandia-ri eskerrak, dana burutu zan bakez.

Eskortaturiko ardiak lez orduak eta egunak emonez gero, seika ta zazpika gela txikietan, Dueso-n lez, sartu ginduezan.

Illabete batek beste bat atzetik ekarran, era ontan emon genduzan, Gabon gaua iritxi zan arterañoeko egunak.

3 euskeldun eta maketo bik batean egin genduan Gabon-aparia, eta amaitu besterik ez, ona emen non irekiten dauskuezan ateak, obeto entzun al izateko, zer eta zertarako izango zan ez genkiena.

Giltzaperatua gaztea, orri batzuk eskuan eukazana, izen-zerenda luze bat irakurtzen asi zan, eta larritasunaz eta pozaz oreka eginik, Prantzira begira jarri ginduezan gogo, arima, odol eta gintzazan guztia.

Trukearen itzaropena ziplo itxartu jakun, bakoitzak bere gauzatxoak arturik, toki aldaketa besterik ezkenduan egin, izentaturikoak alde batera, besteak bestera.

Ama ostikoz jotea, motzago ta itxisiago ziranen arpegiak jagolienak txeratsu biurtu ziran, bildotsak baziran otsan egin ziran. Bizerra kendubari etzekana, gaua ta belu izanagatik, bizerkolara bialtzen eben txukuntzera eta itxura ona artzera.

Onen besteko maitasun ondo nai eta zurikeriz, zer adierazoten ete uskuen?



Bakez gintzazala, argituko zan eguna gogoangarria izango genduala t-abar.

Gauaren beranduko orduetan lo egiteko agindu euskuen, loaren izpirik bage emon genduan gaba, Prantzian edo nonbaiten izango genduan askatasunaren ametsez.

Iragarririk izan dogun egun andia argitu izan da, ezta baiña uste genduan lako andia.

Gertu dauskue bere biziko tokia, tellaperik nasaiena mezatarako. Ongien apainduriko mezamaia: Begiko eztoguzan ikurriñak be, emon doguz bat bestearen ondoan jarririk. Papparrean dominadun gozonezkoa mezamaiaaren alde batean, eta arteko zan osagille bat be, pozaren pozagaz zorabiatu rik lurrera jausiko gintzazalakotan, laguntasuna eskeintzera etorria.

Orain arte izan doguzan mezetan zutik eta tente izan bear genduan, oraingo onetan, ez. Jezartokiak doguz.

Abadea meza esaten asi da, entzulek urduri gagoz, “erbia” norako bidean ipiñiko ete daben.

Meza entzunez gerokoaren begira gagozalarik, mezaemollearen aldameneko apaiza orrian idatzirik eukena irakurteari emon dautso. Aren berbak emen:

Une batetik bestera, edozein ordutan ilteko izan diran giltzaperatuei, gure Franco andiak gaurko egunez

jakinarazoten dautsoena, esker neurri bageko gogoangarria da. Españar danok eta guztiok aintzakotzat izan bear geunkan gizonik andienaren biotz zabal andia ta biguna errukitu da, zuetzaz. Azaldu bearrean zarie, zuok be, biotz berotasunezko esker bizia, alaikorra, azkenik bagea. Ilteko izan zarenok oraindik aurrera aloso bizitzeko zoriaren jabe egin zaitue ta.

Agur itxaropen, agur Prantzia, agur askatasun da, agur konorte galtzea.

Uste eben konortea galduko gendula, ori gaitik izan zan osegillea etortea. Konorterik ezeze, beste ezerik iñork ezaban galdu, eta ba gendun askatasunaren bizitza sutsua izan zan.

Danok gengoan burumakur, sinestu eziñik, erioztari igez eginik bizi aldirako kerizpan egoteaz.

Ez gora Francorik, ez viva Españarik gure artean ezan izan. Askatasunaren ametsak lurra jo euskun da, betirako barrutian bizibe arrak oldozkor eta arpegiluze laga gaitu.

Beste gora-berarik bage elizkizuna amaitu zan, len gengoan lekuetara garoadiez.

Bigaramon goizez aterik ate datorku espetxe nagusia poz ta esker onik erakustera emon ezkenduala-ko, barrutik oñetarañoko aserririk bizienaz, esaten euskula: On-onak izango ba-ziñe, ogein bat urtean beteturik zango zendukie barruen egotea.



Idizilkadak.

Egun baten gure atearan aurreran plizti-plaztada andiak ziran, ezgenkian baiña nortzat eta ezeren barririk. Ixildu eta barrien barriz lengo ekiñari elduz asi ziranean, plizti-plaztak zenbatzen asi giñan eta 65 onean asi zan gaixo andia: ai amaka!; ai ta oi ama deika.

Nor zan da zergatik jo eben oraindiño eztakigu. Gelako atea zabalduz gero ormak odolez beterik eta orbandurik ikusi genduzan.

Kaiola txikietatik at.

Amaitu jakuzan kaiola txikietako egunak be, eta oraingo egotera barrian toki nasaiago dogu: 100, 200, da 400-eko taldetan ipiñi ginduezan da. Euririk etzanean aize ta al genduan eratan emoten genduan eguna, eguzkirik izatean kizkeldurik, euria zanean barruan 400 gizon alkarren ganean, zankadea noruntz emon ezgenkialarik.

Txar-txarrak, garito gaiztoak, esantxarrekoak gintzazan. Aberriatzazko zorra bete gendualako. Gaiztoak gintzazan, bai baiña zelakok aurkitu eta beraiekaz bizi bear izan genduan urteetan.: Aita il ebana, aitaren gibelak jan ebazana, amari lapurretan egin geroz il ebana, anaia erre ebana, amagi-arreba ta ezkonarreba il ebazana e.a.


Eskutitzak.

Astean bakar bat baño ezin geinkean artu. Bi izaten genduazentotan bat aukeratu, bestea osterata tamal andiz, bertan bera laga bear. Guraso, emazte ta anai-arrebagandik eskutitzak izan bear eben, andragai, edo ta adiskiden batengandik igorria zanean, zer izaten zan a, Jaungoiko laztana!

Etxera egitean be, bateri egiteko baimena genduan, agiria barriz laburra ta argi egiña, apurtu egiten eben alan izan ezean.

Aldi ontako espetzeratuek, ETA-ko ta besterik ikurrindun partxisean jokutzen nasai-nasairik eguzkia artzen, idaztitegian idatziak aukeratzen, bakaldun-kumek dirudie.

Gaxoen alderdi bat be, bagenduan, oak beterik izaten ziranean, obe zan gaxotu ez, aintzakotzat etziran artzen da. Osagille giltzaperatuek ardurtzen ziran ixil-mixil eta bazter izkutueta, al eben laguntza gaxoai eskeintzen.



LANDAJUELA, Anton, IX.



Gosearen ondorenak.

Euskotarrai buruz etzan jazoten alakorik, bai osteraz gazte etziranen espainarren artean. Azur eta azal biurtzen ziran da, txorkatil eta belaunburuak anditu egiten jakiezan bildurgarri eginarte.

Artaldeko ardi gaxoak ba-liran lez aukeratu, gaxoenak berezitu, eta onengoentzat izaten zan lekura eroan osatu zeikeazan.

Leku artan janari geiago emon, pititxu bat indartsutu eta lengo larra urrira biurtuak izaten ziran, eta larra urrian makalen izaten ziranak, azal azurdunen, belaun andituentzat izaten zan. Lekura eperdiaz lurra jo baño len eroiezan.

Kristaukeriak.

Kristau eta katoliku, egiten ginduezan, igande ta jaietan. Mezea enparantza zabalean. Sinismen da sinismenik bageko lerro artezetan tinko ta geldirik egon arazoten ginduezan. Eguna otza zanean sudurra estaltzerakoan jakearen goialdea jasotzerakoan -eskuak igitu bear genduzan ta- errez baño errezago irabazten genduzan iru-lau belar-ondoko guda baño aurreragotik, komunen eskuekaz emonak. Eguzkia galda gorrian izatean barriz, obe izaten jakun agin eta ortzak alkarrengan estutuz, belarrietan da bekokian eztena sartzen euskuen euliai bakean itxi. Or eta emen izaten ziran espetxaraturiko txakurrak, zirkiñik txikerrena egiten ba-genduan, eta onengoen batek ikusi, ez mezaren ganako ta, gizonarekiko errukirik ezaban izaten da. Ezker eskumaz jotzen ginduenan.

Aita edo Padre Bolinaga

San Inazio-ren Lagundikoa. Arbaso zarren batzuekandik 4gn, 5gn, ta seigarren abizen euskalduna ekarran. Apaiz egitea bururatu jakonean, urioleak eron ba-leu itxaso sakonaren erraietara, gutzaz eta elizearentzaz askoz bere obeto izango zan.

Abade demoniño onen abadetasuna, soñerako luze baltzetan asi ta amaitzen zan, arimari ikutu barik. General jantzirik, bere biziko morrosko, bere menpeko gudarieri agindurik zorrotzenak emoteko.

Meza bitarteko itzaldia Ebanelioaz asi, amaitu barriz Francoren gudari trebe, galtzairu ezpata dizdiratsu, irabazitako burruka toki, Garcia Morato egazean zerura sartzen ikusi eban eguna eta beste ainbeste be, miñean beti eukazan. Ekiñago ta beroago egiten zan, ezpan-ertzak apar zuriz betetan jakozan da.

General jantzirik bere biziko morrosko diñot, go-raogoko zerrenda batean, apaiz jantzirik be, naikoa zan generalik.

Gintzazan lagun-pilla izanik, eta danentzako lekurik ezean alkarri orpoak zapaltzen, urratuten ibili-bearra izaten genduan, da bein baten, an

etorranean bere lagun bateaz, enparantzatik igaro bearrez, oituratzat eukan lez, turutak ots egin eben igaroko eben bidean gintzazanok bidea idegi, txapela kendu eta tente egotera. Ibilera nastuan genbitzazalarik, ez turutarik eta ez gelditu ezgiñan egin. Eta berak, zer egin eban?

Iru gizon, iru gaztelar urtetan goratuak, lurrean jasotako zigarro-mokoz egiñiko errekiña erretan egon ziranean, jo eskuaz eskuan, eta arenbeste nekez egindako zigarroa, lurrera eratsi. Apaizkerietan andia zan, apaiztasunean txiki.

Autorrentzule.

Larunbatetan arratsaldez, autorrentzulek be etorten jakuzan da, urreratu nintzan areik lako baterengana. Kolko bete eriotzaz eliza erretteaz eta olako gaiztakeriz enintzakion urreratu. Baña autor-entzule mardikatu arentzat obena zera zan, Franco-ren aurka berbarik, iñor aurrera da zenbait alditan esan nabezan. Autortza neure erera eginik amaitu neban. Gerrogo baten euskeldunak be etorten jakuzan.

Gosearen zorrotza.

Goseak zorrotzasun andia dau, iñoiz ezagutu eztauanarentzat sinistu-eziña, egia baiña emen dago. Lursagarrak ainbestetzat zuritzeko talde aukeratu bat osatu eben, eta gosearentzat arri-koskor gogorrik eztagon lez, bat zuritzen eben artean beste bat, edo al ebezenak jaten ebezan. Zorroan etorten zirenak baño

gitxiago sukalderatuten ziran. Zer egikean? Zuriketa aldian jan ezegien, jagolea jarri eutsozezan. Orduan, barri azal da guzti soñartean gordetan ebezan, oera eroan da lastakian sartu, gauean jateko. Egun batez arakatu ebezanean, a bai ba-zan patata pilloak egitea, etxearen barruan eta zimaurrik bagerik.

Jaunartzeak.

Bein batzuk eta, beste bein euskeldun mordo ederra gintzazan Jaunartzea igende goizetan egiten genduanak. Gero salda baltza eguna bizitzen asteke. Oiturazko baiño ugaritxoago izaten zan.

Akeita, salda baltza ugariago izaten genduala jakin ebanean kaztillarrek, ainbat ta ainbat gureganatu ziran, autortuak eta autortu barik, saldea artzeko itxaromenez.


Kristautasuna ta katolikotasuna alakoxeak aldi artan ziran.

Jaungoikoaren izenean egin euskuezanak eginik, sinismen osoa eukanak orduan be galdu barik, baiña kulunkan eukanak zeatz galdurik, ardi baltz, zuri, ariak eta bildotsak batean eta baketsu bizi gintzazan.

Bolinaga-rena oraingo au be

Saman ajotzaz izan gintzazan, eta Ajuriagerra bera be guztion arteko zan.

Ajuriagerra ikasten, edo ikastaldi artan Ajuriagerra-z lagun-maitea zanak. Burgos urian Bolinaga aurkitu.





Aurkitu, berba egin. Bere aldetik Ajuriak agurtu egiala be, agindu.

Betorren bein giltzadun morroigaz, barruan egoana, Ajuria ikustera, iriki atea ta, morroiak Ajuriagerra-ri dirautso: Zatoz barrutik at, zugaz berba egin nai dauan jaun bat dozu itxaroten da. Ajuriaguerra urten zan, egun onak alkarri agertu eta, bost sei urrats alde batera, ta beste ainbeste bestera emonaz, aulan iñotsa Bolinaga-k Ajuria-ri:

- *Conoce Vd. a fulano?*

- *Si, señor mucho*

- *Bien, hombre, bien. Baya, hombre baya. Bueno hombre bueno.*

Pues aquel, ya ez Padre.

Eta beste berbarik barik, Ajuriaguerra len egoan zulora. Olakoxea zan apaiz “biotzberea”, “errukitsua”, general andia

Dueso-n da Larrinaga-n

Ia 9 illebeta andi egunari noiz ilgo ete gaituen zai. Beste egunak Burgos-en ziran urte ta erdi gaur izango, biar izango, noiz izango ziran ezgenkiala.

Durango-koa semez, Eibar-koa bizitez eta sinismenez iñongoa etzana Burgos-en il eskuen: Ibarra zan bera. Autortzerik ezaban nai ezergatik be, eta autortu barik il eben.

Il eta gerozko mezetan, autortu bagerik il ebannari ekinik, Bolinaga jaun andiak esaten ebazanek emen; «Muerto el perro, se acabo la rabia».

Bolinagaren berba entzutetsuak izaten ziran. Entzun da entzun nazkatu besterik ezginduzen egiten.

Gaxoz ilten ziranak.

Gaxoz il zan lenengokoa, donostiarra, edo gipuzkoarra zan beintzat: Mitxelena. Etxekoen ikertaldia izan ebana zan. Bera bakarrik izan zan emazte maitearen azken-agurra artu ebana.

Gaxorik aurkitzen zan oeraño iritxi zan emazte gaizua. Au egitarakoan barruan gengoalarik, barrurago sartu ginduzen oraindik, emakumea ark sartu-urtena egin egikean.

Il zan gipuzkoarra, aren ondoren 5 urteren buruan il ziranak ainbat eta ainbat izan ziran etxekoen agur maitearen laztan errukiorra artu barik.



Il ta barren artatik ataritzen ate nagusiraño lagun-tzen geuntzan gorpuari, ate ondoan expetxeko abesbatzak “Libera me domine” ta olako batzuk abestuz. An eroien gixajoa, ez etxekorik ez lagunik bagerik.

Burgos-ko espetxe andian gaxoten zana, ilbearrik izan ezker olatxe ilten zan.

Abesbatza.

Egunen joan-etorrian, eta E. Orbegozo zuzentzapean osatu zan abesbatza, geienak euskeldunak izanik, katalunyar, Asturias-ko ta Santander-eko batzuekaz alkartuta.

Gudaldia bide izanik galdurik egozan gudarate ziran, abesbatzak, eta gizon-andrazko kanpotar asko izaten ziran, abestiak entzutera, espetxeko nagusiak deiturik etorten ziranak.

San Pedro jaiak etozan, Burgos-ko jai nagusiak, eta abestaldea inguru-minguruak jagolez esiturik urten zan Burgos-ko elizaraño.

Egun artan, barruko ta kanpoko ate nagusiaren bitarteko landan, etxekoekaz bazkaltzeko baimena izan genduan, nasai nasaririk egin genduan.

Egunak ostera joiazan, alan da be baña zeri, zeren, aren bildur gintzazan.

Redencion bai, pakerik ez.

Redención au aldizkari, bat zan giltzaperatuentzat egiña, etxekoen laguntasunik, bear ba-genduan

Redencion-era arpidetu bear genduan. Ez gengozan burua makurtzera, eta bat edo beste arpidetukoren izenez etorten jakuzen, etxekoek bialtzen euskuen piti urria.

Eskutitzak.

Urteen joan-etorrian ur-tantak be arria zulotzen dau, guk bere ba beti barruan izango giñala usterik edo, ixil-mixilka artu-emonetan asi giñan gure zaindari ziranakaz. Arria zulaturik egoan. Arri zulatu lau ormen barrena zaintzen ebanak ziran eskutitzak Burgos-era ataritzen euskuezanak.

Nagusia izaten zan atondoan bein baten izkillu azkarrak ipiñi euskuezan soldaduz zaindurik. Arpegirik ez geuntzan ikusten mutil areiri. Inguru-minguruan egurarte gengozalarik, alako batean autumutuan asi giñan, eta eskutan zanak, zeberiorra zala erantzun; biar, etzi ta etxidamu leku berean izango zala. Egun askotan ez bazan be, idaztilaria izan genduan.

Bein baten emon geuntzazanean. Burgos-era ezin joanik, bere gauz artean ebazan gorderik. Jazo, zer jazo ete zan? Lapurreta bat izan eben soldaduen arteko zana, eta noz zan jakinairik arakatzean eragoien. Agertu ziran eskutitzak eta, gero jazo zananren barri, zeberioar arek emongo obeto nik baño.

Poloniar ateo.

Sinismen bageko gizona, gizon ederra ta lagunarterakoa.

Eguzkia kinka gorrian egoalarik poloniar au ere txapel barik eta ulea susterreraño mozturik ebillan, danok genbiltzaren tajuan. Burua anditu jakon geiago ezinean, geixotu zan eta, gaixotokira eroan.

Igandea zetorkigun egun gutxiren buruan. Oean etzunik ezegozen danak, egozan beartuta meza entzutera etortera.

Entzuten gengoalarik jezarrita jarraitzen eban bere lekuan, mezaren erdian alaxe jarraiturik ondoan eukazan gaixoak sutitu ziran arren, ta “Don Matias-ek” meza amaitu zanean dirautso:

- Zergaitik etzara besteakaz batean zutitu?
- Ateo naizelako.
- Zigortua izaterik nai ezbadozu, zoakidaz osagillarengana, eskatu agiria ta ekarridaizu atea zaran ala etzaran jakin gura dot eta.

Alakoxea zan gure don Matias. Bera zan lakoxeak ziran españarren katoliku, kristau eta Jaungoikuarenganako sinismen zintzodunak, atea izatea zer zan etzekienak.

Matias au izaten zan idazkiak iraki, arakatu ta irakurten ebazana jabeari emon baño len.

Niretzako zan batek ipuin da kontu askoren artean “compañera” ekarrana.

Deia izan neban berarengana joateko, joan be, barriz, buruari azka joan nintzakion, zer izango eta zan larriak jota. Asi zan ba emendik ekin da andik ikutu, compañera aren esanaia komunisten berben bat zan jakin gurarik eta, adierazorik.

Pepe Verdes, Bilbo-ko, Korreo kaleko idazkitegiko nagusia be, antxe egoan preso, “entxufatua”, gugaz batean Bilbo-tik Burgos-era eroanik, eta au izan zan “Compañera” Eliz Deunaen berbetan be ba-egoala eta, Jaungoikuak Adan-i “compañeratzat” Eva emon eutsala esaten.

Verdes-i eskerrak, eneban zigorrik izan.

Perrotxikoak aña ugari.

Gudaldian nork agindurik asko, amaitu zanean, barriz, erdiak be, geiagi. “Paratxutistak” ekarri euskuengan perrotxikoak, aña ugari.

Paratxutista zenbait Gipuzkoa-ko Errenderi-n egonak ziran, pelota ta futbolzaleak.

Egunean eguneko eginberrak ondo ta zintzo betetzera beartuten genduezan, paratxutista onein bidez “Aupa” ta “Txir-Txir” euzkotarrak, kataluniar eta besteen bat be ba-zan, ostiko-pelotariak. Jolasketa ontan euzkotarrak nagusi, katalanak soka-tiran.

Rodillerak

“Rodilleras” zigor au etzan zigor txantxetakoak.

Lagun bi alkarren ondoan makurturik, belun-buruetan berebil-txirrinken goma zati bana ipiñirik ondo lotuta, emen da an eskuan zapiz lurra garbitzen emoten ebezen egunak eta egunak, erretzea ta berba-egitea galerazorik izanik.

Eguneroko ibillian egiten ziran “rodilleras”, baiña lenengotan etzan izaten eztizko gauza belau-buru urratuen ganea, goma madarikatua jartzea.



LANDAJUELA, Anton, X.

Jan-tokia

Bakealdian leku andia izango zan, jantokia. Amaitu barri aurkitu genduan, lareundik gora sartzen gintzazan. Iraurri edo saltzarria bean, lau orma sendo ta ez urik eta ez besterik an ezer etzegoan.

Gaixoetan gaixoena, ezbearretan ezbeartsuna Zornotza-ko Irakulis izan zan.

Jan-tokiko mustur batean, eta Irakulis-en ondo-ondoan bakoitxak berari egokion zereginetarako bidoi andi bi jartzen euskuezan, Irakulis-en mosuetan ain zuzen be.

Gau ta bigaramon goizean gosaldu arteko zeregin bearrezkoenak antxe, bidoi bietara ustu bear genduzan. Saldea parra goiko ertzetik jausten jakola, Irakulis-en lo-kabiraño sartzen jakon, Irakuli-en sudurra estalduz bestela usai txarrez ilgo zan da. Lastakia patsetan bustia, busti artan egon bear izaten eban da, "tatarit" jagiarazoteko joten uskun arteño.

Irripar eraginarazoten dauskuen arazoak gaur egun, irriparrerako baiño, negar-egiteko lenagoko egunetan askoz bere obeak ziran.

Eta gaua emon genduan tokitik ataraten ginduezanean zer gertatzen jakun?

Nik areri, arek niri, eta urrengo batean edonok edonori parre-algarada gengoan goizeko lenen orduentan. Lau-bost kaka-toki bai egozan, baña batek egiten eben artean, urrengoek estu ta larririk izaten ziran eperdiari eldurik, eutsi eziñik, prakak loitzeko bildurrez, dardarka, egon-eziñez.



Gela bakoitzean zazpi lagun

Zazpi gengoan giltz-kirrizkida batez gelatan lotuak, gauean baña lotarako orduetan, barrien barrizko kirrizkadak lo obeto dagigun edo, izaten genduzan beti-ta-beti biotzondoa dardarka ipinten euskuenlarik.

Ertz batean asten ziralarik, bai-etozan poliki-poliki ateriz ate kirrizkada barri batez atek ondo itxitera. Eta ondoan samar ziranean, alkarrri aulan itaundu.

- Gaur, ez; ezdot gaur ikararik egingo.

Baña giltza zulatoratzen ebanerako, andia edo txikia, biotz ikaraka izaten genduan.

Oraingo ontan, Matias barriro bere.

Mundu gitxi ikusirikoa, ezjakiña, goldaren atzetik ibilteko gizon aukerakoena, ezan garratza, egin bear genduana ondo eginezkero.

Gure bizi-tokiaren goian bizi ziranak bein, gure gelaraño MATEMATICAS-en eske bialdu eben. Iriki atea, eskatu euskuna emon geuntzan eta atee-

tan bere, txistu-mistuka, gu barriz, barrenean tinko ta geldirik.

Zer eta zan, ba nai ebana? Eta alako batean, itxaroten nekatu edo, diñosku; "Matemáticas" esan dauzket eta bat besteari eztaustezue emon. Eta besteak, besteak non dozuez bada?

Arazoa zelan zan argitu geuntzanean, bakez joan zan.

Lokarrizka sakelak.

Kipula ta tomatea zeatzako laban da aiztorik, soñeko zarrak barriztatzeko joztorratzik eta gorostirik, ezer an etzegoan.

Etxetik saku-mantarrez loturik bialtzen euskuezan janariak, txiki ta piti ziran sorrotxoak altzitu, aria ta goroiki biurtzeko txirikordatzen genduan, sarea, sarezo sakela egiteko.

Enparantza nagusia giñanetan, sarean izaten genduzan zalia eta azpilla, kinkilin-kankalanka emoten genduan eguna. Beroak irudigun.

Zenbait garrazkeri emen ere esateko dotazan arren, bertanbera Burgos ori itxirik, noian barrien barriz Bilbo-ra, Larrinaga-ra, niretzat daukan, zeregin geiegiko edezti biurri au bein betirako amaitzera.

Barriz bere Larrinaga-n.

Illuntze batean, ondo illunduz geroz, On Jaime Zarandona eskuan orri batzuekaz etorri jatan ba-

rrenera, erriko endore jaunak emon eutsazala ta, nire onerako zirala esatera.

Franco-ren kapellau eta... arrera onik egin neuntzan, papelak baña ez nebazan eskuratu, Igorre-ko Jauregi-k egiñak etziralako, eta orri areik, edozelako orri zatarretan egiñak ziralako.

Eskuartea bear ez nebazanlarik, beraren eukan itxitea erabagi neban, nora eran ekialako. Jaunak daki nondik eta noraño joan ziran orri areik, areiri buruz ez neban beste deirik izan ta.

Kotxor, Txutxurrio.

Gaitzizen bi oneikaz Txutxurrio Kozkor ezagutzen genduan, Euskadiko Gobernoak preso eukia eta, karlista amorratua, fazistakaz arremon andiduna.

Bein baten bere barruraño etorri jakun, Larrinagan. Ni nintzakion begikoa, aurkitu nindun da, bion artean joan giñan geure erritarrak billatzerara, billatu eta aurkitu, iñon izan zan itzaldirik, bein gozoki ta bein garrazki, aitatu euskun, Txutxurrio gure errikideak. Azken batean bigundurik, Gabon gaberako paitarra igorriko euskula esanik aldendu zan, oraindik paitar aren begira gagoan arren.

Teruel-dik.

Ogei, berrogei, irurogei bat (?) gizonezko, danak gudari atxilotuak, Teruel aldean.





Odolez etziran beroak, itxuraz tristeak, goibelduak, lenengoz izan eben eran Errepublikatik Francoren alderdira igez egindakoak.

Ezeben berbarik inogaz egiten, eta Burgos-era eroan ginduezanean, Larrinaga-n gelditu ziran egunetik egunera fazistago agertzen ziralarik.

Villariño abadea.

Zerutarra, kristoren ordezkoa, inoiz be obenik egin bakoa santu utsa, ezan gure gogokoa.

Calasanz apaiza.

Berba on eta itxaronpetsuz asi dau, esateko dakarskun mintzaldia ara baño non aldatu dauskun aria, beraren era berezira.

Gonatzar andidun abadea gizonezkoa zan, apaiz aiñako militarra.

“Oraintsu arte danok, gorririk gorrienak izan zarie, eta orain emen nor da izeko lekaime, osaba lekaiderik eztaukana, eta nor dogu daren artean apaiz lengusuen bateri argitasun-agiriak eskazeko idatzi gabea? Ez, jaunok,

berandu da orain inoz izan etzariena eskatzea. Danok dozue orain Elizarakoen bat, ari laguntza eskatzeko”.

Leenen izan genduan poza izoztu egin jakun, gizon aren agokadakaz, biotzak dardar, kikildu, egunaren argia illundu.

Larrinaga artan eundaka illak izanik, bakoitzak beraren egiteetan bearco eban iriki zerurako, edo-ta inpernurako atea. Gure alde egin ebazan otoietatik aske gengoan da.

Gezurra ba dirudi be, Calasanz-en lakoxeak ziran aldi artako Franco-ren elizgizonak; madarrikatuak.

Eta il zan Franco bera be, gixajoetan gixajoena, gaixoari aurrera ezin arturik, azur uts gelditu zan. Arotz, jostun da idaltzeruak naikoa eben zereginik azur ildakoen ganean lasta, galtzu ta zapi zarrek Franquito barria egiterakoan, arri anditzar baten azpian estaltzeko.

Utsik askoren artean amaitutzat itxiten dot, Iratxe ta Iker illobatxoak euskal-zaletasunik inoiz izango balebe, umarotik zartzarorarteño zelan izan gintzazan jakin dagien.



Españarren erpetan

1938gko urtean

1938gn. Urtea zan eta dagonillaren 28an. Egun batzuk lenagotik Cicero izeneko errixka baten gengoan, eleizan, gudari gaxo ta gudan zaurituko gaztedi mordoxka. Arerio ankerrari paparra jartzeko ezgintzazan gauza, bai osterarenrenka, erdi errenka edo bakoitzak al eban eran erri inguruan ibiltzeko.

Gorago aitatu dodan egunean, urrin be ez egoan ta, Laredotik Santander-untz joian bitxabaleraño eldu gintzazan adiskide taldetxo bat bide bateko eguzki artzea egiñaz, eta emen, arriturik, non ikusten doguna bideak betean gudariak, gudari etziran gizon urtetsuak, andrazkoak eta umeak, batzuek izerdiz, beste batzuek arpegi larriakaz, negarrez zetozanak ez ziran gitxi. Itaundu genduan, larritasunak eraginda, ia zer zan zana, gertatzen zana, eta, erantzun au izan genduan: Italiatarrak, Doiztar edo Alemanitarrak Aprikako narruilunak eta azurbaltz guztiak bat eginik, or jatorkuz jarraika ta orpoak jaten. Izkillu indartsuz orniturik datoz, Laredora urreratu dira, ezin dautsoegu eutsin eta emen gatoz nora jo ezta kigula alperreko eriotzari igezka.

Erantzun ezin baltzago oneik azelako dardara biztu jakun oñetatik barrura. Alkarren arpegietara begiratuten genduan. Gure espanetan ezegoan itzik, eragabien bat artu bear zan. Aldean genduzan zauri

ta makaltasunez nora jua eta zer egin? Atzen baten sartu giñan notintzazko uriola artara, eta burua ondatuta dauan zoroaren gisan, titirri-tatarra, nora giñoiazan ezkenkiela Santoñara eldu gintzazan.

Erri onetan etzegoan txoko eskuturik nasai egoteko. Adin guztietako notiñez samaraño bete zan. Danak zirudien urduri, iñon ezegoan leku onik. Padura izeneko ta lañoatara nasaitasuna ta eroapenagaz jabetuteko eskatuten dauskuela. Arrantzalien ontziak kaiolak balira lez, kaia bete dabe ta gertu dagoz igeserako, kea darioe. Onein artean arrantzarakoa eztirudi anditxoago bat agiri da, eta gizonezkoak, bata bestearen ganetik alkar zapalduz onen zabel eta gane legor gabea, aguro beteko dabe. Zauri andirik eneukan, Bilbo-ko Artxanda-n zauritu ninduben, edozerlako ikutuak min emoten eustan. Baña alan ta guzti be, bildurraren bultzadakaz eragin da, barruratuteko egarri bizi-biziari erantzunik, ukondoko ta indar niretzako beste leku aurkitu neban ontziaren sabel sakonean. Inguruan ziran ontzitzuak be betetan joiazan, zama geiegiagaz goiko ertzak ia urperatuta ekiezan, itotzeko arrizku gordiña idierazten eben, iñor etzan legorrean gelditu gura ebanik, gaba gero ta zarrago egiten zan, eta arerieren erpeak geroago ta urrererago.

Gabaren erdia joan zan. Ontziak uraren azaleko armin ta kezkatu, batera bira, aur-eginik bestera, ezta be urrinduteko biderik artzen. Guztiok gagoz alkaritaunka iñork ete-ekian itxasoratuko giñan ordua. Erantzunak: «Goizaldera, eguna itxartu baño len

itxasoa zearkatuten izango gara atzerri ezezeunera-ko bidean noiz biurtuko garen eztakigula». Zerbait ekianen batetik etorritako berba izango zalakoan barretu giñan, ez luzerorako baña. Laredo-rantz urten zan topintxo zerbait gertatzen zan jakin eta ikustera beingoan biurtu zan izparbaltz itxaropen-ondatzalle onegaz: «Itxasoko ago-agoan sei urpeontzi doguz urten-bidea galerazoten dauskuela».

Larrirasuna lodiagotuten asi jakun, guztiok asarre, iñon ez toki onik, estutasunak jan bear ginduzan, eguna begiak zabalatzen, eta ontziak kaian tokirik aldatu barik dantzari. Igasi zan gaba, etorri zan goizeko zazpigarren ordua, eta bata-bestioen atzean legorrera, lurrera.

Itaundu dogu baten, geiago zer zan jazoten zana, eta erantzun pozgarriak belarrizuloan kilikili dargosku «Frantzitar eta Ingaladar ontzi andiak jatorkuz une batetik bestera gura dogun guztiok anka egiteko».

Batera ta bestera, ara ta ona, zelan edo alan emon gendun eguna barri billa, bai-ta alaigarriak batu genduzan: Italiarrak zirala gure jaun-jabeak, oneikaz egin bearreko artu-emonak aurrera joiazala bide zabaletik eta bildurrik pitienaren bildur ez izateko.

Arraltsaldeko seirak aldera entzun genduan txirrinka biko tatarraren otsari ezgeuntsan buru-belarririk egin eta ezgenkian nor izan eteikean; albistea, baña, laster zabaldu zan agoz-belarri Italiar gudal-burua zala etorbarria, bai-ta egia zan be.

Bai nik, eta bai nire inguruan ziranak, mozollo

itxurako arpegiak agertzen genduzan, Mussolini-ren gudaria gure aldametik igaro ta aldendu zanean. Berau ondoatu zanean zutitu gintzazan, begirapenez, eta etorribarriak be arpegiargi, eskua zabaldurik eta atzak lokiraturik agurtu ginduzan.

Gure nagusiakaz legezko arauak zuzentzera etorria zan, joko garbia zala be entzun gendun, kezkaeren edian arnasa sakontzen gendun, eta alako baten, arratsalde on esanda etorri zan bidetik urrutiratu zan. Batera jua naiz bestera jo, txuku-mutxua, besterik ezan gure artean; txakur-ametsak bere etziran gitxi.

Lenago izan genduzan ametsak, itxasoa zearkatuteatzaz, iruntsiten asi gara barrien-barri. Gogor igurtzen doguz eskuak batagaz bestea lastandurik, pozbako morroi eginik. Lurraren ganean gagoz ezarririk gizonezko uztaia eginik. Atzerri urrutiko bizitza eratu gurarik, an doguz gogoak sustraiturik, eta ametsezko txondortzak jasorik, eztogu nabaitzen jan ezaren nekerik.

Italiar nagusia Santoñaratu zanean, leiorik geienak apaindu ziran une batetik bestera españar ikurriñak dindiliz zirala, baña Mussoliniren gudariak aldegin bazen azkar eskutautu ebezan oiua ta agozabalko estegitako zapi iguingarriak Eusko gudarien ardurapean zan erria oraindiño, oar egin eben gorri-bellegi ziran zapiak kentzeko, eta agindua zeatz bete zan.

Arraltsaldeko aldera barriro datorkigu Mussolini txikerra 6-8 bere antzekogaz inguraturik, ikurriñak gora jasorik. Iru-lau gudari korta bardiñean ezita-



koak dakarrez atzetik eta ondoan. Atzeratxoagotik baña ur samar, moskor itxurazko andra moltzoa edan-beroan goraka ta txaloka Españari, Fazismoari, Kristo Erregeri. Arreta oso otza egin geuntsoen.

Berrogeien bat urtedun zan gizonetzkoa (gudari euskalduna), Gora Euskadika ezin zan asetu ormatxo baten ganetik. Españarrak izan balira menperatu ginduezanok, an itxi bearko zituan azurrak Euskadiri goraka eragoion gudari bulartsuak. Italiarren belarriak, ostera, etziran izan irainduak eta minduak. Beste mutil eder bat, Ertzaña, Eusko Ikurriña bizkarrean, negarra begietan eta gudari mordoagaz inguraturik, ezaban gura artu aintzakotzat menperatzallien nagusitasuna ta indarra, eta sua ta txatarrak begietan bizturik burruka barriaren egarri gorria erakusten euskun. Beste ainbat ziran edo... gintzazan (eztakit neure burua zein arlotan jarri), begiak malkoz eta biotzak urratuta izanagaitik burua galdu ezgindunak. Era guztietakoak; odol bero ta otzekoak bear ginduzan tarteko egun aretan; epelegiak indarbarritu, odol-kirio beroegiak baretua eta negarrez ziranai poza emoteko.

Bai eguna ta bai gaba, baltza izan arren, askatasunik zabalenean emon genduzan. Aprikatar nau-ruilunak ikusi bagea nintzan orain arte, ta emen, Santoñako itxasertzean ikusi nebazan lenengo aldiz praka-nasai, mustur-zikin, ibilkera zirirri-zakardun alper itxurako Frankoren gaizkatzalle, ta andra izortzalle lapur oneik.

Auxe zan Santoña: azkatasunaren billa millaka ama euskaldunen millaka semeren azken-muga. Emen ikusi genduzan azkenengo aldiz -luzarorako- eguzkiaren argia, idetargiaren arpegia ta izartegia. Emen zan ilgo euskuezan lagun askoren lur aukeratua eta ezkutatuta eukiko ginduzan giltz madarikatua. Emen zan, bai-ta, bigarren nekaldiari asiera emongo geuntsan tokia.

Agorrilla-ren 27go goizeko egun argitzeagaz eze-reztu zan gabaren sabela. Kaian, itxasbera zalako edo... ontzi aundi bi egozan, asao; bata prantzitarra zan, ingalandarra bestea; beintzat olan entzuten zan. Eta egiztatu ezin ba-dot be, iñoiz aztuko ez jatazan bakoitzaren izenak onexek ziran: "Bobie" eta "Seven Seas Spray".

Zurikeria zan edo ezbazan, oraindik eztaikit, Italiarrak, baña, geu Prantziaratuteko zirala esaten etziran nekatuten.

Benitoren gudariak arpegiz argi ta maiteki azaltzen ziran, eta onein aginduz ontzietarako bidea artu gendun goizeko zortzirak aldera. Ni, bigarren izentatutakora sartu nintzan, eta au bete zanean bestea bere aguro bete zan.

Españarren edetan geure buruak lotuak izango ete ziran gogoratzeak, ikaratzeko buru-austeak sortu-arazoten euskuzan, eta noiz izango zan ezgenkian urtetako orduagaz gogoratu ezker, ostera, lilluratu egiten gintzazan. Gure itxaropena, itxasoaren arautan makurtu zan eta joka-bide bardiñeko egin ziran; bein gora, bein bera; bein gazi, bein gaza. Geuk esan



eta geuk entzuten genduanari jaramon eginik, uraren arroaldiaren zai gengoan; aingurak goratu, lokarriak azkatu eta itxasoaren narruari azurrak urraturik eta Euskalerrira begiratzuz mendi erpiñai agur egiñaz, zerura naiz inpernura egiteko gertu.

Poza ta negarra burruko barruan geunkazala, urak bere gorakada egin eban, bai-ta, berakada be. Bigarren aldiz, astitsu, alper eta neketsu gorako bidea artu eben ur garden geldieziñak, gorago egiteko kemen eta indarra galduta ikusteagaz eta lotsatu izan balira lez ixil-ixilka ta geldi-geldika lengo zulora jatsi zan gure itxaropenak beraren kolkotan ito ta gorderik.

Orduak luzeago egiten asi ziran, arterik eza indartu, larritasuna estuagotu, igez-naia armindu.

Alako baten, zeñek ke baltzagoa zerurantz jaurtitzen asi ziran askoren amez-ontziok gure biotz kupiragarrien osasunerako. Itxaropenaren bizialdi barria izan gendun, arnasa artze zabalagaz jabetu, ames lillurakorrak sakondu; odola gaztetu.

Aizearen bizkar ikusieziñerako bidean doiaz ke baltz zikiñak. Zulotik igeska asi ziranean moltsoka ta jostalari, orain medar ta neketi eta gure buruak paparrera eskegita.

Suaren ezaugarria goiko odai-tokian ezereztu zan lorratzik itxi barik. Eguzki bere amari mosu emotera joan zan. Illargi gau zalea erdi-keñuka laño zurizka tartetik keriza egiteko almenik ezeukala, eta gu, loari tokia ukatzen, begiakaz iluna zulatzen.

Gaba aurreraka aize ozkirriak bultz eraginda, eta gabari orpoak miatzkatuz etorran egunsentia. Eguzkia be itxartu da geberoko loalditik, eta sanak indartu loditurik, osin sakon kresaltsua legortuguran jagi dala dirudi.

Agorrilla-ren 28gna.

Goizeko itxas-aixe garbiak puzka daragio samurki, baña gure surtzuloentzat eztau gozotasunik. Aurreko egunean, goitik bera, ametsez beteta laga genduan lurra, ez genduan galtzen begien aurretik, geldirik jarraitzen genduan ur gaziaren azalean. Gudari garaillezko txinurritegia ikusten genduan errian; eta gu, praka zarretan geroago ta estuago.

Aurrerago aitatu dodan, gozotasunik bageko goiz-aizea, usai txarreko eginda. Agindu garratzak ingurutu gaitu, eta buruak makurturik eta amets guztiak ondaturik, lurrerako bidean jartzen gaitue. Bai jarri ta bai sakoneratu Duesoko espetxe bildurgarrira.

Itxasontziak ur barearen azalean laga, ta oñak lurrera jarri genduzanerako, gizon-areriozko uztaiak inguratu ginduzan, eskuetan izkillu bana ta garrian dindiliz beste banagoaz orniturik egozan.

Aurrera goaz espetxerako bidean. Buztarripeko abere nekatuaren zankada astuna ta baldarra ikusten dot ingurukoetan. Soñak zuzen, bekokiak goian ibilkera txairo ta begitarte irriparretsuak be gitxi ez-tira.

Bagoiaz ba, aurrera espetxerantz, eta onetan, andrazko batek, urreraturik, euskotarrak garen itaunduten dausku. Baiezkoa entzun dau, eta arpegi maskalduan gozez ta atsekabez sakoneratuta dauzan begiak iturburu biurturik bidebastertu zan. Ez-taki norantz egin, ezta zein bideri ekin, eta an gelditu da bakar ta negarti lurra etzantzeko deitzen eutsan gorputzari eutsi eziñik.

Dueso-ko ormartea

Etxe onen orma sendo, burdin-esizko leio ta ate indartsuak eztira gizonaren biotz-nasaigarriztat egiñak. Lagun bakarrarentzat antolatutako gela bakoitzean zazpi gizonezko. Burdiñezko ogea azur uts, gai bardiñeko araza txikia orman josita, ipurdi beteko maia lurrari tinkatuta; oneik ziran illa bartzuetan begien aurrean izango genduzan erredixak.

Gizonaren zeregin bearrezkoak egiteko ez genduan irolarik gelatan, eta zio onegaitik goizero idigiten euskuezan atek, zeregiñak egin eta albait azkarren tokira barrero.

Janaria oso zan urria, zazpik jaten genduanagaz... poliki asetuko gintzazan iru. Gosaritzat txokolate murturtxo bana edo akeit itxurako burruntzalikada bana salda gorri-baltzizka. Bazkal-aparirako txoleteko indaba umatua ta ogia neurri urrian.

Jateko ugaritu bear genduan zelan edo alan, gosea il bear zan bizi gura bagenduan, eta goizean atek idigiten euskuezanean ura eroaten genduan gelara indaba-txolet utsituetan. Gure aurretik emen izan ziran giltzaperatuak laga eben txiz-ontzian, papel-muturrakaz sua eginda, bero-epelduten genduzan, urtsu-urtsu, indabak, bai-ta txokolate saldatsua egin be. Era onetan epeldu ta laztantzen genduzan eztarri urdail, sabelak, 10gn. gelako zazpi gudari doakabeak.

LANDAJUELA, Anton, XI.



Arrapaketa

Egun baten, eriotz-epaiaren astuntasunik oraindik nabaitzen ezgenduala, sartu barritan, izkillundun gizonezko bi jarri ziran barrurako atean begitarte ilunez barruratuteko dei egiten euskuala. Zelan sartu, alan arakatu ta kendu; diru, ezkon-eraztun, samako dominak, ordulariak, idazkortzak, aitzo, supiztugalluak t.a., etxe-koandreak ollo ila izten dauan lez itxi ginduezan luma barik.

Banaka ta binaka sartzen gintzazan. Atzeratuak aldi geiago be ba-eukien-da, baratzeko lurra atzaparka atxurto, al ebezan gauzak lurpean ezkutatu ebiezan, baña, dana zan alperrik. Urrengo goizean, gure arrapatariak baratz guztia atxurto eben emaitzik onenakaz otzarak betetzen ebezela.

Zorriak

Sinistu ezineko zorritzaren jaun ta jabe egin giñan egun gitxiren barruan, eta luzaroan be ezin astindu ta uxatu genduzan aldetik. Eun ilten genduzan tokian, lareun biztu edo jayoten ziran; zomorro pizti naskagarri oneikaz bekañetaraño bete gintzazan.

Italiarrak eta españarrak

Bustarripetu ondorengo lau-bost egunak, españarren estul garratza entzun baño len, italiarren menpe emon genduzan naiko azkataunaren erdian, ika ta adarra joten itzeginik alkarrri. Azurbaltzak oneiri txanda artu eutsoenean, ostera, eguzkiaren argi ta beroak makalagoa irudien aurrerantzean, eta izar-

tegia laño mendi baltzez estaldu zan urteetarako. Egun gitxi areitako italiarren nagusitzapean meza eder bat izan gendun abade espetxeratuak esanda.

Goiz baten onein agotik urtendako albiztea zabaldu zan, bai-ta garatu be (Italia-rren agotik): «Guda-landara dei dagizkue, bagoaz. Españarrak jabetuko dira zuen emen egoteagaz. Ezegizue arpegi larririk agertu. Gudaren daunbada-otsak ixildu dira zuontzako. Eskuak odol-orbanduta eztauzanak bakea izango dau eta etxera joan al izango da».

Ondoege genkian, zoritzarrez, españarren eskuak latzak eta baldarrak izango zirala gose-egarriz makal-epelduta ziran giñanontzat. Alaxe gertatu zan.

Aldendu ziran ba, biotz-samur, gure lenen-jabeak, eta Jaungoikoak bakarrik neurto eikiazan nire biotz artegetuaren taupada ikaratiak. Nor ez zan dardar-ikaratuko txanda artu ebenen begi-inguru baltizkiak, gose itxuraxko arpegi tximel, mutur zorrotz, ezpan ganeko sagu-bizar, belarri aurreko ule-erpe luzea, gorrotozko begirakada ta eskuetako idixil-makilla jolastaria ikustean! Gizon oneik espetxe-barren-zaintzaleak ziran, eta edurteagaz

egaberek baño ugariago ziran ate, orma ta ingurumarietan uztaya egiten euskuen «guardia de asalto» izenekoak. Gorengo etxoinean gengoanentzan naiko zeregin zan oneik eta kanarias-dik etorritako gudariak leio-esi zear barrura jurtiten euskuezan berun-koskorra igeska ibili bearra. Eskerrak leioak goi zamar egozala, bestela Arratia-rren izkuntzan, «an trageuko ginduezan».

Onein azpian jarri besterik ez, galdu zan gure ormarteko askatasun neurtua. Zigorkadak, bizkar-saieti berotuteak, ostikadak edur-matazako baizen ugari, maramara. Gorrotoak zabaldu eban, geiago ezinean, bere ego etoyak. Lapurketak, lenengoak ondo antzututa itxi genduzan arren, oraindik bizi ziran. «Gorrien» naruzko jake ta onetako onak begi-onez ikusi ta begiratzen eutsoen, bai-ta, lotsa gitxigaz eroan be eta okik egin gabe jantzi.

Guardia de Asalto -bere biziko izena- asi zan ba, makurkeririk makurrenak egiten, jayotxetik ekanren berezko lapurketa-gosea asetzen, iñorenagaz jabetuz kontzientzi baltzaren egarria ilten, begi arrapalariai atsegin emoten. Diru usaiñik zan lekuan eskua sartzen. Lenengo ekitaldian amuari

igez egindako arrañak (ordulari, eraztun, domine edo beste edozer gogoko) kolkoratuten.

Salobarri oneik gose zorrotza eben aldean, jayotzatik, eta apika, gazte ziranean irakatsi onaren bidez gizendua, lapurketa.

Erpetarteko olloak ondo lumatu barik jatera etzegozan, eta lanari pozez eta gogotsu ekinik, otzara barriak bete ebiezan, zabalak eta sakonak, naruzko jake naiz beste edozelako soin ganeko berogarri, ikusten ebezan itxura oneko oñetako ta abar.

Berunaren laztan garratzaren eriotz-arpegia mendian ikusten eben gudari errukarren azken-lagunak (apaizak) be arteko genduzan gizon-iltzalle borrero gizan.

Meza esateko gaiak, arre naiz zillarrezko, mendirik-mendi, arrurik-arru, sasitarte ta atxarte ibili arren txukun eldu ziran baitegi onetaraño. Baña emen, ormatartean, bigarapen txikerrenik be ezeben izan txori pitx-lapurrekandik. Kendu gogorkeriz ta amorrus eskuetatik eta nastuak izan ziran len lapurketako gauza guztieakaz, burdin zati zar ugertuak izan balira lexe.





Egunkari ta aldizkariak ezeben barrurako biderik. Inguratuten ginduzan ormatzar arritsuaren leyo ta zulo bakoitzean gudaria ta izkillua beti gertu, eta ate nagusian bi, sei edo amabi onako. Etxetik bialtzen euskuen zer guztia arakatu bear izaten eben, ixillekorik ezin sartu, baña, plakadun zuloen bat zabaldu zan eta andik sartu zan guzur ta abarrez lodi-lodi egindako izparringia, eta ona emen berak azaltzen eban ataltxo bat: «España-ren aurka guda egin daben gudari euskaldunak oker egiña autortu ta damaturik, gogo onez ta biotzez emon dauskuez soñerakorik onenak, ainbat eta ainbat diru a. ta a. España beroñarritu, jaso orañarteñoeko ezinetik eta zuzentasun-bakean guztiok pozez izan gaitezen». Txerren zar maltxurren artean iñoiz izan eta-da, Patxi korotz-zaleetan dagon narrukeria ta zurikeria? Dana da guzurra, guztia mokola.

Gure dirua, Euskadikoa, «ez zan ezertarako gauza». Soñekoak «zorri-abi», baña lapurreta aurrera, beti, eta askoren artean eta onarte azaldukoai beste bat ezerrik, au bere azaldu nai dot. Gabeko txanda artu eban espetxezaña soñeko prakak bakarrik eukazalako edo..., emen dator nire aldame-

neko gelara, idigi dau atea, barruratu da, ta, saga artaburuagaz bezela, eskuan prakakaz aldendu zan.

Arri gogorraren ganean etzunda egon zan prakajabea gaberoko barren ikarak jota, lo etzegoan, lo-itxuran irudian ezer esateko, baña, ausarpenik ez, ezta eztul egiteko be. Guztiontzat legezko ordua eldu zanean jagiteko, aurkeztu zan, orraitio, lapurra baño nagusiagoarengana erdi makur ta atorraren barrenari berantz egiñaz, eta, alako atxurrik! **itz** erditxo bat esan barik emon eutsozan prakak bere jabe erdi bilutsari.

Beste izparringi baten ataltxo bategaz jabetu gara eta emen dabil ezkurik-esku, eta aita-semek agertzen dira. Aita da idazlea. Berak diñoandik balitzake bere usteetan aingerua izatea. Nire eretxiz oster, goiangerua, baña...odol-egarriz bizi da. Zeruetatik etorritako aingerutxu au Bilboko Larrinagan euki dabe “gorri txarrenak”, lotsa bako txarrak, eta zer edo zergaitik barruan izan bada be, onduta atera danik ez-dirudi. Ontzi zar bana emon ei eutsoezan janaria artzeko, eta lotarako zorritzak joitako estalki-berogarri bana, onein ordezkotzak lana eskatzen dau su-izkilluentzat, gizon-aragia



ta odola lurrarentzat. «Desperdicios» izenordea jartzen eban idazlanaren orpoan, au dogu «Banco de los Pobres»en asmatzallea. Askorentzat zeruko gorengo txoria, baño niretzako, bere lanak ikusita, gogoko eztauan lagunaren gibel ta azurrak begiak itxi barik jango leukezana.

Zikiña, zarra ta txarra zan lau egodun goi-aingeru aita- seme bikote onek artu ebana Bilbo-ko Larrinaga-n. Zerbait zan. Zer eztegu esango guk, agoko ortzak eta atzazkalak izan ezean guztia kendu ba-dauskue, urdallari ta sabelari txera egiteko gure aurretik ziran giltzaperatuak itxitako pixontzi zar, zikin, atsituan janari naste-borraste saldatsua egiten dogun ezker! Gabeko etzanalditako (lotarako) arrizko bee gogorra sayets eta azur bigungarritzat, eta, berogarritzat, otzaren dardar-ikara baretu eziñik ondoan gendun laguna. Mikel goi-anguruak, Euskalerra-ko zaindariak jarriko ba-leuz bere aztakiñaren alde bakoitzean “gorriak” eta “zuriak”, zeintzuk egingo leukie gora ta zeintzuk beera? Josepeteko landan alkartuko gara artzak eta ardi-narudun otsoak, itxaro daigun ba.

Urrillak 5

Epaietak asi dira, eta ogei-ogeta amarreko taldeak moltzotuten gara epai-maiaren aurrean.

Epalleak, zertan esanik ezta, Jaungoikuaren ize-neko begirakada zorrotz-otzak. Bekokia tximel-ilun, biotzean indarraren arrokeria, odol-egarria. Talde bakoitzean ekinaldirako gertuta izaten eben barri-lapikoa nekatu ta ustuten zanean, tokiaz aldatu egiten ziran zeregin barriak arturik, eta batzuentzat aita errukior agertu zana, beste batzuek txerren zital salatari, sugegorri iguingarri. Ezeuken gure zer entzunik, eurak egin ta deuseztu, ezpanetan bitsa, itza ta aparra, zerurantz begiak biurtu ta aginduak Jaunagandik artu balebez lez, ta eskuagaz paparra estuturik eriotz-zapi baltzagaz estaltzen ginduezan. Azken-mallako zigorra zan.

A zan, a, milaka gizoni errez ta pozez eriotz-atea zabaltea. Arrotzen indar keria ontzat artu ezgendulako, jayotzatik gogoz eta biotzez maite gendun Aberria (Euzkadi) zaintzeagaitik, Urtzi Deunak emondako bizitz-neurria laburtu euskuen, Urkamendian edo suizkilluz ilteko aukeratuak izan giñan, eta lotsaz eta bildurrez txiro, ta indarrez arro ziran jaun kementsuak, buru ganeko egur igarrea unteze josita dindiliz zegoen Kristo gurutzatuaren azpian zegozan, eta Kristo-ren eredu egiazkotzat autortzen ziran gizon txatxuen azken-berbak, au izaten zan il, il, eta il.

1935gko gararilla-ren 18an. Ala-en semeak, Hitler-en gudari kristautzarren arerio zitalak, Mussolini-mutillak eta españa-r kristau azal-tsuak alkartuz sortu eben lege barriko katoliku-uskurtzaren biztute ta ondorioak ziran. Gatz, pipermin eta ozpiña nasturik janari gozorik egin ezin ba-da, zelako eleiza jaso ta osotu leike len-txoago aitatu dodazan lau gizon motakaz?

Urria-ren 7gn

Eldu dira itxaroten nebazan eguna ta ordua.

Ogei?, ogeta-bost? Eztakit ziurtasunez zeinbat izan garaen inpernu-txakurren aurrera aurkeztu garaenok. Goi-mallako itzen astuntasunak, ostera, belarrarian ondo jo nau, makurtu nau eta luzeroan izango dodaz gogoan (bizi ba-naz) berba bi oneik: "il" ta "eriotza", "eriotz" eta "iltea".

Amaren epeltasunik barik aziko biotz usteldun txakur odol-egarperak, Aitor-en ondorengoentzat, guraso eskaldunen semeentzat, begirapenen izpi pitienik ezeben izan. Gure bizia, osasuna ta eriotza, ta, aizearen agindura dantzatuten dan zugatz-orri tximela bardiñak ziran, lur onetako zeregiñak amaitutakoak, baña guk ezgendum uste bardiña. Beraz, ez gintzazan koldartu ta makal-indargetu, irriparretu ta erdi jostalari jarraitzen gendum alan zalakoan, luzero jarraitu ezpagendu be era onetako izatean.

Gau-zapelatzak gosetu dira. Txita, ollasko noiz gizon-aragia jan, bardin dautsoe, eta, badaroaden lenengo gizona eriotzara

Manuel Egidau dogu bearau, Portugalete-ko da. Perezagua izeneko gudari-taldearen burua.

Gizon onegaz artu-emonik eneban izan, eta, eneban ezautzen bere barren-gogoa. Entzutez nenkian abadekia ezala, eleiz-zalea bez, baña eriotzaren garratzak eraginda, Jaunagaz bakeak egitea erabagi eban. Eriotzea etxeko izango dogu aurretantza.

Aldiaren joan-etorriak urillaren amaboskarren eguna dakarsku. Giltz eta morroilluen kirrist-karratzak entzuten oituak gagoz, baña turuta-otsak eztirudi betikoa, eztau oyartzun bardiña. Aizaren usaiña be ezbardiña da, goizak ixilagoa dirudizku jakuz.

Giltzaren laguntzagaz morroilluak atzerakada egin dabe, atek iñoiz goizago idigi dira. Gizonen eskuak katek lotuta alkartu dira. Munduari agur egiñaz doaz eriotzari paparra emotera.

Goitik burutik asi da ayotza lan garratzean lurra gizendu gurarik. Azkue-tar Erramon. Eusko Gudaroste Burua da aukeratu dabena. Amairu lagunnen erdian eroan daskue betirako, atzerriko lurraren ongarrri, arraren janari.



Euskalerriko ortzia azken-aldiz ikusi dabe, urrinetik. Jayoterra lur maiteari mun egiteko zoririk ezta be izan. Eta Euzkadi-ren azkatasunatzaz egindako amets sakonak an jarraituko dabe, gizaldien gizaldietan aragi ezereztuz igar ta billuts iraungo daben azurren lagun ta adiskide.

Agur, Azkue, ta ondoan dozuzan euskal-sembulartsuak. Agur gudari zantsu, kirio indartsu, arrotzen igitarpean burua makurtu bear izan dozuen oi. Eguzkiaren bero-galdak, kaskabar eta aizearen ekiñak eztira izango naiko, alperrik izango dira muker eta setati, Euzkadi-ren azkatasun lorratza atzindu ta ezer-etzuteko. Borreroen aizkora pean galdu dozuen bizitza abertzaleak emaitz ugaria izango dau. Ezgara epelduko. Euzkadi bizirik iraun-arazoten aleginduko gara. Ezta ilgo.

Il onetan (urriaren 11 ta 12an) jatsi ginduezan goiko gelatatik berengoetara. Eunkadak giñan, ezgenkian aldaketaren barririk, zertarako izan zan.

Urrengo egunabarrerarteko arnasa geunkan. Urzti Deunari eskerrak, baña, geldi egoteko agindua emon eutson eriotzari eta ezaban lanik egin. Lurraren ongarriztat aukeratuak izan giñala, zulo sakonak gertautu zirala ta ekaitza oraingoz baketu zala, erritik, Santoña-tik etorten yakun abadeak

iragarri euskun egunak geroago. Franco-ren artaldeakoa irudian, sartuteko ta urtetako, atea zabalik ebazan.

Gure balarrientzat etzan alboka-soña eztsuririk, ezta txistuaren gozotasun zolirik, bai orraitio, biotzetik ezpanetara bitarteko arnasak uguziten ekian «ai, ama» mamitsu entzun eziña.

Bagien atsegiñerako be ezgenduan margo ezbardinik, ez-ta pitxi dizdikorrik. Guztia iruditzen yakun bardin samar, ilun, baltzizka, surrean joten ginduzan aizeak barriz, aragi ustelaren kiratsa.

Eskerrak emotera beartuta nago barriro be zeru-lurraren Egillea-ri. Zer izango ete zan gutzaz Kristo-ren jarraitzalle barri, bakar eta zuzenen atzaparretan izan bearrean Judioen buztar-edekaz lotuak izan bagiña? Eztakit zer-nolalakoak diran Kristo gurutzatu eben semeen semeak, baña berbak agoan ondo beroto ondoren diñotana au da Judioak maiteago dodazala. Eta sugedorriak sama ta lepoan kiribildurik bizi gurago neunke espanya-rreren ezten gorituaren sastadak barriro ezautu baño.

Albiste bat txarra zabaltzen ba-zan, urrengoa gaiztoagoa izatea zan. Erletegiko zurrumuruaren antzerako zerbait errotu zan gure belarrietan, barrua artegatu, ta, alako kili-kili artegea sortzen euskuan



soñu motela zan, eriotzaren deia. Jaungoikoa go-goan, eriotzaren soñua belarran, aberrimiña biotzean, gabaz lorik ez eta egunez amesetan, era onetan emon genduzan urteak iru espetxetan: Santaña-n, Bilbo-ko Larrinaga-n eta Burgos-ko nagusian.

Azken-agurra

Azkue ta Markiegi etziran aiztu beste ilketa baltzuetarako bizirik gintzazanokaz, eta ingi-orritxu bat bialdu euskuen, ezkurik-esku, esaten: «Ez izan bildurrik. Alegindu zaitezte biozdun agertzen, ago baltzdun izkilluen aurrean, eta gorrotorik ez izan ñorentzat».

Ago baltz eta min ustelez uguzitako berbak be emen dodaz, gogoangarriak dira: «Vamos, hombre. Dese usted prisa que ya va perder el tren, y para nosotros seria una pena». Gizon madarikatu oneik eta oneilakoak dira España barria, zabala ta andia, baketsua ta zuzena egingo daben argin kristau katolikuak.

Mamorroak, zorriak

Nire etxeok ezekien nondik eta nora nenbillan eta non nintzan. Zorri-landa biurtu nintzan oñetatik burura. Soñekoak atsituta, garbiketarik ezin egin, idaztea galerazota.

Baña... tira. Nonbaitetik eta norbaitengaitik albiztea izan eben bizi nintzala, ta non ta zelan nengoan. Laster bialdu eustiezan soñerako garbiak, tartean etorran orri-mustur eskutuan urrengo goizean soñeko zikin zorritsuak kanpora bialtzeko esanez.

Bialdu nebazan, bai, ta ain ziur nintzan ilgo ninduela, orri-mustur bat bialdu neban soñeko tartan ondo ezkutatuta itza oneikaz: «Agur, amatsu. Eztaikit noiz arte, epaia beteko ba-litz, goiko zeruarte».

Amari bialdu neutzozan barri ta agur larriak andragei neban nestatillaren belarrietan ots egin eben. Tartean, idatzi dot kanpoken laguntza artzeko, atea idigi zan apurtxuen bat, eta...ona emen non yatortadazan eskuetara idazki bi, bata ta bestea oso pozgarriak. Amak, biozdun izan eta Goikoari otoi egiteko esaten eustan, andra-geiak argazki bigaz bialdu eustan, otoi egiteko aginduak emon eta indar barriagaz sutu nindun.

Bein batari, bein besteari, amaika begiratute sakon-zabal izan nebazan argazki bakoitzarentzat.

Gogoaren begi bategaz lorategi usaintsu politenak ikusten nebazan urrineneko etorkisunaren orpoan. Besteagaz ostera, ondo bako zulo sakonak, ilun-baltzak, illerriak, eta gurutzak, eta beti ta beti, bigarren ikuspegia nagusi.



LANDAJUELA, Anton, XII.



Berrogetabost

Eztakit zein gaba zan, baña berrogetabost azur, mami ta azalezko, biotz, arnasa ta ari-madun gizon ziran bigaramon goizean ilteko batu ta pilotu ebezanak, gosez ta ago-zabal ziran zuloak janarituteko gizon-aragiz egunsentiko argiak gabeko iñontza lurrundu ta ezereztu baño len.

Ateak erdian eukan orratz-burualako zulotik begira nengoan zeintzuk ziran, eta adizkide maiteen bat arteko ete zan. Guztiak ezin nebazan ikusi, baña batzuk bai oster, buruak makur, oñak inderga ta gorputza ikaraz ebenak. Bai ta, burua gora, paparra aurrera, irriparez arpegia ta ibilkera txairoz jua ziranak be ezkon-ezteguetan ikusten doguzan lakoak.

Gu, baña, 10gn gelako 7 lagunok, eta batez bere ni, dardar, bizkar-azurretik otzikara gora-beraka ta lokietatik izerdi-tantak mara-mara nabaitzen nebazala, deiaren zai.

45 onein artean ba-ziran Patxikiloren alderdian izandako gudariak, ixil-mixilka igez egin eta Euzkadiren alde jokaten etorri eta jokatu ebenak. Oneik euken orban eta oben berbera neukan neugaz.

Mendi batetik bestera igez egindakoa nintzan 1936gko dagonillaren 19gn gabea, Erlaiz deritxon mendian, Irun eta Enderlazako erdian, Ego-Euskalerrian gabaren estalpeak lagundurik. Diñot barriro be, igez egiña nintzan txapelgorriak atzean itxirik, sasi-otarteetan barrenak urratutik, izerdi patsetan, izkillua gerturik

besoan, ogi-kuskur bi zakel dindilizkan, ortzi izartsua goian eta troka latza oinpean nebalarik. Biozkadaren barrenak egin eustan deiaren erantzuna agertu, besterik esan izan nik egin nebana, gogoz eta egitan agertu nebana.

Egin neban aldaketa, baña, arerioaren uste makurrean, Jaungoikua-ren amar aginduak betean eta bat-batean austu ta oinpean ostikotutea baño oben eta uts-egite lotsa gabeagoa zan, eta, onek estututen nindun lau alderdietatik. Baña eguzkiaren izpietatik bastertuta neukien jauntxo indartsuak ez takite nire lenaren barririk, eta onek gaizkatu nau oraingoz.

45 gizon oneik batu, eroan eta lana bukatuta izan zalakotan, arri otzaren ganera makurtu ta etzun nintzan. Loa, garestia zan beti lez. Amets astunak eta ariñak mustur-jokoan, biotza taupada gogorretan

Barriro entzuten doguz oin-otsak, bakea ezta loratu, eta atearen aurrean doguz saierreak txutxumutxu.

9grn. atearen zuloan sartu dabe giltza, idigi ta dei

dagie, eztabe aurkitu gizon gaixoaren lorratzik. Non ete da ta nor ete dago? 10gn gurera datoz. Giltz eta morrolluak kirrizkatu dabez. Ikarazko dantzaketa dogu soin aulduetan, eta dei dagizkue irain eta gorrotzoko arpegiak azaltzen dauskueza-la. Billaka ta aurkitu gurarik dabiltzazan morroskoaren izena emon bearrean, geureak eskatzen dauskuez bana-banaka.

Oraingoan be ezkara onein janari gozoaren arteko, eta agin zorrotzak zorrotzago eginik aldendu dira, gu, barriz, bular-auspoa aize-barritu eta kuku-loa egitera.

Beste bein, gabeko amarrak aldera, bakezko gaba zalakoan giñan. Oin otsak geroago ta urrerago entzuten genduzan, eta artezean eta zuzenean ona emen non datorren atera piti bat ardaututa egoan zori txarreko balarriandi, mukulutxoa besapean eta zer edo zer alde bakoitzetik idatzita zukan ingorria eskuan ebela.


Mukulua etxekoak bialdua zan eta erritar batek ekarria. Orriaren alde batean nire izena eukan idatzita, bestean Santoñaraño etorri zan erritarrena.

Dardar-ikaraz eta barru-barrutik ixil-mixil mundu oneri agurka asiak giñan, aitatuta dodan mukuluagaz etorri zana, barriz, orrian eukazan izenakaz asi zan.

Asi zan ba irakurten, baña, andaluzitar izkuntzaduna zalako atean geunkan gizon au, abizen euskaldun euskalduna zalako begiakaz ikusten ebana, txurrut eginda egoalako edo amaika izkidun izena zalako ezin eban uguzi. Jose Maria esaten eban bakoitzeko mingaiña koropiltzen jakon, "Iruarrizaga" ezin eban uguzi. Jose Marik gure artean ezegola esan neuntsonean orriaren beste alde ipiñi eban begipean, eta ni nintzan gizon arek bear ninduna, zorionez, baña, ezan izan oraingoa be azken-gaba.

Erakutsi eustan ba, espan artetik atera ezin eban berba. Erri batekoak eta ezaunak giñala autortu neutsan, eta besterik barik emon eustazan eskuetan eukazan emotekoak, Jose Marik, Santoñan eskuratu eutsozala esanez.

Jose Mari, Larrinaga-n egondako txapelgorria zan «Caballero de España» zan. Ate ta bide guztiak zabalik egozan beretzako, eta seme espetxeratuen gu-





raso atsekabetuak txapelgorri onegana joten eben senar, seme ta anei-arreben barriak jakiteko. Ezin esan dot J. Mari onek ondo ta zeatz ala txarto ta meatz betetan zituan aginduak, ondo dakidana da ostera, polito orraztuten ebazala gure gurasoen sakelak, «berak bakarrik egin eikiazan mesede andiakaitik».

Iruarrizagak Arratiatik Santoñara, eta Santoña-tik espetxera espetxe-zaiñak ekarri eustazan gauzatxoak, idatz-gaiak eta kebedarra izan ziran, eta autortu bearra dot, lenago ta geroago be ezkenduala erre bedar gozoagorik. Ke-zurrutadak orpoetarañoko bidea egiten eben. Bularrak txikiegi egin jatazan gura gendun beste arnasa iruntsiteko. A bai zala asetasuna ta nasaitasuna. Une labur bat lenago ludi oneri agur egiteko uste osoan gintzazanonok, bedarrik gozoena erretan gagoz.

Argia

Lotarako orduagaz bat-batean argia amatetan euskuen, eta baratzetik zetorren epertargia lakoxe ar-

gi-erreñua izaten gendun laguntzat gaba baltzak uxatzeko.

Oitura onek be beti ezaban iraun, eta larritasuna gizendu ta egon eziña andiago egiteko, bi edo iru aldiz biztuten euskuezan. Eta jakiña ba, biztualdi bakoitza aginkada egiten zan osasunarentzat, eta amatau edo itzaltzen zanean berba oneik esaten genduzan 10gn gelan: «Onetsia izan bedi Jaunaren Seme Josu».

Ikurriña

Goizean-goizean jasoten eben aga luzearen go-rengo musturrena, illunabarrean jatsia izaten zan. Onetarako, guretar morroi batzueri dei egiten eutsoen ikurriña eskegiten eben tokira, besoa goratu ta «Arriba España» esan arazo.

Goiz batean, goizeko eginbear au betetan ebenen artean, bazan gudari giltzaperatu bat ustel itxurako zauri gordinez beteta. Min zorrotzak jaten eutson gorputza, bizi baño il gurago eban, eta «Viva ta Arriba España» esan bearrean, «Viva la Republi-



ca ta Gora Euzkadi Askatuta»z erantzun eutsoen. Eldu besotik, bultz emendik eta ostikadak andik gelaratu dabe bakarrik.

Biaramon goizean oiturari jarraituz, ikurriña goratu bear zan. Deitu dautsoe atzoko taldeari ikurrin-eskegi-tokira «Vivak eta Arribak esan arazoteko. Euskadi ta Errepublika goratu eban gaztea be emen dago ikurrin-agearen orpoan taldetik bakar-tuta eta tinko jarrita Patxi saguren izkilludun gudarai arpegia ta paparra erakutsirik.

Ikurriña agean gora doa aizearen aginduz igitu ta jolas eginik. Turutak ots dagio, oiartzunak aizea urrutuz igeska doaz. Gogorik barik eta inderga jasota dagoz bero ta eskuak. Izkilluak zabaldu dabez ago baltzak, eta daunbada astunaren otsagaz batean jo dau betirako oinpean daukan lurra zauriz eta oñazez izan dan gazteak. Izkilluak ok egin dabe, utsitu dabe sabelean izan daben edena. Utsitu dabe, baita, gizonaren soñean arnasa ta bizia. Il dabe (G.B.).

Berunbil-koskorak bulartegi bat geiago zulotu dabe, gazte zauriduna lurrera egotzi izan da, lurra gorritu da odolez eta aizean egazka doa odol-lurruna. 61gn izan da.

Janaria

Aurrerago be zerbait aitatu dodan arren, argi pitin bat geiago emoteagaitik eztoz uste begiak naskatuteko izango dala ta, aurrera egiten noa.

Gosaritzat akeita deitzen geuntzan salda ilun-baltzizka kikara baten neurrian, au ezbazan, txokolate koxkor txiki ta urrian.

Eguerdian txoleteko aragi ta indaba umatuak. Lagun batentzako egiñak ziran txolet-janariak laurentzan emoten euskuezan eguerdirako ta aparia egiteko txakur biko ogiagaz lagunduta.

Jan barik biziten ikasteko bide zuzen onegaz azpeltu gintzazan eta, erabagi barria asmau gendun, egunean batek edo bik egin sabelkada, besteak begiratu ta itxaron txanda etorriko jaken arte. Baña nor izango zan bizirik iraungo al ebana iru edo lau egunean barau osoa eginez? Eziñekoa zan. Eguneroko janari urriagaz gosez ta albo-alboka larrian zutik egon ezin-ta bizi ziran azalpeko azurrak zelan iraun eikian bizirik txanda etorri arte? Ez, ezin gendun egin olakorik, ikasi zarragaz jokatu bear zan, periko txiz-ontzian epeldu ura (zenbat eta ugariago obeto), umeak amaren titia bazen maitte genduzan jatekoakaz naste-borraste egin ta jan

edo edan, bein beratuta, bein gordin-epelduta.

Tilliztak (lentejak)

Tillizta apariak be izan genduzan. Eta bein, errikide, auzokide ta umetatik adiskide ta ezegun giñan Fernando Eguileorrek aterik ate emoteko ekarren ontzi zabal-sakonetik goiko ertzeroño bete eustan aurrean jarri neuntson txoleta, ta, a zan jatea ko-txoakaz arduratu barik. Ondoko lagunak Aitaren eta Semearen egiteko aldi laburrean iruntsi eben bakoitzak berea, ta zearka ta bekaitzez begira diarduen nire jatera gogotsuari. Ba nenkian txarto ta narrugogorkeria zala nire jokia, ez emotea niretik lagun goseari. Gosez ta lotsaz, arpegietara begiraturteko kemen barik amaitu neban txoletekoa, lotsagabekeria egin neban, gosea zan nire agintari.

Azkarate ta Azpiazu

Gizon bi oneik adin andiko ta goi-mallako militarrek ziran, lenengoa erriojatarra, bigarrena Bizkitarra ete zan nago. Neurri txikerreko aparia izan arren, ezeben jaten artzen eben erdirik be. Ni bizi nintzan atearen aurretik igaro bear izaten ziran ontzia garbitzera, eta eizariak erbiari legez itxoi-

ten neuntsoen atearen aurrean azpilean zekarzen xaborra-ondakiñakaz nire ontzia bete ta bigarren aparia egiteko. Beraz, tillizta-aparia izaten gendun egunetan, nire eztegu-eguna izatea zala esanbearra dot.

Apaizak eta jaupa (mesa)

Ba-genduzan arteko, gudari zaurituai azken-arnasa larrian laguntzeko mendirik-mendi ibili ziran abadeak. Baña katoliko, apostoliko españarrakaz abadetza egiteko eskubiderik ezeuken. Españarren Españako aita santu españatarren baimenduna etortzen jakun jaupa edo meza esatera.

Mezak ez ziran esaten igandero. Agintarien gogozko egunetan izaten ziran eta onetarako eguna etortzen zanean, nai edo nai ez, guztiontzat izaten zan, sinismendun eta sinismen bakoentzat. Gure jauntxoentzat bardin zan txerrenari otoi egin naiz Goiko Jaunan biraukaekin. Francoren katoliku-lege barriaren itxarkundia zan.

Bein, kanpoko apaizak meza esaten eben artean, etxeokak, barrukoak agurtza otoi eban meza emollearen ondotik, entzuleen erantzuna artzen ebala. Amaieran Aita gurea esan zan gure lagun ildakoen



alde. An izan genduzan nagusi jauntxoak belarri onez ezeben entzun gure ildakoen alde esan zan otoia. Eta guztia amaitutakoan abade otoilari ga-xoak nagusien aurrera aurkeztu bear zan eban, eta tinko jarririk bereak eta bost entzun zituan.

Modako katoliku barrien arteko eleiz-arauak ezeben ontzat artzen gudari ildakoen aldezko otoitzik. Esan eta aitaturako Aitagure bakarragaz amaitu ziran agiriko otoi egiteak.

Beste arlo bat

Gorrotoaren egoak zabalagotuten diardue il, eta bizirik eskegi ezean, eztakie zer asmatu narrua eratziteko, eta etxetik bialtzen dauskuezan soñeko garbien tartean datozen ogi-koskorak kentzea be ondo deritzaie.

Iruen bat illabete emon genduzan era onetan, arantzatik atara ta otatik arantzara, zeñien estenkadak zorrotzagoak ziran ezgenkiela.

Egun birik baten urtetan gintzazan ormartean zan baratzera zorriai astinaldia emotera. Eta bein, barrurantzakoa egitean, sarrera ezebala egin bera zan lez ta, narrua illundu eutsoen galizair gazte bateri. Geroago, Bilbora ekarri ginduezanean, Derion il eben.


Aldakuntza

Azillaren 22gn da. Nonbaiterako bidean jarri gaitue. Non, noiz eta zelan amaituko dogun eztakigu. Santoñako itxas-ertzean gagoz izkillu ta begitarte illundu gizonez esituta. Len lurreko arren bildur giñanok, arrañen janari biurtuko ete-garan bildur rak jota gagoz.

Era onetan gagozala emakume bi urreratu dira nire ondoan zan lagunaregana norako bidea artzera doan jakin gurarik. Gure erantzuna artzeko eztabe astirik, arranpalo antzerako begirakada ta ezpanganeko bixar zitaldun txankerrak uxatu dauz purrustadaka agobaltzkeri oneik esanez; «Aldendu zaiteze ama ezkongaien alabok, ezpabere, lurrera eratziko dautzuedaz makillaka okorpeko bularrok». Lau iturri sortu ziran lau begietatik, eta aldendu ziran zotinka eskuakaz arpegiak estaldurik.

Ontzira

Eldu da ordua. Uraren ganean kulunka nagian eta diardun: «Serna» izeneko ontzirako bidea artu dogu. 500 baño geiago gara eriotzaren ezaugarria arpegian erakusten dogunak. Ontziaren sabel sakoneraño jatsi gara, eta zelan edo alan, bakoitza al dauan eran, eperdi bete toki egin dogu.



Itxasoa bare dago. Ezin dogu igarri geldirik gagozan ala ibilien guazen. Alako baten, aizea sartzeko goian dogun zulotik nun ikusten dogun. Deustoko zubiaren besoa, ongi etorria emoten lez gora jasota.

Eriotzako orduan ezta aukeratzen toki alai, pozezko ta berezirik, guztia ikusten da ilun. Baña, arrotz-errian baten iltea baño obe da birritan il norbere egiazko aberri maitean, eta, poz apur bategaz jantzi giñan.

Bilbon

Bilbon gagoz. Eguzkia eguneroko ekiñean nekatuta, indar barriaren billa bideak egin dauz, juan da, ezta agiri.

Bilboko ibai ertzean asi, ta Zabalbide-ko aldapan gora andrazkoak geiago dira gizonezkoak baño, eta askoren artean negartiak be eztira gitxi. Bakoitzak daki negarrari leku emotearen zio. Emen datoz ba seme, senar, senargai, neba ta anai gosez arpegi maskalduan begiak sakonduta, belarriearaño zorri aginkadaz urratuta.

Larrinaga

Oraindik argi dago, illunabarra generatuten dator bizileku barrian gagoz, ormarte illuna, goibela ta zikiña, baña etxetik urrago gagoz, aberrian, poz barriaren jabe gara.

Bein bere geiagotan ez nebazala ikusiko uste nebazan errikide maiteak besarkatzeko zoria izan dot.

Izentatu dauskuez txarri-tokiak eta barrura goaz gaba emotera, olloen lotarako ordua da eta 45 gara toki baten eta alkarren ganean egongo garanok.

Bart gabeko aparti-legea egin gendun ezkerre gure agin eta ortzak eztabe lanik izan, eta, au poza! saguak agoan erabilitako ogi-koskorak aurkitu dodaz baraua austeko.

Igazi dan gabak egun barriari leku egin dautso, eta atzo besarkatu enebazan erritarrak besarkatu dodaz lenengo orduan.

Iru illabeteko bixar kirru balzagaz nago. Urkiolako deun doatsuari ikertaldia egin barik kentzerik eztot gura, baña alperrik da, laster baten zuritu daustez bera ta bixarleku.

Ogi-gosez ta barri-egarriz etorri nintzan eta asetua izan naz, batez bere barri txarrez. T. Atutxa, errikidea, abertzalea zintzoa, seme-alaba guztien aitu, erritar lupu-bioz aunakaitik illa izan dala diñauste. Areatzako M. Larrinoa, ta Dimako Atutxak ordain eta bide berdiña izan dabe, Arteagako Abaskalgaz beste orrenbeste.

Azkengo

Dueson baño azkatasun nasaiagoa dogu. Goizetik gaberarteko orduak alkarregaz emoten doguz txutxu-mutxuka, ta ames gozo-garratzakaz orea egiten, azkataun eguna ta Derio gogotik galdu barik.

Geu gara geure burua poztuten doguna. Geu gara illuntzeagaz batera geure buru nekatutean dogune egunerako lor garratzagaz betiko itaunak kolkoari egin; «ikusiko ete dogu bigerko eguna? atzeneko gaba izango ete dogu? zenbat izango gara? t. a.

Ispar onak

P. Solagurennek eta J. Ormatxek – Durangotarrak, Sukarrieta ta Ibaizabal gudataldeen buruak deia izan dabe. Gelakide doguz. Gaba da, eta ordu ontanko deia zertaz izan leiteken «suspertu ezin-da doaz, bata bestearen atzetik izerdi larriak argi egiten dautsoela bekokietan. Besteak barriz, agozabal ta belaun-ikaraz arnasa artzeko kemen barik gelditu gara.

Emen azaltzen dodana gabonillaren 10gn gabeen jazoa da, eta aurreko egunetatik etorran lez zurrumurrua gudari gorri ta baltzen arteko trukea egiteko artu-emonetan ari zirala zenbat amets sortuko ziran gure gogoetan zeruko Altsuak bakarrik esan leikena da.

Ametsak, pozak, esate itun eta itxaropentsuakaz gogozan artean, emen datorkuz lentxoago deituak izan dira, biak Durangotarrak, arpegia poz-ikurri eta eskuak igurtzika. Españarren eskuetatik Españan leporatu eben eriotz-epaia arindu dautsue. Azkatuak izan dira zigor orretatik, eta bizialdi guztirako katepeko egin dira, otsein eta doakabe.

LANDAJUELA, Anton, XIII.



Illak 12

Usain txarreko aizeak putz dagi. Kirioak indar-artega doguz, beste barik baña, il da eguna.

13gn illuntze baltzean aize negartiak bidea zabaldu gura dau lendik medar doguzan indarrak txepetxagotu gurarik. Lortuko dau.

14gn gabak baltzago ta illunago dirudi. Eriotzea gose da. Atzapar luze ta atzazbal makurrak gizon-aragi billa ari dira. Aterik-ate dabil ago zuria janari gozoaren lorratzetik. Atietako morrollo koipe gabeak asi dira atzera egiten, eta barruan zeñentzako deia izango ete dan zai gagozanoi dar dar larria erazoten.

Batzuk emendik, andik beste batzuk, aurkitu dabez, azur edo azal, bear izan daben aparria ajolazkeriz eta bultzaka, ba daroadiez azken gabari agur egiteko gertua dan toki berezira.

42 dira Kristo gurutzatuaren aurrean eriotzaren besarkadaren zai dagozank. Surrumurrua da 7 dirala urkamendirako. Enparauen azken ikarak Derion izango dabe lendik odoldua dagon toki aukeratua eta bizitza ontatik bestera igaroteko zubia. Onein arteko Larrondotar Imanol.

15gn goizeko argi-izpiakaz batean, oraindik lo-bietan gagozala, eriotzagaz burraka gogorrean diñardun gizonaren ai! garratzuak jo gaitu belarrietan. Bigarren erantzunik bagea izan da ai! larria. Danak gagoz ixilik, estakigu zer jazo dan. Gerorok esango dausku zer dan gertatu dana, eta emen datorku geroa.

- Urkamendian izan dan gizonari samazurra estututen izan dautson urkagallua apurtu da. Erdi ilda zan gaixoa kendu egin dabe toki aretatik. Ondoan izan dan sendagilleak indar barriz orritu gura izan dau oraindik arnasa izan daualako. Osotu dabe tramakulu ikaragarria. Lotu dabe samatik barrien barriz, estutu dautsoe samazurra ta gorpu-ondar biurtu dabe ekiñaldi onetan. Urkagalluak amaitu dau bere lana, baña ez betirako, odol-egarriak joko dauanean emon egin bearko jako.

42 onein arteto zan, baita Dueson gelakide neban Galdakaoko Ormaetxea-tar Ander. Etzan agertzen elezkoi, kristau otza zirudi, baña eriotzaren aurrean ezta ezer gogorrik, eta Jaungoiko zale, biozdun, aldameneko zori bardiñekoari indar barria emon eta poztuten igaro eban gabonillaren 14tik amabostera-ko azken-gaba. Ume txiki ta emaztearen senar zan.

Larrañaga Eibartarra be onein arteko zan. Lagunak baño zori obeko ala txarragoko zan gaitz jat esatea. Lagunak eriotzari paparra jartzera joiazan arte, len egin zan gela ta adizkideen artera bialdua izan zan. Onen etorrerako arpegia gaba neketsuaren ondorengo goizean, aiztu eziñekoa izango jat.

Pozik biurtu zan toki zarrera biotz oneko gizonen baten laguntzaren ondorena zalakotan, baña, Larrañagaren pozak neurri mirrizduna zan. Ala iza-nik, dei barria izan eban gabea, oraingoan betira-ko juan zan.

Zelako adorez juaten ziran?

Sinistu eziñekoa bada be, egi biribilla au da:

Ba ziran -banaka batzuk- amari, emazteari ta ume-ri didarka ta goitik beraño dardar-ikaraz izaten ziranak. Geientzuenak, baña, bekokia goian, be-gitarte argi, ezpanak irripartsu, bizarra kendu ta soñeko barriz juaten ziran eztegurako izaten dan aize bardiñozkio, gora ta goraka Euskadi-ri

17gn gabareño eldu gara. Egunezko jolas egiteak, sakontasunik gabeko adar-joteak eta itxaropen gaizto aiztu-gura guztiak gabaren etorrerak, beti lez, zapuztu dauskuz.

Batu ta biribildu gara bakoitza geure tokira. Txu-txumutxu ta keiñuak nabaizen doguz. J. Elorriaga-ren aurpegira begiratzen dogu, au dogu ba barri-batzallea, txarrak diranean bein bere utsik egiten eztauana. Geienok ikusten dogu eta artzen dogu gure zori txarra bakoitzak beretzako. Mataza ari-aren musturra azkatuz doa, amuak badaki zein arrain izango dan beretzat.

Egunak lenagotik erabagi gendun baraurik ez eu-kitea ilteko zana, ez-jakiñean deiaren ordurarte. Baña nork, zelan eta non batu naiko indarrak lagu-

nari esateko, «Adizkide: eriotza ondoan dozu, ger-tu zaitez emen, izango dozuz beriala saierreak-eta».

Beste toki baten aitatu dotan errijo-tar Azkarate ko-ronela dogu oraingo au, eta laster deituko eutsoela ta gerturik egoteko esan eutsona S. Andini Elosegi.


Azkarate beste guztiok lez, gaba igaroteko abitxua gertatuten eragoian. Azaleko gogo jostalaria iñoiz baño ohea agiri jakon, baña noizik beñera era on-tan iñoian: «estakit zergaitik dan, baña susmo txar-rak dodaz gaba onetan». Eta Andinik onango esa-te batean lepoan jo eta diñautso: «Adiskide maite: gogoak ondo jokatzen dautzu, etzaitu saltzen. Zu izan zara gaba onetarako aukeratua eta gertu egon zaitez etorriko jatzun ordurako».

Gizon errukarriak begiak zabal eginda begiratu eutson albiztalariari, eta arnas-zurrutada sakona eginik eta gizontasunaren sena galdu barik, gertu abia ta erdi etzun zan soñekoak erantzi gabe.

Etzun giñan besteak be ta ateko morrolluaren otsaren zai gengozala, emen datoz txori moko ma-kurrak eta dei dagie: «Azkarate!» gorako bategaz zutitu da, gure goibeltasuna ikustean, bera da gure makaltasuna indartzen alegindu dana bera baño gixajoago gengozalako.

Eun aldiz emon euskuan eskerrak euskaldunai ta Euskalerriari ain gizonki aintzakotzat artu gendu-lako lenengo egunetik azkenerarte. Beragaz eroan ebazan samiñen artean, Euskalerria lenago ta sa-konago ez ezautu izan zan.





Egun batzuetan bakea izango dogu, baña bakearen ezaugarriarik iñork erakutsi eztauskun ezker, kez-kati ta prizka larrietan izango gara lo nasai barik orain arte legez.

Zortzireun

800 baño geiago gara epai astunpekoak begi bata-gaz Derio ta besteagaz Prantzia ikusten dagunak.

Legezko agintariak be badabez eperdibaltz lotuak gu be eperdibaltzen morroi ta doakabe garan laxe. Agintaritzta biak, ezker ta eskuma, artu-emonetan dira gudari bitzon arteko trukea egiteko baña bi-tartean gure estutasunak eztau atzenik, ez tximeldu ta ez igartu ezta egiten. Amarentzat, etxeko txoko epelarentzat, emaztegai, seme-alaba t.a., beti dogu leku zabala buru-biotzetan. Nagusi maltzur onein guzur-mezurrak dabilkiguz belarririk belarriera iñon diran iñondikoak esaten: gorrien landako gosegarriak, gaixoak, bizi eziña ta makiñe bat guzur geiago.

Alperrik dabiltzaz ba. Eztabe ta izango bez gure gogo ta biotzak eurakanduteko naiko multzurkeri ta zurikeri. Naiago genduke leza-zulo baltzanean

bizi, suge, kundun eta sierpetartean Jaungoikuaren ordezeko buru dirala diñozkuen onaikaz baño.

Gabon

Urtean danik egunik etxekoienera eldu gara biziari eutsi dautsogunok. Bizkarrean dogun zama arindu gura dogu, etxeari, senide, oiturazko izaten dan orio errea, ilinti bizi ta amaika gauza geiagori leku emonik.

Kristiñau andiagoeziñak doguz jaun, nagusi ta jabe, baña Kristok irakatsitako maitasun ta errukia lagun urkoarentzako, ezta emen agiri. Geu gara poza billatu ta aurkitu bear dogunak. Geu gara alkar lagundu ta maitatuz poza aurkitu bearrekoak. Eta onantxe garratza ta gozoa nastuten dogula, ta ixilka mixilka, Aberriari ta Belengo Aurrari abes-tuten dautsogula gabaren len orduetan, loaren eta amesen besoetara etzun gara.

Gabaren lekuan egun barria loretu da. Kristauntzat egun alai ta bizi-bizia lur lardazka onen zear, eta egunari berea dan giro-usaiña emoteko ainbatzuak dira Jauna artzen dabenak. Bitarteka iru es-kutitz egingo dodaz ixil-bidetik kanporatuteko.



Illak 30. Barri pozgarriak barrurantzako bide idigi dau. Espetxe biurtuta dan Karmelotik 25 errikide gizonetzko-andrazko azkatu dabez.

31gn urtearen azken eguna. Arratsaldean autor-kuntza urteari agur ondo egiteko. Asko dira autor-tu diranak. Gau ontan beste gabetan baño azkatasun piritxu bat geiago dogu, eta edontzirik ezean eta edaririk bez, azpillak alkar jo eta klin eginik geure maite guztien osasunarako ta geure onerako, agin-lanean asi gara abesti ta bertsoz gabaren or-durik geienak era onetan emonik.

1938gn urtea

Amagaz ta berari lagun egitera etorri ziranakaz alkar-ikustea. A. Sautua adiskide miña Españako lurak zearkatuz joiala, gudari doakabez betetako bultzinean il zala diñauste.

Illak 5. Ateak lenen egunetan bazen gogor irauten dabe itxita ta zainduta. Jagoleak, bai alde batetik, bai bestetik, izkiluak bizkarrean, entzumena zorrotz eta begiluze zaintzen gaitue. Baña ezin zaindu dabez zulo guztiak eta ikasi doguzan maltzurkeri asko, eta emen jatost eskurik eskuko M. Urkixoren idazkia, beraren eta giltzapeko emakume lagun barriekaz eta nireak eskatzen.

Illak 7. Aize gaiztoak putz dagi, ortzian odei-ton-tor baltzaz ara-onaka, arpegiak mazkal, begiak lurrera adi. Guztiok dakigu zerbait eta iñork eztakigu ezer. Igitai etxeari inguruak dabil lepoak aukera-

tzen. Sartuko jako barrura: bai. Odol epelaren egar-riz bizi da, eta ezta aldenduko bereak eta bost egin barik. Zenbatzut izango ete gara oraingoan. Nor-tzuk? Ni bere bai? Itxaronez jakingo dogu.

Gabaren illun baltza gizenduz dator eta argiak motelagoak dirudie. Surru ta marruak tajutu ta itxuraztu dira eta ogetakak artuko dabe biurtzerik izango eztaben bide bakarra.

Auzoko atean doguz mutillak, giltza zulotik be-gira diñardut. Ezpanarteko txokor sendoak ketan dabez. Txapelgorriak eta atorra baltzak naste da-goz mairailazurrak estu-estu eginda, ez dot iñor ezautzen eta eztakit zenbat diran be. Biotzaren taupada bixi-bixiak joten nabe bularrean, belau-netan indarra galtzen doakit, ezin iraun dot zutik eta etzun bearrean naz. Aupadarik izango ete dogu gure atean?

Argitu da eguna

Turutak emon dausku goizeroko jagi-agindua. Jan dau goizeak gabak gertau dautsen aparria eta ar-min-artega gagoz zer edo nor izan dan jakin guraz.

Busti doguz eztarri legortuak salda baltzez eta be-tiko tokietan alkartu gara zeñek zein ikusiko edo zein ez ikusiko.

Lagun eta adiskide urkoenari egun on esan eta agurtu garenerako asi dogu goizik geienetako jar-dunaldia: «Nortzuk eta zenbatzuk izan ete dozak? Ezaunik? zuen gelakorik?». Adizkide ezagun mai-

terik eneban galdu, baña 31 lagun izan dira Ur-tarril onen egunsentian begiak itxi ta plaust egin dabenak lur gogorraren ganera, betirako.

Anai-arrebak

Illak 18. Emengo gudaren ilketatik igezka In-glaterra joan ziran iru anai-arreba txikien ikustaldia izan dot. Kantauri itxaso zear ibillibearra izan dabe eta eztabe ezautzen gudaren aginkadarik. Gazteak dira, poztu naz ikustean baña bete-betean ez. Atzerritar buztarrira lotuak izango dira, españaren morroi geiak dira.

19gn eguna. Egun ontako goiza argi dizdiratsua-gaz jagi da. Soñak jolasa eskatzen dausku, ibilkera txairoagoa dogu. Zer da gertatzen dana? Makiña bat ametsen iturburu izan dogun eguna dogu, truke eguna, 37 katekidentzat bigarren jaiotzea. Zelan eta nork nork neurtu onein poz zoroa? Onein artean doakigu Maximo Espinosa (Errero) Arteaga Arratiakoa. Bajoakuz Prantzira. Azkatasun eguzkiak itsutu dau onein billa egunetik egunera ibili dan eriotzaren begirakada zorrotz kupi gabea, eta aize azkea iruntsiko dabe. Goizetik gabera, baita gaba illutzetik eguna argitzerarteño.

Ilbeltza - Otsaila

Il onen lenenguan asterako ikertaldia egin daus-te amak eta izekoak, emaztegaiak, Mari Zuazo eta Martzelina adizkideak be emen izan dodaz. Erritarrak erritarrak egingako bizkar-berotzeak azaldu

daustiez. Narrua berotutakoak osaba Elias, Tomas Zubikoa ta Jose Mari Torreen izan dira. Berotza-llera, J. Mari Iruarizaga (kotxor) txapelgorria. Mu-til onen bizkarazurrak beretarren eztenkada ezau-tuko dau geroago eta erren-ibilkera izango dau bizi izango dan arte.

Agate Deuna

Illak 4. Agateren aurre eguna dogu eta eusko oi-turari jarraituz Deun ospetsua goralduz gabiltzaz adizkideen ateetan ixil-mixil abestuz, bakoitza be-raren tokira gaba emotera bildu aurretik.

6gn egunean. Barruan bazkaldu dogu eta barruan jarraitzen dogu. Aize otzera urtetako deiaren zai gagozan arte «Agur Jaunak» abestutea asmau dogu, baita abestu be. Onetan ari garela, kartze-lako gizona (espetx-zaiña) datorkigu zekorraren botzaz itaunka zeintzuk izan dira abeslariak. Ez-tau artzen ezelako erantzunik eta odol berotu da artz baltza. Anton Zarrabeitia dogu gelako burua (Lemoarra). Etorbarriaren eskutzar latza Antonen bizkarrean jarri da eta ba-daroa nonora ostikoka ta ikubilka belarriak eratsi baiñik. Artzaren inda-rrak eta jotak Antonen bizkarrean utsitu eta baretu ondoren, eta artuak artuta, emen dogu gure An-ton arratiarra bizkar baltz eta belarri-matrail gorri irriparrea agertzen dauskula. Arrezkero izilik izan bear izaten gendun.

18gn eguna. Patxi Sautuaren ikustaldia izan dot. Fazisten menpe dago gudari-morroitza egiten eta mendian dabillena dot.



-Kaixo, Patxi: Barri onak ala txarrak?

-Ez larritu, adiskide: garaille jagiko gara.

Oneik lako berba pozgarri ta belarri-gozotzalleak izaten ziran ikustera etortzen ziranenak, eta nik uste, biotzean dogun astuntasuna arintzeagatik esaten dauskuezala.

Jagole barriak

Jagole edo espetxezain barriak jarri dauskuez. Orañartekoak gogorak eta ankerrak izan ba-jakuz, oraingoak ez tira zero-txoriak, lengoak bazen latzak edo latzagoak doguz. «Mitzelin» izenagaz ezautzen doguna da gure bizkarren laztangarri, idizillari dantzan erozoten polito daki, lan au ondo ikasia dauka. Eztakigu zelan izango dauan soin estaldua, agirian eztaukana, arpegia, baña, zornez ondatua agiri dau, erdi-ustalduta lizunkeriaren ezaugarri.

Epailla

Illak 3.- Lagun barriakaz bete dauskuez nasai-egiak ez doguzan txoko, ertz eta basterrak. Eriotz lokarripetuak doguz.

7a.- Ikoka, goragoraka ta pozez gagoz. «Balears» fazista guda-itxasontzia urperatua izan dala dinauskue.

8gn. Ikustera etorri jatan emakumearen ixileko orri idatzia artu dot, otzaratzo bat beretzat egiteko eskatzen daust. Esku-lanezko gauzatxo politik egiten doguz bizikera baltz-gorria aiztuten dogun

aldietan. Ezin izango dot bete emakumearen naia. Galerazi dauskuez jolas bezela egiten izan doguzan lantxoak.


Illak 9.- Eriotz makurrak ara ta ona, ona ta ara biraka egiñaz geroago ta estutuago egiten dausku ilketaren uztaia. Orainarte bein bere gezurtatu ezin izan dogun izpar baltza goitik berako abiada errezean d-torkigu 35 dirala esaten urrengo ekitaldirako.

10.- Atso izpar garratza egia biurtu dan bidean aurrera joten dator. Ordulariaren arpegi zurian gabeko amarrak dirala ikusten dogu. Une larrian bizi gara, geldi egon eziña dogu. Aldameneko atietan kirrizt-karraztak entzuten doguz, eta gu, noiz etorriko zai gagoz, mozolloak bazen zabal begiak zabaldurik ateari adi.

Otsorik ez dogu izan gelako artaldean, ondokoen artean zer edo zer gertatu izan dala ondo dakigu ostera. Eta atek idigi dauskuezanean askarregana joten dogu auzoken bat ostu ete dauskuen jakin minagaz. 29 izan dira gabezko gizon lapurrak Deriora eroan dauskuezanak. Illa-ren amaikagarren goiza da eta ezaunik ez dot izan il dabezenen artean.

11gn goiz onek ez dau agiri pozkarizko girorik. Igitaiaren mustur zorrotzak zorrotz agertzen dauskuz ortzak, goseti dirudi. Oduak zelan aurrera gure indarrak alan lurrera, iñoixko makalen.

Txutxu-mutxuak eta zurrumuruak berrogetakak garala diñue, baita ziur-ziur, gelakideren bat be badala. 9an aldera ondo ta argi dakigu zein izango dan ondotik kenduko dauskuen lagun maitea. Deitzera



etorriko diran baño len, erabagi zarra bete bearko dau norbaitek, jakin-arazo bearko dautso.

Andoni aurretu da gaxo onengana be, eta sorbaldan eskua ipiñirik eta maitekiro diñotso «Adiskide, ez erantzi soñekorik lo egiteko, ire gaba dok eta egon adi gertu».

Bizitzaren bizia laburtuta ikusten dauan gizonak eztautsoe emon garrantzi geiegirik entzun dauzan berbai, eta, lurrean dauan lo-abian jarririk eskutitzak idazten diñardu. Emaztearentzat eta adizkideen batentzat dira, nasai ta baketu dirudi. Amaitu dau eskutarteko lana, ipuñak esaten daragaio eta pozik dala dirudi aurrea artu dautsoen lagun ilda-koakaz alkartuteko.

Gaberdiko amabi dangada otsakaz batera tajatu da giltza berarentzat egiña dan zuloan. Bira bigaz atzeratu dau ormaren zuloan sartuta egon dan burdin-musturra, aurreratu dira gizon biotz gabeak eta betirako galduko dogun adizkidearen izena uguzi dabe errukirik barik eta arrokeriz. Gertatzeko diñoetse, baña gure gizonak eztauka zer gerturik, eta gertua dagola erantzuna emonik eta gelditzen geranoi beraren gogo alderako otoitzak eskaturik, agur dagizku benetako epai-egunarte.

Leturia-tar Joseba da eroan dauskuen gelakide adizkidea. Lekeitioko batzokiko lendakaria. Emaztea ta ume gazte bi laga dauz lur onetan.

27-k lagundu dautsoe Leturiari. Andrazkoak izan dira bi, eta onaitako batek 40 eguneko umetxu itxia dau.

Il naiz bizi

Kristoren ezaugarria paparrean, Kristo ezpanetan eta Kristo toki ta ordu guztietan dabillaienak egiten dauskuezan trizkantzak ikustean, Jaungoikua-ren ganako sinismena galdu dabenak be ba -doguz. Batzueri bardin dautse il naiz bizi, beste batzuek barriz naiago dabe ainbat lesterren il.

Orozkoko seme zan, urtietan 60tik gora eta bere abizena Lekanda. Zillarrezko diru apurren bat etxean aurkitu eutsoela ta gugana bialdu eben 6 urtean giltzapean izateko. Eguneroko alkar ikustietan eguneroko alkarrizketak izaten genduzan.

Umetan zerbait ikasi genduanok lez, beste munduari, il da gerokoari, bildur eutson. Baña, ikasiak ikusita, sinismena galdu ebala, zerua ta inpernua umientzat egindako ipuñak zirala, eriotzagaz guztia

amaitzen zala a.t.a. esaten asi zan, bai ta, bere burua ilteko asmoa ebala be, obe zala ba, zenbat azkarrago il 6 urtean zorrien janari izan baño.

Igandez jazo zan. Beartuta gengoan, sinismendun eta sinismen bako, meza entzutera. Lekanda, meza entzuteko, gorengo bizilekura igon zan, eta meza amaitu besterik ez, egotzi dau burua, jo dau beko bee gogorra ta zatitu da inguruko ormak odol txipristinez bete ta orbandurik. Lekandak bete dau bere ametsa illaren 13gn.

15gn goizean lau izan dira urkatuak. Zeintzuk eta nonguak izan diran ezin ezin dot jakin. Arratsaldean aukeratuak urkatzeko sei izan dira, baña, zerbait gertatu da ta, eztabez il.

16.- 68 dira eriotzaren astuna arinduta ikusi dabenak. Onein artean da Ugarte-tar Patxi (Txoko) Areatzako, Billarokoa.

Adiskide au be bereak eta bost geiago ikusia da. Bein, gaba baten, orain bat eta gero beste bat, erreskadan egon ziran lekutik alde bietako lagunak kendu eutsoezan. Zer nabaitzen eta eban kolkoan? Bear dan bezela azaltzea elitzakit izango lan erreza.

19.- Joseba Deunaren eguna. Lekandaren eriotzari ondo eretxita edo..., zorrien abi ta janari zan andaluziarrak erabagi bardiña izan dau: burua jaurti. Jaurti da ba, baña une-uneko damualdia izan dauala dirudi: eskegita gelditu da. Eskua ezarri dautsoe egin daua-nagatik zigortzeko, eta ondo be ondo idizildu dabe azur utsak ziran saietstarteak odolgorritu arteño

25.- Pozaren jabe gara barriro be. Eztakigu loretuko dan, baña itxaropen ona lagun ona dan ezkeru eutsiten aleginduko gara. Gorrien giltzapeko diran zuriak onuntz bialduz gu aruntz bialduko gaituela diñue, ala diñogu? Dana dala, astirik galdu barik, pozez eta goragoraka emen gabiltzaz gauzarik bearrearrenak biribilduten txoria eskuetan bageunka lez.

Jorrailla

Aunitz, asko izan dira betirako joan diranak, biur-tuko eztiranak. Geiago gara oraindiño praka estuegietan bizi garanok, biotzaren taupada garratzak baretu ezin baretu doguzanok.

Orduak luze, egunak urduri ta gabak larriak. Sabela gosez, gogoa azkatasunaren egarriz, begientzat nas-kagarri egin diran ormatzarak aurrean, idizillaren keriza orpoan jarraika. Orkoro atzazabal bigunduta zorriak ilten eta arri ta ol gorreraren ganean lo

egiten azurrak minduta, jorraillaren laugarren gaberano eldu gara.

Gaba ontan turuta-otsak datorkuz etxearen lau alberdietatik. Eztakigu zer gertakizun adierazo gura dauskuen, eta larrialdi bat geiago nagusitu da. Tokien batzuetan triskantza egiteko deia zala usterik, gabarik geiena emon dabe itxarrik eta gerturik, atatera datorenari aginak erakutsi ta alkar ilten ilteko. Franco-tarren Lerida menperatzearen ezaugarriak izan dira barteko turuta joateak, ezer txarrik ez zan jaso.

9gn ezkontza bat izan gendun. Zelan galdu dodazan egunkariaren ainbat orrialde, emen amaitzen dot gaurdano ikusi, entzun eta egin dogun edo izan dogun bizikera. Aurrera noa, baña, Burgosen emon gendun aldiari zerbait eskatu ta zeaztasun geiegi-korik barik azal-azal argitaratutera.

Burgos

Bilbon gagoz oraindiño, Jakoba deunaren goiza da ta izen-zerrenda luze-luzea irakurri dauskue.

Izentatukako guztiok besteakandik banandu ta bialdu gaituez. Illazki ta lastakiñezko lo-abiak, jan-ontziak, estalki berrogarriak e.a. artzeko be agindu dauskue eta gertuak gagoz aldakuntza barri onen jakin-miñak jota.

Lokarri pilla agirian dago, eztakigu zer asmo-tarako. Asi dira lokarriak azkatzen eta oneikaz eskumuturretatik lotuten gaitue. Bakoitzak aldogun eran bizkarreratu doguz geure tresnatxoak

eta Zabalbide aldapea bera garoardiez txapelokereez esituta, Norteko bultzin-geltokira.

Emen, abelgorri, zaldi, asto ta txarriak bagiñaz le-txe sartzen gaitue buzpurdietan. Ezkurik eztauskue azkatu eta burdi bakoitzaren ate erdi idigian sugegorri bi doguz: txapelokerrak dira.

Buru egiten dauan burdia asi da aurrerantz indarka fut, fut egiñaz, eta atzetik lotuta daukazanak ixil-ixilik eta leunki jarraitzen dautsoe aurrelarien indar-egiteari. Zein bide artu dogu, nora garoardiez, zertarako ta noizarteño? Aldiak dau erantzune.

Bultziñak aurrera dagi bere bidean, eta, fut, fut neketsuan, guraitu dau Orduñako aldapa gogorra.

Agur, Bilbo, agur, Bizkaia, agur Euskalerrria. Bigarren aldiz ezautu bearko dogu Kastilla legor eta latza. Amorde biotz gabe onen otsein eta doakabe izango gara urtietan.

Kastillako galondo lur billuztuak zearkatu doguz eta Burgos, uriburura eldu gara. Lurreratu gaitue, eta biñaka lotuta gagozan arren, seinaka lotuten gaitue eskumutur bitarteetatik eta aurretik atzera beste lokarri luze bategaz alkaturik. Era onetan be igez egin geinkelata, beste lokarri bat geiago jartzen dauskue besotik besora inguru egiñak, eta, «aida» entzun dogun bazen bizkor aurrera goaz, oinpean astintzen dogun auts gorri igarra eguzki galdagaz batera iruntsiten dogula.

Ormak baño besterik agiri eztauan zerbait ikusten dogu begien aurren, gure bizileku barria da.



